



ttipi-ttapa

2011ko azaroaren 24a | XXXI. urtea | 555. zenbakia

www.ttipi.net



Azaroak 25:

emakumearen kontrako bortizkeriaren aurkako nazioarteko eguna → 9

Eraikuntza

Gehigarri berezia → 11/34

IGANTZI/ITUREN

Kultur Egunak izanen dira abendu hasieran

ARESO → 55

Euskararen Eguna abenduaren 3an

LEITZA → 54

Goi Tentsioko Lineari buruz herri batzarra ostegunean

BAZTAN → 59

Baratzeko lurak eskainiko ditu Udalak

2012ko aurrekontuak **Nafarroako Gobernuak** proposatu bezala onartzen badira...

Euskarazko hedabideak DIRU-LAGUNTZARIK GABE utziko ditu Euskarabideak

Bitartean...

- Gazteleraz emititzen duten hiru telebista pribatuen artean 2.450.000€ banatuko ditu (Popular TV, Canal 4 eta Canal 6)
- Publizitate instituzionalean gobernuak gastatzen duen ia %100a gaztelerazko medioetan gastatuko du oso-osorik
- Ingelesa eta atzerriko hizkuntzak ikasteko 901.400€ banatuko ditu eta 'gaztelera babesteko' sail berria sortuko du 2012an

Azken urteotako joeraren azken urratsa eman nahi du Nafarroako Gobernuak. Euskarazko hedabideentzako zituen diru-laguntza gero eta urriagoak ezerezean geldituko dira heldu den urtean, baldin eta 2012rako aurrekontu proposamenean jasota daudenak betetzen badira. Eta ez hori bakarrik, aurrekontu bertan, 2011ko diru-laguntzaren bigarren zatia %34a ez ordaintzea erabaki dute. Erabaki hauen ondorioz, hedabideak ekono-

mikoki itolarrian utzi ditu UPN-PSNren gobernuak. Kaltetuak, hedabideekin batera, herriarrak gara. Informazioa aukeratzen dugun hizkuntzan jasotzeko eskubidea eta aukera gero eta murriztagoa dugulako, euskaraz bizitzeko aukerak urritzen zaizkigulako hedabideak itoeraziz eta, azken batean, euskaldunok gure lurraldean bigarren mailako herriarrak bilakatzen gaituelako. Ez, ordea, zergak pagatzerakoan. → 36



ELKARRIZKETA → 3

Patxi LASA

Justizia sozialaren eta giza eskubideen alde lanean ari den Gizakia Herriar Fundazioko sortzaileetako bat da

ERREPORTAJEA → 4-5

Azaroaren 20ko Espainiako hauteskunde orokorren emaitzak herriz herri

GOIZUETA → 52

Zortzigarren aldiz feriak eginen dira larunbat honetan eta txondorra izanen da berrikuntza nagusietako bat

ZOKKETAK → 71



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora

Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kartoiako ontziak, papera,
egunkariak, aldizkariak,



Plastikozko ontziak,
latak, brikak,



Beirako botilak,
flaskoak, poteak,

Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizitza luzea dute. Baliteke zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakuriko duzun hurrengo liburuan edota ureztantzi batean... Zeren, manera batera edo bertara, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.



Euzko Legea



Biziriketa
eta Munduaren
Mantentzeak



Ingurumen
Zerbitzu orokorreko
Mantentzeak



ECOEMBES

BERAZAR PARA RECICLAR

Justizia sozialaren eta giza eskubideen defentsan lanean ari den Gobernu Kanpoko Erkundeak da Gizakia Herriar Fundazioa. Ahulenen alde egiten du eta helburu horrekin sor-

tuak ditu hiru jarduerak-lerro: Paris 365 jantoki solidarioa, Nafarroan dauden etorkinentzako Etorkin Aholkularitza Juridiko doakoa, eta Bizikasi institutua, fundazioak erabiltzaileen

prestakuntza hobetzeko. Informazio gehiagorako eta harremanetarako: www.paris365.org, paris365@paris365.org eta 948 225178 (10:00-13:00). Facebook-en ere hor daude.

Patxi X. LASA | Gizakia Herriar Fundazioak presidentea

«Pertsonetan sinisten dugu, gauzak egin eta aldatzeko duten gaitasunean»

J. IRIGOIEN

Zer da Gizakia Herriar?

Gobernu Kanpoko Erkundeak da, irabazi asmorik gabekoa eta interes orokorrekoa. 2008aren bukaeran sortu genuen Nafarroako hainbat lagunen artean bi helbururekin: gure inguruan premia larrian bizi diren bizi-baldintzak hobetzea, batez ere pobrezia eta bazterketa sozialean daudenak eta, bigarrenik, herritarrek sentiberatzea justizia sozialaren eta giza eskubideen aldeko zereginetan aktiboki parte har dezaten. Gure laneko filosofiararen arabera, jarduerak zehatzetan eta modu iraunkorrean parte hartu behar du gizarte zibilak, oraingo gizarte-eredua beste eredu solidario, bizidun eta berdintasunaren alderuntz aldatzeko. Pertsonetan sinisten dugu, gauzak egin eta aldatzeko duten gaitasunean eta, jakina, pertsona eta herrien kultura eta ohiturak errespetatzen ditugu.

Lanean ari zareten alorrean administrazioak ez duela behar adina egiten iruditzen zaizu?

Bai, ez du nahikoa egiten, eta, 42.000 langabe dardela, orain egin beharko luke administrazioak bere ahaleginik handiena behar gorrian daudenak babesteko. Hori baita administrazioaren betebeharra, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsaletik datorren betebeharra.



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Lasa Gizakia Herriar Fundazioak presidentea da.

Fundazioak dituen hiru jarduerak-lerroen artean Paris 365 jantoki solidarioa izan da adierazgarriena. Azaldu...

Egia da, Nafarroako gizartearen, Paris 365 jantoki solidarioak izan duen inpaktu mediatiko eta sozial oso garrantzitsua izan da, eta bestetik, logikoa ere bai. Nafarroako BPGren maila altua da eta Europako batz bestekoaren gainetik dagoen aberastasun maila izanda, bazirudien jantoki sozial bat izatea pentsaezina zela. Baina dagoeneko 53.000 bazkari eta afari baino gehiago banatu ditugu eta 1.500 laguni baino gehiagori egin diegu harrera.

HIRU ARDATZ

«Paris 365 jantoki solidarioan 53.000 bazkari eta afari baino gehiago banatu ditugu. Nafarroan dauden etorkinentzako Etorkin Aholkularitza Juridikoaren bidez, 12.000 kontsulta baino gehiago egin zaizkie 75 herrialde-tako 2.500 laguni. Azkenik, Bizikasi institutua aipatu nahi nuke, boluntario eta erabiltzaileei prestakuntza eskaintzen diena eta proiektu berrien diseinu eta finantziarioak arduratzen dena».

Ameskeria batean bizi ginen, baita Nafarroan ere, eta gainera, gero eta gehiago dira ahulezia, pobrezia eta bazterkeria sozialean bizi diren nafarrek, eta horrek gizarte desberdintasunak areagotzen ditu. Jantokiarekin batera, bigarren baliabide bat ere jarri genuen martxan, Nafarroan dauden etorkinentzako Etorkin Aholkularitza Juridikoa, hain zuzen, eta doan. Gaur egun, 12.000 kontsulta baino gehiago egin zaizkie 75 herrialde-tako 2.500 laguni. Azkenik, Bizikasi institutua aipatu nahi nuke, boluntario eta erabiltzaileei prestakuntza eskaintzen diena, ba-

naka edo taldeak egiten ditugun konpainiez arduratzen dena, eta proposatzen ditugun gizarte ekimenez eta hurrengo hilabeteetako baliabide eta proiektu berrien diseinu eta finantziarioak arduratzen dena.

Fundazioaren eguneroan boluntarioen lana garrantzitsua da, ezta?

300 boluntario baino gehiago ditugu, eta horietako 150ek astean hiru orduz laguntzen dute eta gainerakoek momentu jakinetan. Hainbat fundazioen kolaborazioa ere badugu eta 40 bat enprekin sare bat ere bai, eta hauek elikagaiak ematen dizkigute batez ere. Guztiei eskerrak lortu dugu hona ailegatzea, beraiek dira fundazioaren eta honen proiektuen motoreak.

Nola erantzun dio gizarteak zuen lanari?

Erantzuna apartekoa izan da, baina ez boluntarioen edo entitate eta enpresa kolaboratzaileen alde-tik bakarrik. Tokiko hedabideen erantzuna ere garrantzitsua izan da, baita finantzia-erakundeena ere. Baina guztiaren gainetik Nafarroako gizarte zibilaren babesa somatu dugu, ehunka lagun anonimoen donazio ekonomiko tiki eta handiei eskeratera dira gure proiektuak aurrera. Fundazioak 225 bazkideez ere ez nuke ahaztu nahi, eta Nafarroako Gobernutik ere babesa jaso dugu.

UDAL HAUTESKUNDEAK | 2011/11/20

ZERRENDA IREKIAK DITUZTEN HERRIAK

ARANO	Ainhua Ansa (35), Xabier Legarreta (33), Joxean Ruiz (31), Maider Ansa (24) eta Maitane Sarobe (23)
ELGORRIAGA	Juan Miguel Sukilbide (66), Jose Ignacio Olazar (60), Martin Larralde (58), Juanjo Perez de Arilluzzea (55) eta Rosa Mari Ibarra (40)
URROZ	Xabier Matxinena (50), Jesus M ^a Ezkurra (50), Iñaki Juanena (40), Ignacio Urroz (38) eta Patxi Urroz (37)

DONAMARIA

7 HAUTETSI

Zentsoa: 340

Mikel ARREGI

(Herriarengatik)



	2007	2011
Herriareng.	7 192 boto	7 228 boto
Baliogab.	2 boto	9 boto
Zuriak	9 boto	8 boto

ITUREN

7 HAUTETSI

Zentsoa: 410

Mari Jose BEREAU


(Bildu)



	2007	2011
EA	7 136 boto	7 204 boto
Bildu		7 204 boto
Baliogab.	65 boto	46 boto
Zuriak	53 boto	31 boto

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK NAFARROAN

UPN	2	%38,17	PSOE	1	%22,00	Bildu	1	%14,87
-----	---	--------	------	---	--------	-------	---	--------



G	1	%12,84
---	---	--------

	0	%5,52
--	---	-------

Bertze alderdiak	0	%4,51
------------------	---	-------

NAFARROA

	2011	%
Zentsoa	469.898	100
Partehartzea	335.202	%71,34
Baliokoak	329.846	%98,40
Baliogabeak	5.356	%1,60
Zuriak	6.693	%2,03
UPN-PP	125.935	%38,17
PSN-PSOE	72.591	%22,00
Amaiur	49.064	%14,87
Geroa Bai	42.372	%12,84
Ezkerra	18.209	%5,52
Bertzeak	14.982	%4,51

* Botoen %99,90 zenbatua zegoenean.

- Nafarroari dagozkion bortz diputatuak lau talderen artean banatu dira, inoiz baino aniztasun haundiagoarekin
- Amaiur eta Geroa Baik lortu dituzten emaitzei esker abertzaleen presentzia areagotu egin da, PSNren kaltetan
- Amaiurrek lortu ditu botorik gehien ia herri guztietan, Urdazubin (UPN-PP) eta Eratsunen (Geroa Bai) izan ezik
- UPN-PPk eta Amaiurrek berdindu egin dute Urroren eta Baztanen 45 botoko aldea atera dio Amaiurrek
- UPN-PPri. Maiatzeko udal hauteskundeetan, UPNk Bildu baino 45 boto gehiago lortu zituen Baztanen

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ESKUALDEKA



BAZTAN		
Amaiur	1.356	%34,01
UPN-PP	1.311	%32,88
Geroa Bai	737	%18,48
PSN-PSOE	383	%9,60
Ezkerra	67	%1,68
Bertzeak	59	%1,47
Zentsoa	6.253	100
Partehartzea	4.045	%60,69
Baliokoak	3.987	%98,57
Baliogabeak	58	%1,43
Zuriak	74	%1,86




BERTIZARANA MALERREKA		
Amaiur	1.134	%41,46
Geroa Bai	598	%22,39
UPN-PP	578	%21,64
PSN-PSOE	248	%9,28
Ezkerra	36	%1,35
Bertzeak	38	%1,42
Zentsoa	4.343	100
Partehartzea	2.702	%62,22
Baliokoak	2.671	%98,85
Baliogabeak	31	%1,15
Zuriak	33	%1,24



BORTZIRIAK		
Amaiur	2.016	%45,89
Geroa Bai	919	%20,92
UPN-PP	723	%16,46
PSN-PSOE	511	%11,63
Ezkerra	80	%1,82
Bertzeak	94	%2,14
Zentsoa	6.815	100
Partehartzea	4.452	%65,33
Baliokoak	4.393	%98,65
Baliogabeak	60	%1,35
Zuriak	50	%1,14




LEITZALDEA		
Amaiur	1.572	%69,19
Geroa Bai	291	%12,81
UPN-PP	285	%12,54
PSN-PSOE	91	%4,01
Ezkerra	10	%0,44
Bertzeak	11	%0,48
Zentsoa	3.401	100
Partehartzea	2.297	%67,54
Baliokoak	2.272	%98,91
Baliogabeak	25	%1,09
Zuriak	12	%0,53



URDAZUBI ZUGARRAMURDI		
UPN-PP	119	%35,84
Amaiur	91	%27,41
Geroa Bai	78	%23,49
PSN-PSOE	30	%9,04
Ezkerra	3	%0,90
Bertzeak	3	%0,90
Zentsoa	475	100
Partehartzea	339	%71,37
Baliokoak	332	%97,94
Baliogabeak	7	%2,06
Zuriak	8	%2,41

HAUTESKUNDEAK 2011/11/20 → ESPAINIAKO GORTEAK

Amaiur izan da alderdirik bozkatuena botoen %45,18rekin



Bigarren indarra izan den
UPN-PPk %22,09 lortu ditu
eta Geroa Baik botoen %19,21

											
				Baiogabeak	Zuriak	Amaiur	GeroaBai	UPN-PP	PSN-PSOE	Ezkerra	Bertzeak
	Zentsoa	Partehartzea	Abstentzioa	2011	2011	2011	2011	2011	2011	2011	2011
ARANO	116	56	60	0	2	41	8	2	1	0	2
ARANTZA	544	378	166	9	1	238	75	37	17	1	0
ARESO	234	144	90	1	1	84	21	26	10	1	0
BAZTAN	6.253	4.045	2.208	58	74	1.356	737	1.311	383	67	59
BEINTZA-LABAI.	215	108	107	2	1	39	20	35	7	0	4
BERA	2.888	1.827	1.060	25	20	707	397	328	240	50	60
BERTIZARANA	498	310	188	2	1	153	42	68	39	2	3
DONAMARIA	335	249	86	6	8	102	66	46	15	4	2
DONEZTEBE	1.182	774	408	7	12	238	155	233	92	16	21
ELGORRIAGA	163	122	41	1	3	45	32	25	12	2	2
ERATSUN	156	77	79	0	0	26	34	14	1	1	1
ETXALAR	634	402	232	4	10	210	65	80	25	3	5
EZKURRA	162	80	82	2	0	37	8	26	5	2	0
GOIZUETA	670	471	199	5	2	400	37	21	5	0	1
IGANTZI	503	341	162	5	6	145	74	63	44	1	3
ITUREN	405	285	120	4	1	165	65	30	16	3	1
LEITZA	2.381	1.626	755	19	7	1.047	225	236	75	9	8
LESAKA	2.246	1.504	742	17	13	716	308	215	185	25	25
OIZ	122	68	54	0	2	29	20	10	4	2	1
SALDIAS	114	58	56	0	0	26	9	6	10	3	4
SUNBILLA	597	339	258	4	2	160	91	44	32	1	5
URDAZUBI	302	229	73	5	7	52	61	82	21	1	0
URROZ	153	97	56	0	3	32	24	32	6	0	0
ZUBIETA	241	135	106	3	0	82	32	9	9	0	0
ZUGARRAMURDI	173	110	63	2	1	39	17	37	9	2	3
Denetara	21.287	13.835	7.451	181	177	6.169	2.623	3.016	1.263	196	210



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Galderak

Egunero, jeiki orduko galderez betetzen zaigu burua. Erantzunak bilatu nahian ibiltzen gara beti, eta aunitzetan, erantzunaren ordeztu berte galdera bat bururatzeko zaigu. Jakinminik gabeko pertsonak ere badaude, eta beharbada kontent biziko dira, tristea badirudi ere; izan ere, JAKINMINAK horixe dakar aunitzetan, MINA. Eta GALDERAK, GAL ERA.

Hortaz, hobe galderarik eta jakinminik gabe bizi? Hortxe galdera. Eta erantzuna? Berte erantzun bat falta. Berte bat. Filosofia alde batera utzita, berte galdera bat: nork asmatu zituen galderak? Zer izan zen lehenengo, galdera? Edo erantzuna? Galderak jakinmin handia zuen norbaitek asmatu ote zituen? Deus ez zekien norbaitek agian? Edo erantzun guztiak zekizkien Listomari horietakoren batek? Ez dakit. Galdetzen segitu beharko.

«Nork asmatu zituen galderak? Zer izan zen lehenago, galdera? Edo erantzuna? Ez dakit. Galdetzen segitu beharko»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Sari matxistak... eta klasistak

Kiol proba gehienak matxistak direla aditua dut maiz, sari potoloagoak dituztelako gizasemeek emakumeek baino. Ados egon naiteke, nahiz eta sexismorik ez izateko, gizon eta emakume, denak sailkapen berean sartzea egokiago iruditua. Eta zergatik ez lehenbiziko hiruek haina edo gehiago sufritu izanen duten hiru azkenekoei sariak eman? (Inoiz ez naiz podiumean izan, bistan da!)

Nabarmentzekoak



Pakita ALTZUGUREN
Usategietako lehiaketa

Etxalarko Usategietan lehen aldiz antolatu da lehiaketa gastronomikoa. Hamaika sukaldarik aurkeztutako kaxulen artean, Etxalarko Elutsa jatetxekoak irabazi zuen lehen saria.



Juan ETXENIKE
Erremontelariaren heriotza

Hogei urtez, 1951tik 1971ra erremontelari profesionala izan zen zugarramurdiarra azaroaren 11n hil zen, 81 urte zituela. Euskal Jaiei eta Donostiako Urumean aritu zen atzelari.



Txomin IRIBARREN
Dantxarinekoko ostalaria

Kontsumizioarekin batera pintxora gonbidatzen dute Dantxarinekoko 10 ostatu eta bentetan abenduaren 2ra arte, asteazkenetik ortziralera, Elkarteko presidentek jakinarazi duenez.

Atzera begira → 2001.11.29 / TTIPI-TTAPA 315. zbk



Boneta beltzaren etorkizunaz hausnarrean

«Gazteek ez dute boneta maite». Hala zioen duela hamar urte TTIPI-TTAParen azalak. Erreportajeko izenburuak zalantza gehiago erakutsi zituen: «Azken belaunaldia aliegatu ote zaio euskaldunen boneta beltzari?». Galdera horri erantzunez, eskualdean zapala erabiltzen zuten hainbat lagunekin izan ginen. Elbeteko Bizente Goienetxek «boneta ez da sekulan akituko» zioen. Arantzako Luis Madariagak, «nahiago dut trajerik gabe ibili, zapelik gabe ibili baino». Negan goxotasuna eta udan itzala emateko erabiltzen zuten gehienek, baina Goizuetako Manuel Goizuetak irriz zioenez, «talentuak ez alde egiteko».



Argitaratzailea Ttiipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttiipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Alzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxel, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joana Guerendiain, Martin Bertiz...

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemane Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Sempereko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	37€	Europa	55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	31€
Ipar Euskal Herria	55€	Amerika eta Australia	123€	Leitza	15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Merenge frantsesaren gogortasuna

Luis GARDE

Artxibo batean nire esaldi umoretsu faborito-en zerrenda gordetzen dut; irakurri aldiro irri eginarazten dizuen horietakoak. Haietako gehienak Grouchorenak dira. Esaldi berri bat erantsi nahi diet: «Tartek min eman zidaten, merenge frantsesaren gogortasuna dela-eta». Ño! Nik uste nuen merengea arrautza-zuringoz egiten zela. Agian arrautz frantsesak euskal arrautzak baino gogorragoak dira.

Bai, Nafarroako lehendakari andereaz ari naiz. Eta egunotan You Tuben bideorik arrakastatsuenetarikoa batez ere bai. Toulousen zegoela, bertze jende elegante batekin Abiadura Handiko Trenari buruz solastean, Mugitu taldeko hiru pastelgilek gure lehendakariari arratsaldea gozatzea erabaki zuten. Hori bai, komunikabide gehienek ez zuten deustarako aipatu inongo trenik; tartalarien salaketa ekologista zela ere ez. Hiru «abcherches violentos» besterik ez ziren. Barregarriak ere lehendakari anderearen osteko esaldiak: «Lehengo berberak dira, ez dira aldatu; indarkeria ez da bakarrik hiltzeazuztea». Tira, esan de-

zala tarta txarra zegoe-la eta bera pozoituta hiltzen saiatu zirela.

Egia esan, tartak aurpe-gira botatzea maiz erabili izan da mendebaldeko herrialdeetan protesta umoretsu gisan. Hainbertzerako ez da: politika-

kariet soldatan sartzen zaie. Ezetz uste? Adibide bat jartzeagatik (eta kutxen gainsoldata ez aipatzeagatik):

Nafarroako Gobernuak prentsa kabinetearen arabera, 2012rako lehendakari anderearen soldata %43 arte jaitsi behar zen. Ejenplua eman behar da, bai jauna, bereziki krisi garaietan. Errealitatea, halaber, oso bestelakoa da: 2011n 69.354,46 euroko soldata zuen. 2012rako, aurrekontu orokorrean egitasmoaren arabera, bere soldata 92.712,61 eurokoa izango da. Beherakada izateko ez dago gaizki. Nik ere niretzat nahiko nuke horrelako elkartasuna adierazi ahal izatea. Trukean, aurpegi-an bi edo hiru tartakada jasotzeko prest nago... nahiz eta merengea frantsesa izan.

Hemen zer dago, diru gutxi edo lapur gehiegi?

Hiru Mugitu taldeko atxilotuei ez diete deitu Nafarroako Auzitegi Nagusian deklaratzera, baizik eta Madrileko Auzitegi Nazionean; hau da, terrorismo eta orden publiko kontrako delitu larriak epaitzen dituen auzitegian.

Nire elkartasuna eta estimua adierazten diet hiru tartalariet zutabe honetatik. Tarta gutxi hainbeste aurpegi handientzako. Eta bigunegia hain aurpegi gogorrentzako.

«Tarta gutxi hainbeste aurpegi handientzako. Eta bigunegia hain aurpegi gogorrentzako»

Murrizketa gehiago euskarazko hedabideendako

Nafarroako euskarazko hedabideak eta Topagunea

Nafarroako euskarazko hedabideek eta Topaguneak, Euskara Elkartearen Federazioak, salatu nahi dugu beste behin ere Euskarabideak murrizketak ezarri dizkigula. Irailaren 7an Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuen aurtengo aurrekontuetan 327,25 milioi euroko gastu murrizketa eginen zuela. «doikuntza» horien helburua aurrekontuaren egonkortasuna bermatzea dela azaldu zuten. Irargarpen horrek gizarteko arlo asko ukitu ditu hezkuntza, osasuna eta beste.

Eskarmentuak erakutsi digu halakoetan euskarari zuzendutako diru-sailak ez direla onik ateratzen. Irargarpena jakinarazi zenetik zenbaitetan Euskarabidearen informazio eske jo genuen. Ez ziguten ezer erantzun. Edo bai, esleitutako diru-laguntza kobratzeko dokumentazioa aurkezteko epea aurreratu zutela.

Aste honetan iritsi da murrizketaren jakinarazpena. Maximino Gomez Serrano Euskarabideako zuzendari kudeatzaileak azaldu digunez, Nafarroako Gobernuak aurrekontuak «doitzeko» hartutako erabakiak «Euskararen gainerako programak komunikabideetan» kontu-sailari ere eragin dio. Euskarabideak jakinarazi duenez urriaren 31ra arte justifikatutako gastuak ordaintzeko adina diru badu, baina urteko azken bi hilabeteetarako aurreikusia zuen dirurik ez dago.

Euskarabideak esleitutako diru-laguntzak bi epetan ordaintzen ditu. Diru-laguntzaren erdia jakinarazpenarekin batera ematen du, eta beste erdia gastuak justifikatu ondoren. Bigarren ordainketa horretan eginen du murrizketa Euskarabideak. Honela:

Beleixe irratia: %34ko murrizketa.

Esan-Erran irratia: %37ko murrizketa.

Guaixe aldizkaria: %20ko murrizketa.

Mailope aldizkaria: %34ko murrizketa.

Pulunpe aldizkaria: %37ko murrizketa.

TTIPI-TTAPA aldizkaria: %34ko murrizketa.

Xorroxin irratia: %33ko murrizketa.

Murrizketa horiek guztiek, euskarazko hedabideok aurretik jasaten ari garen egoera ekonomiko larria areagotzen du. Hedabideok esleitutako diru kopuruak kontuan izanik egin ditugu urte guztiko aurreikuspenak. Orain, bat-batean, zati bat kentzea lehendik ahula den gure ekonomia-osasuna kolokan uzten du. Gauza aski jakina da hedabideok ezinbesteko elementu bat garela euskararen ekosistema mantentzeko, indartzeko eta biziberritzeko. Euskarabideari eta haren arduradun politikoei hori ahalbideratzeko, babesteko lan egitea exijitzen diegu. Horregatik, esleitutako diru-laguntza bere osotasunean ematea exijitzen dugu. Aldi berean, sektoreko aktoreekin bildu, egoera aztertu eta etorkizuneko hitzarmen bat lantzea eskatzen dugu, Nafarroako Parlamentuak 2009an eskatu zuen moduan.

Irakurleak mintzo

Brnon, 2011ko
azaroaren
21erako

Ainara MAIA URROZ

Kaixo, aita maitea, zer moduz zaude?

Azaroaren 20ko hau-teskundeetan ezingo dut bozik eman eta Amaiur urdin horrek irabaziko al du! Gure bihotzeko Amaiur eta Itzalozko borda handaude, iazko abuztu-an askatu genituen zure hautsak Gorramendi kaskoan eta *Gora Gu ta gutarrak* oihukatu, eta aurten egingo du bederatzi urte eskutik askatu ninduzula zoriontsu izan nendin eskatuz.

Ni zoriontsu izaten saiatzen ari naiz, zukesan bezala duela bederatzi urte Arantzazuko ospitalean, Donostian. Ez dut lortu. Bederatzi urte hauetan maitemindu naiz inoiz ez bezala inor. Due-la sei urte. Bihotza hau-tsi zidan gero, duela hi-ru urte. Hiru urte haue-tan saiatsu naiz bihotz hau konpontzen irribarre zo-rrutada batzuekin, ne-gar-malko batzuekin, ehunen bat gramolazta-nekin, hiru goilarakada muxuekin, litro laurden bat isiltasunarekin eta bostehun gramo maitasunezko eskutitzak ida-tziz. Saiatu naiz maitasu-na eskaintzen zidatene-kin maitemintzen eta ilu-sionatzen berriro, eta haletako batzuk esan di-date onegia naizela mun-du honetarako eta neu-re mundutxo honetatik atera behar dudala. No-la?

Ezin dut lorik egin goi-

zaldeko ordu honetan, eta ilargia ia beterik ari zatzaizkit keinuka, gain-behera, ilbera. Ohartu naiz neure ametsa bete behar dudala, batez ere duela sei urte Mikel La-boaren boza soinu-ban-da gisa maitemindu nin-tzenean mutil irribarre-tsu harekin indartu zitzai-dan ametsa, egia bilaka-tu behar dudala ohartu naiz: ama izan nahi dut. Aita bat aurkitu behar dut etorkizuneko nire ume-entzat nire obarioek hi-lero bere buruaz beste egin ez dezaten gehia-go, eta horretarako he-men edo han, baina Eus-kal Herrira itzuli behar badut, itzuliko naiz. Kai-ku (tibetarrak) –Haiku (ja-poniarrak) ikuskizun poe-tiko-musikala antolatu behar dute Asier eta Amaiak, eta xorinok oler-ki-liburu batean argita-ratuko du bere burua.

Baina batez ere due-la sei urte indartu zitzai-dan amaizatearen ame-tsa bete behar dut he-men edo Euskal Herri-an. Ahal bada bihotze-ko zaurien zirrikituetatik goxatzen didan txistu isil honekin. Bakarrik ez dut ama izan nahi.

Aita, zinegiten dizut gure euskal lur horren-gatik 2012an zoriontsu izango naizela, 2012an bai! eta bihotz hau-tsi hau sendatuko dela. Eskatzen dizut, ilargi maite, zoriontsu izaten lagun diezadazula, eta zin egi-ten dizut nire aldetik zo-rioritsu naizela esperan-tzarik gabe maitatu ar-ren, itxaropentsu.

Eta barka diezadala batez ere maitemindurik naukan mutil horrek be-rriro, nire begirada triste



Bota bertsoa

Ander FUENTES «ITTURRI» • Doinua: Haizea dator iparraldetik

Hauteskundeak eta gero zer?

Buzonetara heldu zitzaigun propaganda uholdea beltza, xuria, gorri, berdea, urdina edo morea bakotzak eman nahi herriari komeni den kolorea PP, PSOE, IU, Amaiur zein zen zuretzat hobea? erabakita sartu genuen kutxa barnean sobrea biharamunean zuten kontuak egiteko tenorea politikoek ez ote dute izturi antza, ordea haien gisara erdia eginta kontatzen dute doblea.

Nahi haina boto inork ere ez ta irabazleak denak pozik baitaude boto asko ta gutxi bilu dittuztenak orain hasiko dira zalantzak peleiak, bronkak ta demak lehenengo lanak gu herritarrak azkar lumatzearenak gure sosakin ongi beteta bere poltsiko gizenak erdira jeitsi dira promesak lehen doblekoak zirenak denboran orratz luzeak dira epailerik zorrotzenak ia ba zeinen gezurrak dauzkin hankarikan laburrenak.

politaz sorgindu omen nuen behin Senperen, eta ni haren irribarre amultsuaz maitemindu. Barka diezadala arren bera beste inor baino gehiago maitatzeagatik eta beretzat onena nahi izateagatik, eta idaztearen ekintza egoista honegatik mindu badut bera, bere familia zoriontsua eta neure burua. Barkatu, sentitzen dut, maite zaitut eta eskerrik asko.

Amaiur, haurren xatar ezin bihur. Amaitu da ura, agortu da, aita, eta orain itotzen ari banaiz ere le-horte honetan, min ema-ten badit bihotzeko tau-pada bakoitzak, zorion-tsu izateko nire aldetik ahal dudana guztia jarri-ko dudala hitzematzen di-zut, baina arren, ilargi maite, lagundu bihotz ba-karti eta maitemindu hau bakarrik eta mindurik ez egoten gehiago, lagun-du arren. Bitartean hel-du eskutik, aita.

Maitasunez, izan gai-tezen zoriontsu bihotz-bihotzez, Zure Ainarita.

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

can
proiektu
zetaileak
15.996

**Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari**

ttipi-ttapa

TTIPI-TTAPAK proiektuak zurekin laguntzen ditu. Zure laguntza eskertzeko DOKUMENTU-POLTSA bat izanen duzu opari. TTIPI-TTAPAK proiektuak zurekin laguntzen ditu. Zure laguntza eskertzeko DOKUMENTU-POLTSA bat izanen duzu opari.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

BORTZIRIETAKO KONTZILIAZIO ITUNA

Azaroaren 25eko Manifestua

Berriz ere, modu kolektiboan, Bortzirietako Kontziliario Itunatik indarkeria sexista mota guztiak gaitzetsi nahi ditugu: Publizitatean agertzen den indarkeria, albisteetan hedabideek ematen dioten tratamenduan, modetan eta edertasun kanonetan, hizkeran, txiste eta irainetan, hezkuntza eta lanean, familian erantzunkidetasunik ez dagoenean, ekitate sozialaren faltan.

Esparru publiko eta pribatuetan eta modu kontzientean edo inkontzientean erabiltzen diren indarkeria mota guzti horiek egitura bat osatzen dute, emakume eta nesken kontra erabiltzen den bazterkeriarik handiena dena, eta guk indarkeria sexistak deitzen duguna.

Herritar guztien erantzukizuna da gizarte honetako gaitza den indarkeria sexista desagertzea, eta, beraz, indarkeria sexistaren edozein kasu ezagutu edo ikusiz gero, denon egitekoa da mobilizatzea, erantzutea, prebenitzea, isolatzea eta horri aurre egitea.



DATUA

58

emakume erahilak izan dira
2011n Indarkeria
Matxistaren ondorioz

Eta emakumeen erantzukizuna ere bada egoera eta eraso sexisten kudeaketan eta konponbidean protagonistak izatea, li-

dergo jarrera aktibo baten bidez une jakin batzuetan laguntza eskatzeko edo gatazka egoerei autonomiarekin aurre egiteko.

Toki administrazioetatik neurriak ezartzen segiitu behar dugu indarkeria sexista esparru guztietatik desagerrarazteko, gizartean, politikan, legegintzan, ekonomian eta sentsibilizazio eta prebentzio alorretan, nor-

banakoen kontzientzietan aldatak eraginez kolektiboan ere aldataketak lortzeko.

Horrela, elkarrekin aurrera egi-
ten segituko dugu gizarte ja-
sangarri, demokratiko, bidezko
eta berdintzaileago batera iris-
teko.

Hori dela-eta, Bortzirietako Kontziilazio Itunatik:

Berdintasunaren alde lanean segitzeko **GURE KONPROMISOA ADIERAZI NAHI DUGU**, indarkeria sexista mota guztiak prebenitzeko eta ezabatze-ko bide qisa.

Indarkeria sexista **SALATU ETA ELKARTASUNA ADIERAZI NAHI DIEGU** muturreko indarkeria horren ondorioz kolpatutako eta hildako emakumeei.

**HERRITARREI GONBIDAPE-
NA EGIN NAHI DIEGU** emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako jarrera hartu, indarkeria hori errotik kentzeko konpromiso indibidual eta kolektiboak bere egin eta azaroaren 25aren inguruan antolatutako ekintzetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak • ssb@lesaka.net • Tel: 948 635036



Birritan irabazi "Màs Por ti" Klubarekin

Nafarroako Kutxa edo Caja Ruralaren txartelekina ordaindu ezkerre,
merkeago erosi zure puntu/euro **trukatuta** eta, honetaz gain, **400 opari baino gehiago** duten zozketetan parte hartu: bidalak, erosketa bonuak, tabletak, urdailzaploak, ardo kutxak...

Club Más Por ti
Gehiago Zuregatik Kluba



Hala guztiarekin batera jasoko duzu klubarekin **400 Puntu** eta **100 euro** irabazteko aukera. Irabazteko baldintzak klubaren web orrian ikusgai dira. Premiaz gero, argandatu behar duzu 12-rik aurrerantzeko 17-ra. Zuzenean, 900.000.000 gutun bidez ere irabazteko aukera izango duzue.



2012 ZUREKIN
BAGOAZ AURRERA




GIZARTEA

GIZARTEA → 50 URTE BETE DITU ERAKUNDEAK

Adimen urritasuna dutenekin lanean ari den Anfas boluntario bila dabil

Atentzio goiztiarraren programak 32 haur biltzen ditu eskualdean

TTIPI-TTAPA

Adimen urritasuna duten pertsonentzat lanean ari den erakundea da Anfas eta urte hau berezia izaten ari da, aurtengo 50 urte bete direlako 169 lagun elkartu eta ezintasun psikikoa duten erakundea sortu zutenetik. Mende erdi beranduago, 2.926 bazkide dira eta 5.000 lagun baino gehiagok kolaboratu dute elkartearekin.

1961ean sortu zenetik, adimen urritasuna dutenen eta hauen familien bizi-kalitatea hobetzea izan da Anfassen helburu nagusia. 2010ean, adibidez, ezintasuna duten 1.200 laguni eskaini zieten laguntza Nafarroan. Baztan-Bidasoan Lesaka, Doneztebe eta Elizondoren dituen egoitzak.

Hainbat dira hiru heriotan eskaintzen diren programa eta zerbitzuak.



ARGAZKIA: ANFAS

Hainbat jarduera egiteko aukera dute adimen urritasuna duten neska-mutikoei Anfasekin.

Alde batetik, **atentzio goiztiarra** eskaintzen da 0-6 urtekoentzako: estimulazio globala, logopedia, familiari babesa, trastorno garapenean edo izateko arriskua... Honen barne 32 haur daude Baztan-Bidasoaldean, horietatik 22, 0-3 bitartekoak eta 10, 3-6 urtekoak. **Adaptazio abi-
leziak** ere lantzen dira 6-16 urte artekoekin: abilezia akademikoak eta sozialak, hizkuntza eta komunikazioa, orientazioa eta babesa familiei... Horrez gain, **familiei la-**

guntza ere eskaintzen zaie. Batetik, guraso taldeetan hainbat alorretan lan egiten dute urritik ekainera. Bertzetik, adimen urritasuna dutenen ahizpa edo anaia-arrebentzat esperientziak konpartitzeko aukera izaten da. Informazioa partekatu, ezintasuna onartu, zalantzak argitu edo babes emozionala emateko saioak urritik ekainera egiten dira.

Ipuin-kontaketa ere lantzen du Anfasek eta **informazio eta aholkularitza zerbitzua** ere es-

kaintzen die familiei, informazioa eman, konpainia egin eta aholkatuz.

Kanpaldiak ere egiten dituzte gaztetxoek udan. Gisa honetara, koordinatzaile eta boluntarioen lanari esker, hainbat jarduera egiteko aukera dute. Eta azkenik, Anfaseko familia, lagun eta adimen urritasuna dutenen **abesbatza** bat ere badago. Urrik ekainera hilabeteko larunbat batean elkartzen dira.

Eta guztia aitzinera ateratzeko ezinbertzeak dira boluntarioak

BORTZIRIAK

Suko hautsa zaborrontzietara bota baino lehen itzaltzeko eskatu du Hiri Hondakinen Mankomunitateak

TTIPI-TTAPA

Hotza heldu da eta jendea hasia da etxetara sua pizten. Horren harira, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak ohartarazi dutenez, «hori arazo larria izaten ahal da, errausak zaborrontzietara botatzen direlako, eta ongi itzaltzen ez badira, zaborrontzi edo kamioiek su hartzen ahal dutelako». Horregatik, suko hautsak zaborrontzietara bota baino lehen, bustitzeko edo ongi itzalita daudela ziurtatzeko eskatu du Hiri Hondakinen Mankomunitateak.

«eskaldean bortz». Eta horixe da Anfassen behar dutena: boluntarioak. Norbait interesatua egin ez gero: 680 459796, 636 804504 edo voluntariado@anfasnavarra.org.

USOA
Nekazaritza kooperatiba

Bertan egindako produktuak, bertze markak eta ekologikoak.
Orgamak - Burdin tresnak
Injektoreak - Edanak - Harriak
Botikak (jenezitatekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da
Kalefakzioa eta ibigailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 + ETXALAR

ERREKALDE
Platazko konpainia

948 63 52 14

TTAPA: 948 63 52 14

udana
salazones

Importaziozko lehen kalitateko bakailu gaztutua
Bakailu gaztutua eta konjelatua, erabiltzeko prestatu

LINEA-EN-ISO 9001
LAC
SOC-02-0199

Alkiza m. - Barrio, 8 - 23. pisikoa - LESAKA - Tfn: 948 631 536 - Fax: 948 631 530



Eraikuntza

gehigarria 2011





todo&mat

SUKALDEAK **alkain** BAINUAK

dena&mat



Dutxa + manpara +
bidet-a + komun-ontzia +
ispilua + konketa + kanilak +
konketa-altzaria=

**GUZTIA
1.416€**

ALKAIN TODO&MAT-Amutalde 21 - 20280 HONDARRIBIA- 943 64 52 54 - www.alkain.com

BAINUGELAK

Etxean *spa* bat sortzeko ideia batzuk

Bainugelek gero eta garrantzia handiagoa dute etxeetan. Eta ez da harritzekoa. Izan ere, eguneroko errutinatik ihes egiteko aukera paregabea eskaintzen digute bainugela modernoek. Atsedena hartu eta erlaxatzeko leku paregabea da bainugela.

Ezaugarri bereziak dituzten komunak, apar artean bainu lasaigarria hartzeko aukera eskaintzen duten bainera zabalak, apaingarriak, lore lehorrak, garbitzeko errazak diren estaldurak...



- Erritmo bizian bizi gara. Goizean goizetik harat eta honat gabiltza, atsedena hartzeko tarterik gabe. Horregatik, ongi datorkigu etxean atsedena hartzeko leku egoki bat izatea. Eta maiz oharkabea pasatzen baizaigu ere, detaile txiki batzuk izugarri lagunduko digute horretan. Lurrindun kandelak, konparaziora, aukera ona dira.
- Bainugeletan minimalismoak indar handia du. Tono neutroak, edota egur naturalaren eta lakatuen arteko konbinazioak arraz egokiak dira. Harri itxurako estaldurak ere aukera paregabea dira.
- Lekuari ahalik eta etekin handiena atera behar zaio. Hori dela-eta, tiradera edo kaxoi higigarriak altzariak indar handia hartu dute, aisa gauza gehiago sartzen delako.
- Bakterien kontrako material berriak egokiak dira bainugeletan. Garbitzen errazak dira, eta kolore sorta zabala eskaintzen dute.
- Lur kolorean lakatutako altzariak moda-modan daude. Urdin turkesa kolorea eta kolore leunak ongi onartzen dituzte altzari horiek. Azken ukitu bat emateko, diseinuzko txorrotak eta komun erdian jartzen diren bainu ontzi klasikoak aukera ona dira.



Gas, gasolio eta biomasa galdaren zerbitzu teknikoa
Marka guztiak

S.A.T. OFIZIALA:
Luzuriel GORRITI

MG
mantenimientos
GORRITI

Martxan jartzea
Mantentze-kontratuak
Konponketak | Ordezko piezak

M. 620 97 82 97
Santiago, 93 · ELIZONDO

Santiago, 93 ELIZONDO
T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com

H. LOPEZ

Erosketen finantzaketa

Ereforma integralak eta gremioen koordinazioa

Air gintak
Gas, gasolio eta biomasa galdara eta berogailuak
Zerbitzu eta bainugelako altzarien salmenta
Tamiak
Ligatutako salmenta

DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA

Ariztela

DECORAZIO
TAILEREA

- KORTAK: Estreñak, kurtinak, jantzi pajarretak... eta muga guztietako kurtinak eta jantziak.
- Telak, jantziak, minkak, minkak... eta kurtinak egiten dituzte guztiek.
- Ohe eta etxeak jantziak, minkak, minkak, kurtinak, jantziak eta jantziak, minkak eta jantziak.
- Kutsuak jantziak, minkak, jantziak, minkak, jantziak, minkak, jantziak, minkak, jantziak, minkak...
- Jantziak, minkak, jantziak, minkak, jantziak, minkak, jantziak, minkak, jantziak, minkak...

Carla de Ariztela, Sotelo 3 LITZEA (Santiago)
T. 948 91 05 11 / 948 77 00 02




SUKALDEAK

Espazioa, ergonomia eta funtzionalitatea hartu behar dira kontuan

Modu egokian antolatuta badago, eroso eginen duzu lan eta atzera-aurrerak muurriztuko dituzu.

Sukaldearen plangintza egiterakoan, lehentasuna hiru premisek edukiko dute: erosotasunak, zirkulazioak eta ergonomiak. Horiek denak estetikari gailenduko zaizkio, nahiz eta, logikoki, kontrajarriak egon ez. Neurtu ongi duzun espazioa eta eskatu profesionalari sukaldearen antolaketa zure beharretara hobekien egokitzen den sistemaz aholkatzeko: sukaldea isletarekin, penintsularekin, bloketan, "C" edo "U" itxurarekin eta, baita, lineala ere. Hortik aurrera, zure sukaldea proiektatzen has zintezke.

Kontuan hartu behar duzu espazioa ongi antolatzeak oinarritzko hiru arauak aplikatzeko aukera emanen dizula. Horretarako, biltegi-ratze-zona (despentsa, hozkailua...), uren zona (harraska, ontzi-garbigailua) eta suaren zona eremu bakar batean lotu behar dituzu. Zure sukaldea ttikia eta estua bada, antolaketa egokiena lerro zuzenean izanen da.



DONEZTEBE | Tel. 630 779 636
puntosantesteban@gmail.com


ITURGINTZA

Txorrota termostatikoak

Uraren temperatura gure beharretara egokitzea arras garrantzitsua da dutxa edo bainu lasai bat hartzeko

Garai bateko txorrorekin, ur hotsari eta beroari neurria hartu beharra zaio gustuko tenperatura lortu arte; txorrotaren barneko gailu batek nahasten ditu bi emariak, hotza eta beroa.

Txorrota termostatikoekin, al-diz, aski da mugimendu bakarra egitea, aukera ematen baitute urari guk nahi dugun tenperatura jartzeko (graduak zehazteko gailu bat ekarri ohi dute). Sistema horri esker, azkarrago eta erosoago ibiliko gara, eta norbaitek etxeko beste txorrotaren bat irekitzen badu ere, uraren temperatura ez da aldatuko; txorrota itxi eta xaboia eman ondotik ere, lehengo temperatura berbera ekarriko du urak. Beraz, aitzakiarik ez dago ur guttiago gastatzeko, eta ingurumenaren alde bero-bero segitzeko.





EZPELURA ITURGINTZA S.L.

Berokuntza - Gasa
Elektrizitatea - Eguzki plaka
Zoru bero emalea

T. 606 337 427 • OITZ (Nafarroa)

GOIENBURU
ITURGINTZA

Iturgintza, berokuntza eta gasa
eguzki plaka eta biomasa

T. 800 902 723
Goienburu, 10 • 31790 ARANTZA

T. 649 853 440
LEITZA

TXARAGORRI
iturgintza



CLIMALIT kristal bikoltza
ISPILUAK edozein lodiera eta
kolorekoak, alkadunak, kanteatuak...
BEIRA-PLAKA LANDUAK
BEIRA-BLINDATUAK

Aibistur, 39 K • LESAKA • 687 424 649



Javier Manterola
Tekniko instalatzailea

**ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA**

☎ 629 449602
Iturlandeta 4, behea • BERA



TXARUTA, S.L.

Iturgintza
berokuntza
gasa

948 45 17 28 • 659 77 00 15
GAZTELU



**JUANTXO
SAN MIGEL**

**Iturgintza • Berokuntza
Gas instalazioa**

Tel. 948 450 866 Mug. 626 112 415
31740 DONEZTERE



Arantza & Irujo, S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALACIONES ELECTRICAS

EGUZKI PLAKAK
ETXEA • ARGALAMINGARRIAK
INDUSTRIA • ESTUDIOA
ARGITERIA PUBLICOA • LED-ak

cca orain 10KW-tik gora
ENERGIAKO KOMERTZIALIZADOREAK

Zaleen 110 • 42-4 patibola • BERA
T: 939 125 048 • 639 008 034 • 948 031 452



**GONZALO FERNANDEZ
LAMANA y A.T. S. CV.**
Ingenieros Técnicos Industriales

- Bulego teknikoa
- Proiektuak, obra zuzendaritza, etab.
- Instalazio elektrikoak
- Etxeko eta industriako elektrizitatea
- Enpresen mantenimendua, etab.

**DANIEL FERNANDEZ
TELLETXEA**

- Beimenitutako instalatzailea
- Instalazio fotovoltaikoak
- Eguzki-energiako plaka

Elizate, 3 • 31700-Elizate • 948 455 760 • DONEZTERE



**apezetxea
topografia**

lur-neurketak

948 71 114
31754 GOGORTEA • Nafarroa
Tel. 900 20 16 22
993 62 24 30
www.apezetxea.com
topografia@apezetxea.com

obren kontrola

ENERGIA-GASTUA MURRIZTEKO AHOLKUAK

Watt guttiago eta kontzientzia gehiago

Lehenik eta behin, bada arau nagusi bat bista-bistakoa dena: **energia aurrezteko modurik (eko)logikoa, energiari ez kontsumitzea da, edo, gutenez, zentzu pixka batekin egitea**. Ez da arraroa izaten, konparaziora, logela batean inor egon ez, eta argiak piztuta edukitzea, edo neguan kamisetarekin eta udan jertsearekin ibiltzea, berogailua eta aire giro-tua neurritz kanpo erabiltzen direlako.

Etxetresna elektrikoek kontsumitzen dute energiari gehien: argindarretan gastatzen denaren %65 zenbaitetan. Baina guztiek ez dute berdin kontsumitzen. Berogailuak alde batera utzita, **hozkailu eta izezkailuek** argindar guztiaren % 19 kontsumitzen dute. Hori dela eta, garrantzitsua da neurri ego-kia duen bat erostea, eta energia-eraginkortasun gehien daukanetakoa: A motakoa edo hortik gorakoa (A+, A++...).



Etxetresnarik eraginkorrenak garestiagoak dira, baina lau urteren buruan amortizatzen da hasierako inbertsioa. Tresna horiek hamar urteko bizia izaten dute, batez beste, eta denbora horretan, etxetresna ez-eraginkor batekin alderatuta, argindar kontsumo guztiaren % 74,7 aurrezteko lortzen da tresna eraginkorrekin.

Energia-kontsumoa guttitzeko, adibidez, hozkailu



**INSTALACIONES
ARKALE c.b.**

**Gas instalazioak
Iturgintza orokorrean
Berokuntza eta aire egokituak
Mantenu lanak
Zintzilikatuta egiten diren lanak**

T: 948 450 172 • 910 800 177
Amara, 10 • DONEZTERE



Ekindarra
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
komunitateko energia berriztagarria eta berreskuragarria

- Berokuntza sistema berriak
%50ko aurrezpena
- Eguzki energia eta biomasa

XABIER ZELAIETA
www.ekindarra.com
ekindarra@ekindarra.com
T. 652 063 220 • BERA

baten kontsumoa, neurri egokia da tresna hori leku fresko eta ongi haizeztatu batean jartzea, atzeko aldea garbi edukitzea edo izotz-kapa hiru milimetrokoa egin aurretik des-izoztea. Ahalik eta guttietan irekitzea eta ateetako gomak aldatzea ere bai, ongi ixten ez badira; jaki beroak ez sartzea; elikagaiak hozkailuan desizoztea, haien hotzari eteki-na ateratzeko; eta hozkailua 3-5º gradu artean edukitzea eta izozkailua -18º eta -15º ar-tean. Horiek dira funtsezko aholkuak, hozkailu batek energia gutiago kontsumitzeko.

ENERGIA-ZURRUPATZAILEAK

Telebista: Telebista berri hauek banpiro energetiko aseezinak dira: *stand by* egoeran edo pausaldian daudela, energia xurgatzen dute eguneko 24 orduetan, nahiz eta inor ez egon hari begira, eta pausaldi-ko kontsumoa gastu guztiaaren %15ekoa izan liteke. Horregatik, gainerako tresna elektrikoekin gertatzen den bezala, eraginkorrenak hautatu, *stand by* egoera saihestu eta itzali erabiltzen ez direnean.

Ordenagailua: Ordenagailuak ere modu ekologikoagoan erabiltzen saiatu behar da: pantaila itzali behar da 20 minutu baino gehiago eginen baditugu erabi-li gabe, eta ordenagailu osoa itzali baldin eta 2 orduz edo gehiagor ez badugu erabiliko. Teknologia berriak lagungarri izan dira argindar gutiago gastatzeko; kontagailu adimen-dunek, adibidez, denbora errealean zenbat argindar kontsumitzen den erakusten dute.



Telebistak *stand by* edo pausaldian daudenean ere energia xurgatzen ari dira.



Stand by edo pausaldian dauden etxe-tresnak itzaltzen ahal dira gisa honeta-ko entxufe edo lokia batekin.

Garbigailua: Erabiltzen duten argindarraren %80-90, ura berotzeko izaten da. Garbigailurik eraginkorrenak erabiltzeaz gain, ur hotzarekin dabilen programak hautatu behar dira, horiek izaten dira-eta, gainera, egokienak lixiba mota gehienentzat. Garrantzitsua da garbigai-lua ahalik eta gehien betetzea edo, gutienez, karga-erdiko programak erabiltzea, zentrifu-gatu eta arropak eguzkitan lehortzea, lehorgailuak saihesteko, eta horrez gain, urari kal-tzioa kentzekoak erabiltzea ere komeni da, eta iragazkia garbi edukitzea. Lehorgailua edukiz gero, hori ere eraginkorren sailekoa izatea komeni da, eta ezinbesteko denean erabiltzea, ahal bezainbat betetzea.

Ontzi-garbigailua: Argindar-gastuaren % 2 egi-ten du, baina platerak eskuz ur beroarekin garbitzea baino merkeagoa da, baldin eta gar-bigailuentzat eman ditugun aholku berei jarraitzen badiugu.

Sukaldea: Elikagaiak prestatzeko ere, energia dezente behar izaten da (% 11); etxe batzu-etan argindarra erabiltzen dute, eta gas naturala bertzetan. Kontsumoa guttitzeko, sua bera baino hondo handiagoa duten ontziak erabil daitezke, eltzei tapa jarri, A motako labeak erabili eta behar denean baino ez ireki horien atea, espres ontzietan prestatu ja-kiak; plaka elektrikoak dituenak, irakiten hasi baino lehentxeago itzal dezake sua, eta ga-sa duenak, berriz, sua apaldu behar du ura irakiten hasten denean.

Exetresna elektriko txikiak: Beroa ematen duten tresna elektriko txikiak (lisaburdina, txigorgailua edo ile-lehorgailua) energia dezente behar izaten dute. Tresna horiek aha-lik eta gutxien erabiltzea komeni da. Latak irekitzekoak, zukugailuak edo telefonoak, adi-bidez, badira argindarrak gabe dabilzanak ere. Hala ere, tresna horietako batzuk aski egokiak izan daitezke. Mikrouhin-labe batek, adibidez, ohiko labe batek baino denbora guttiago behar izaten du, eta energia ere, % 60-70 inguru aurrezten du. Eta bizarra egi-teko makina elektrikoak egokiagoak dira erabili eta botatzekoak baino, ur berorik ez de-lako behar izaten eta hondakinak ere guttiago sortzen direlako.

Hotz komertziala eta industrialia

Aire girotua

INDARRI

T. 948 630 898
M. 639 103 305 BERA

INAKI OLAIZOLA
elektrozitate

- Elektzitateko oerkorra
- Muntaiak elektrikoak
- Alarrik

Bituria, 39 • LESAKA
948 637 405 - 678 417 499

elictxe
sumistros electricos

material elektrikoaren salmenta

T: 948 501 391 • Fax: 948 482 397
Garaio: 83 • Industrialen • ELIZONDOKO

Lizardi
Telekomunikazioak

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (kableak, kurrezioak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Puntuo automatikoak
- Etxeko hari mugikorrak
- Satelite bidezko internet

Tel. 670 415 720 - joxeanlizardi@hotmail.com

Philippe GAMOY
Geologikoa
Geoteknikoa
Hidrogeologikoa
Ingurumenakoa
Geologia
620.796.005
Zimentarwak • Lur azpiko urak
Erpoiden egoikortasuna • Zaborbetejalai
Xalbador Kalea, 28 • 31700 ELIZONDO (BAZTAN)

ke kinttako
Mandauli promozioak

T. 948 514 036
M. 653 709 495-96
31754 Goizueta (Nafarroa)



larreta
IGELTSU PROIEKTATUA
SINILLA - BEPA
Telefonoa: 627.225.514
637.921.299
larretaigeltsua@gmail.com



**IKERKETA GEOTEKNIKO
ETA HIDROGEOLOGIKOAK**

ecologista errealizazioak alimendatzen
ecologista errealizazioak alimendatzen

www.geea.es

696 435 907 • 606 507 335

616 513 491
P
Inte
ESKABAZIOAK



**GARRAIOAK
 ESKABAZIOAK
 KONTENEDOREEN
 ZERBITZUAK**

Kontenedoreak: 5 m³ - 7 m³ - 12 m³ - 30 m³
 Mota guztietako hondakinak biltzen dira

Tel/Fax. 948 45 13 89
 Ezpilura, 1 - 21740 Doneztebe (Nafarroa)

**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
JAURENA**

Julio Caro Baroja, 6 beheak
31780 BERA • Nafarroa
Tel/Faxa: 948 631 217

cenor



HARBIZTI

Bidasoan Bizi **SUNBILLA**

PISUAK • GANBARAK
GARAJEAK • LOKALAK

Informazioa eta salmenta
607 946 785 • 948 109 818

BELURRA
Promociones y Construcciones, SL

www.vivirenbidasoan.com



© 2007 Promociones
BELURRA


-TELLETXEA-
Lorazaintza
Patinajimus
Lorategiak Dissimulatu eta Sortza
Ureztatuz Sistema Automatizatuak
Kimaketak
Mantentuz Lanak



John Telletxea
Nekazaritzako Ingeniari Teknikos
Oskanpe Industrialdun, 18. industria-nakua
31770 LESAKA (Nafarroa)
T. 619 418 681 - P. 948 637 049
john.telletxea@hotmail.com
www.telletxeamozaintza.com

ANZABAL

INMOBILIARIA



- **Enfrente Anzabalbank**
Área de inversión, seguros y otros servicios
- **Las afueras de la ciudad**
Nuestro área Anzabal Surcos
- **Arquitectura y diseño**
Granada Dekoarena, RZA
- **Comercio**
Banco, Super, plus, etc.; servicios y otros
- **Correos**

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/F. 846 540 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

www.laborra.com

LABORRA • LARUMBE
arkitektoak


T. 948 580 122
Santiago, 54 - 1 • ELIZONDO



Dekorazioa: estetikoa eta funtzionala

Krisi garaian murgilduta gaudenez, aurtengo joeretan garrantzi handia hartuko du birziklatzea oinarri duen dekorazio estiloak

Dekorazioak bi ezaugarri izan behar ditu: estetiko eta funtzionala izatea. Aukera zabala dagoen arren, adituek esan digutenez, arriskatzeko ohitura gutxi dago. Hori dela-eta, aurtengo joeretan bi koloreko konbinazioak ikusiko dira orokorrean. Kolore biziak gehigarrietarako geratuko dira; sofaren kuxinetarako, adibidez.



KRISI GARAIRAKO

Krisi garaian gaudenez, inoiz baino garrantzi handiagoa hartuko du birziklatzeak. Objektu zaharrekin egindako apaingarriak, erabiltzen ez dugun baxerarekin prestatutako lorontziak... Aukera zabala dago, beti ere irudimenari buelta batzuk emanez gero. Bestalde, izaera futurista ere eman diezaiokegu dekorazioari, etxe moderno nahi izanez gero. Estiloen nahasketa da beste aukera bat: portugaldarra, frantziarra... Harria eta zura erabiliz, bertalde, naturarekin lotutako dekorazioa erdietsiko dugu.

Zer dira instalazio geotermikoak?

Energia geotermikoa luraren barnean dagoen beroa da

Zapaltzen dugun luraren azpian tenperaturak gora egiten du sakonerarekin batera eta bero hau aprobetxatuz lortzen da energia geotermikoa. Tenperaturaren arabera sailkatzen da:

- Tenperatura altukoa (150-400°C) – Erabilera: Ohiko planta elektrikoak.
- Tenperatura ertaina (70-150°C) – Erabilera: Ziklo bitarra duten planta elektrikoak
- Tenperatura baxua (50-70°C) – Ur termaletatik, sumendi eremuetatik eta sakoneko biltegi sedimentarioetatik lortzen da. Erabilpena: Bainuetxeak, Akuikultura, Barrutieta-ko beroa.
- Tenperatura oso baxua (20-50°C) – Lurpetik ateratzen da (urarekin edo urik gabe) eta lur-azpiko uretatik. Erabilpena: Klimatizazioa.

Geotermia sistemak luraren dauden energia berriztagarriak baliatzeko modu errentagarri eta eraginkorrak dira. Gaur egun eskura dugun teknologiarik esker, energia berriztagarri hau erraz lortu eta aprobetxatu daikete beroa ekoizteko. Energia geotermikoaren abantaila nagusiak honako hauek dira:

- Beroa sortzean, ohiko sistemekin alderatuz, instalazio geotermiko batek %70erainoko aurrezpen ekonomikoa ekarriko du.
- Instalazio sendo eta errazak dira. Zirkuito itxian funtzionatzen dute eta ez dute mantenu premiarik.
- Energia berriztagarria denez, Administrazio Publikoaren laguntza programa desberdinetako diru-laguntzetara lotuta dago.



arteka
arkitektura - arquitectura

Juan Mari Aleman - Patxi Valer

Estruktura berriak
zaharberritzeak
nabesakilehorak...

Tel: 948 300 610 Fax: 948 452 434
info@artekabaztan.com

Plaza Dr. Naber 1-1 A
31780 Elizondo (Nafarroa)

www.artekabaztan.com

ba
BIDASOA ARQUITECTURA BUIÑOSA

Anteio 27 L 31770 Lesaka

T 948 637 503 M 661 847 107

E estudio@arkpidasoa.com

Oiartzabal
arkitektoak

Ipar karraka, 15
31780 BERA

T. 948 630 304 • 627 955 349

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
LUR NEURKETAK
REPLANTEOAK
PREZIO OSO INTERESGARRIAK

ESTUDIO DE ARQUITECTURA

SANTIAGO DE BILBAO, ELIZONDO TEL 948 311811
www.ortizabak.com elizondo@ortizabak.com

OBRA ZUZENDARITZAK
NABEAK
KONSULTAK
KUBIKAZIOAK
SEGURTASUN LANAK

EZKAIN eraikuntzak S.L.

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956

GAZMENDI
ERAIKUNTZAK

DONIBANE KARRIKA
GURE BORDA • SUNBILLA
T. 948 450 130 • 948 451 666
M. 619 469 784

**ETXE BIZITZA
LIBREAK**

ELIZONDOko
Baztanberri Plazan

3 logela | 2 bainugela
garajea | trastelekua | igogailua

160.000 €
%4 BEZ bame

Mailegu kualifikatuak eta
irabazien araberako dirulaguntzak

J B Iturria
CONSTRUCCIONES

T. 948 580 304 | www.jbiturria.com
Mendinueta 6, behea ELIZONDO

DIRU-LAGUNTZAK

Etxeak zaharberritzeko diru-laguntzen baldintzak 'gogortu' dituzte orain

2011ko urriaren 7an argitaratu den Foru Dekretutik ondorioztatzen denez, etxebizitzak zaharberritzeko Nafarroako Gobernutik ematen dituzten diru-laguntzetara biltzeko betebeharrak 'gogortu' egin dituzte orain arte zeuden baldintzekin alderatuz gero. Oraingoz, honako betebeharrak hauek konplitu beharko ditu eskaera egin nahi duenak:

- Ohiko etxebizitza izan behar du, norbera bizi den etxea, alegia.
- Etxebizitzak **15 urte baino gehiago** behar ditu izan (orain arte 12 urte zen).
- **Guttieneko aurrekontua 4.000 eurokoa** BEZ gabe. (Orain arte 3.000 eurokoa zen).
- Obra hasi gabe egon behar da, guttienez 2 hilabete lehenago.

Orohar, diru-laguntzen portzentajeak jautsi egin dira, 65 urte baino gehiagokoen kasuan izan ezik.

DIRU-LAGUNTZAK DITUZTEN OBRAK

- Leihoak eta kontraleihoak aldatzeko
- Galdarak aldatzeko
- Berogailua jartzeko edo aldatzeko
- Instalazioen berrikuntzak (elektrizitatea, iturgintza,...)
- Fatxadak berritzeko
- Hodiak eta txorrotak aldatzeko
- Teilatua berritzeko
- Lehendik dagoen eraikin batean etxebizitza berri bat egiteko
- Bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten etxe-barneko obrak
- Elbarriendako egokitzapenak
- Igogailuen instalazioa

Kontuan hartzekoa da ere, Nasursak Donezteben duen bulegoaren bitartez (948456103) edo Leitzaldeko herritarrentzat Leitzako Udaletxean (948510009) galdetuz, espedienteak tramitatu eta diru-laguntzak lortzeaz gain, abantaila duen mailegua eskatzeko aukera ematen dela eta, horrek, errentaren aitortpenean desgratzeko balio duela.

2010: ETXEBIZITZEN BARNE ERREFORMAK (Prozedura laburtua)				
Herria	Espediente kop.	Etxebizitza kop.	Aurrekontua	Diru-laguntza
ARANTZA	1	1	15.000	3.000
BAZTAN	14	14	15.000	3.000
BEINTZA-LABAIEN	1	1	84.704	29.385
BERA	6	6	77.298	14.660
BERTIZARANA	7	7	108.867	20.400
DONAMARIA	2	2	21.000	4.200
DONEZTEBE	5	5	50.000	8.800
ERATSUN	1	1	8.000	1.600
ETXALAR	1	1	19.000	3.000
GOIZUETA	1	1	7.194	1.439
IGANTZI	1	1	6.000	1.200
LEITZA	1	1	6.831	1.366
LESAKA	3	3	53.938	8.200
SUNBILLA	1	1	10.000	2.000
URROZ	2	2	42.541	6.000
Denetara	47	47	614.915	112.451

Etxe barneko obrendako laguntzak aparte tramitatzen dira. Sistema sinple edo laburragoa da. Koadroan ageri dira 2010ean tramitatutako laguntzak udalerrri bakoitzeko.

2010: ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZE ESPEDIENTEAK

Herria	Espediente kop.	Etxebizitza kop.	Aurrekontua	Diru-laguntza
ARANO	1	1	16.965	6.786
ARANTZA	12	12	352.716	123.627
ARESO	2	2	37.493	11.982
BAZTAN	79	119	2.852.958	772.037
BEINTZA-LABAIEN	4	4	84.704	29.385
BERA	23	24	617.554	111.482
BERTIZARANA	12	13	426.108	95.441
DONAMARIA	3	3	86.354	22.737
DONEZTEBE	18	53	352.836	110.581
ELGORRIAGA	3	3	37.644	15.377
ERATSUN	1	2	10.679	4.272
ETXALAR	5	5	82.645	22.888
EZKURRA	3	3	197.127	50.267
GOIZUETA	22	38	790.643	209.734
IGANTZI	13	14	377.051	110.496
ITUREN	6	6	85.514	31.016
LEITZA	43	179	3.474.230	1.335.320
LESAKA	19	34	427.179	123.020
OIZ	0	0	0	0
SALDIAS	2	2	47.041	12.529
SUNBILLA	11	11	267.460	84.113
URDAZUBI	4	4	278.089	63.535
URROZ	0	0	0	0
ZUBIETA	4	4	130.448	49.445
ZUGARRAMURDI	2	2	37.010	13.375
Denetara	292	538	11.070.450	3.409.445

Koadro honetan ageri diren datuen arabera, 2010ean kasik 3,5 milioi euro eskuratu ziren gure herrietan etxeak zaharberritu edo hobetzeko diru-laguntzetan. Horietako batzuk igogailuak jartzeko baliatu zituzten.

BIZIGARRITASUN-ZEDULAK

2010ean Nasursak Donezteben duen bulegoaren bitartez 24 zedula eman ziren (2009an 16 ziren). Datu hori Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdiko udalerriek dagokio. Derrigorrezkoa den agiri horren bitartez ziurtatzen da etxebizitza batek betetzen dituela Nafarroako Gobernuak eskatzen dituen gutieneko bizigarritasun baldintzak.

Azkenik, etxeak zaharberritu eta horretarako dauden diru-laguntzen inguruan zailtzak argitzeko 591 kontsulta atenditu zituzten 2010ean Nasursak Donezteben duen bulegoan.

BC BALLARINA CONSTRUCCIONES, S.L.

ETXEBIZITZEN ERAMUNTZA ETA ERREFORMAK
HIDRAUNTZA, ELEKTROUNTZA, KALIFAKAZIOA, AIRE-ERREKUTUA



Santiago, 60 behea • ELIZONDO
ballarina@telefonos.es | Tel./Faxa: 948 452 355
Mug. 047 888 988 • 047 888 982

CABAR OBRAS Y CONSTRUCCIONES

300 m2-ko parzela industrialak urbanizatuak Ordokan 50.000€-tan

Laister etxe libre eta VPO Elizondon parzela unifamiliarrak, bifamiliarrak VPO etxebizitzetara baliatuak BERAN

Era guztietako igeltzeritza lanak, eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

Hurrengo proiektuak Elizondoan sartzen:



Apartamentua 85.000€-tik

ZIOZ

DEKO

ERREFORMAK OROKORREAN
DEKORAZIO PROIEKTUAK

Gremioen koordinatzailea
Fatxadak eta barnealdeak

629 68 71 71
T. 948 63 72 65
dekoian@hotmail.es
Plaza zaharra, 27 LESAKA (Nafarroa)

**ESKATU AURREKONTUA DOHAINIK
ETA KONPARATU GURE PREZIOAK**

IGELTIU PROIEKTATUA

LOIZATE

J. M. Mixelena 689 908 665

Zafain ind. 42B-3 • BERA



aurrera kada

lan bertikalak
(ondomiorik gabe)



Margo-lanak
Fotokopioak
Klaseen erabilera

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

contacto@aurrerakada.com
www.aurrerakada.com

616 413 660

Donibane kalea, 18 Sunbilla 31791 Nafarroa

ALMACO BAZTAN GRUP GATTIA



Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857

A R I Z K U N



B A Z T A N

AUKERA PAREGABEA!

Urbanizatuak partzelen salmenta
prezio ezin hobean

Lur eremua, etxearekin edo gabe

D O N E Z T E B E

4 APARTAMENTU LORATEGI PRIBATUAREKIN



Zure etxea, zure bizitza



Financiak
Lindutx Baztan, S.L.

Plaza Baztan Berr. 6 - beheak
31700 Elizondo
Tel. 948 580 344
info@lindutx.com
www.lindutx.com



Hargibel Eraikuntzak, S.L.

SALMENTA PREZIOAK

Etxebizitza librearen prezioa merkeago da hilabetetik hilabetera

Nafarroako etxebizitzek 2007ko lehenbiziko hilabetetan hartu zuten preziorik altuena: batez beste, 2.951 euro metro kuadroko ordaindu ziren orduan. Kopuru horretatik abiatuta, 2008an hasi zen prezioen jautsiera eta, geroztik, krisi ekonomikoaren eztandaekin eta batez ere etxebizitzaren eta inbiliarien krisiarekin bat eginenez, jautsiera nabarmenagoa bihurtu da. Izan ere, 2007tik 2011ra doan epean prezioak %21,07 jautsi dira Nafarroan.

Denboran hurbilago etorrita, Espainiako Estatistika Institutuak jakitera eman duenez, etxebizitzaren prezioa %7,6 merkatu da Nafarroan 2011ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko epe beraren aldean.

Tasaciones y Consultoría enpresaren arabera, 2011ko urte hasieran Iruñea zen Nafarroan etxebizitzarik garestienak zituen hiria (2.961 euro/m²). Ondotik zegoen Barañain (2.704 euro/m²), Uhartea (2.568 euro/m²) eta Zizur Nagusia (2.537 euro/m²). Bertze murturrean daude Tafalla eta Erriberri/Olite (batez beste 1.947 euro/m²)


BIDASOALDEKO HERRIETAN

Etxebizitzaren merkatua kasik geldirik dago gure inguruan eta horrek gogor eragiten ari die sektore horretako enpresei. Dagoen mugimendu tikiaren nondik-norakoaz ideia bat egiteko, 2011ko lehen sei hilabetetan 22 etxebizitza saldu ziren Baztanen; Donezteben 4 (guztiak bigarren eskukoak); Lesakan 3 (denak bigarren eskukoak) eta Etxalarren bat. Bertze salmentaren bat edo bertze egin izanen da bertze herriren batean ere baina, bada inolako salmentarik egin ez den herririk.

Prezioek behera egiten ari dira gelditu gabe. Beti ere batez besteko prezioez ari garela ahaztu gabe, 2010eko azaroan metro kuadroak 2.524 euro balio zuen Nafarroan. Urte bat beranduago, 2.329 euro balio du.

ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA NAFARROAN

Datuak: www.fotocasa.es



DOZAGARAT
eraikuntzak
besta eraikuntza konpainia gabe

Itxialdi
31741 BERRA
948 631 100
667 382 450

analak, apezetxea eskabazioak

mini-retroak

hormak

matx 71-1A
31754 GOGORRI - Iruñea
Tel. 948 28 16 27
991 62 24 30
www.apozetxea.com
eskaerak@apozetxea.com

eskollerrak

BERATARRA
ERAIKUNTZAK

Lan mota guztiak
Gremioen koordinazioa

Jose Ignacio Maritorena Larralde
670 489 337 • DONEZTEBE • BERA

HERMANOS TELLETXEA
Adrián y Daniel

ERAIKUNTZA LANAK OROKORREAN
Zaharberritzaak: sukaldeak, komunak...
Alikatatzaak: terrazak, garaieak...

HER BERA (Nafarroa)
670 364 744
948 630 554
albertoteltxea@gmail.com

LABIAGA
eraikuntzak

IMANOL 608 117 634
XATUR 608 117 635

BERA | ELIZONDO

TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK



Pedadeko auzoa, 8 • 31790 Igantzi (Nafarroa)
608 20 21 26 - 616 90 18 10

ti-tauerreformak

fatxadak
komunak
sukaldeak
pisuak
zaharberritze lanak
pladurra
pintatze lanak
isolamenduak

ti-tau erreformak, s.l.u.
Baztan Barri plaza 6 beheko
Tel. 629 317 068 (Angel)
Fax 948 580 648
31700 Elizondo (Ná)
ti-tau@hotmail.com



ETXEGINTZA

Arkitektura bioklimatikoak etxebizitzaren etorkizuna markatuko du

Arkitektura bioklimatikoak, *green building*, eko-etxebizitzak... euren artean desberdintasun ttikiak eta antzekotasun handiak dituzten kontzeptuak dira. Adibidez, diseinuko soluzio zehatzak proposatzea, zenbait faktoretara egokituta, konparaziora, lurzatiaren kokapenera edo tokiko klimara. Gisa horretara, eraikinak ahalik eta energia gehien aurrezteko da helburua, erosotasun-maila handiagoak eskainiz. Irizpide bioklimatikoei jarraituz, energiaren kontsumoan %70era bitarteko aurrezpenak lor daitezke.

Teknologia berriak tradizionalekin konbinatuko dira helburu bakar batekin: ingurumenean ahalik eta eraginik ttikiena izatea, etxe horretan bizi direnen osasunean pentsatzen den bitartean

Zein dira etxebizitza bat bioklimatiko bihurtzen duten elementuak?

1. ERAIKUNTZA-PROIEKTUAREN DISEINUA

Etxebizitza bat hutsetik hastearren edo egina den bat egokitzearen artean, bigarrena aukeratzea gomendatzen da; gehiago aurrezten ahal delako. Gainerakoan, ingurumenean eragin ttikia sortzen duten materialak, naturalak, iturburua hurbil dutenak eta ahalik eta estandarizatuenak erabili behar dira.

2. ORIENTAZIOA

Etxearen leihoak eta abar, etxeak jasotzen duen eguzkiaren arabera dimentsionatu behar dira. Adibidez, hegoaldera dauden fatxadek neguan eguzkiaren ekarpenak jasotzeko aukera eta, udan, eguzkitik babesteko babesgailuak eskaini behar dituzte. Orientazio onenak okupazio handiena duten gelentzako uztea da oinarritzko araua, kasurako, egongelarentzat edo sukaldearentzat.

3. AIREZTAPENA

Eraikin bioklimatikoak bi fatxaden arteko aireztapen gurutzatua eduki behar du, idealiki aurkajarritara, etxea modu naturalean aireztatzeko eta klimatizatze aski izanenduen kanpoko aire-emaria lortzeko.

Lastozko paretak zurezko egitura baten barnean eraikitzen dira. Estima handia hartzen ari dira termikoki arras eraginkorrak eta merkeak direlako.



4. ISOLAMENDUA

Ezinbestekoa da alferrikako hotz- eta bero-ihesak ekiditeko. Horretarako, etxebizitzek tratatutako paretez eta leihoez hornituta egon behar dute.

5. URA

Ugariak dira ura modu iraunkorrean kontsumitzeko jar daitezkeen neurriak: 6 litro baino gehiago ez duten eta deskarga ponderatuko komunak; euri-urak biltzea eta lorategiak ureztatzeko erabiltzea; ikuzgailu, ontzi-garbigailu, bainu-ontzi edo dutxako ur grisak komunean deskargatzeko berrerabiltzea.

6. BERRIZTAGARRIEN ALDEKO AUKERA

Eguzki-energia termikoaz gain (nahitaezkoa ur bero sanitariorako), bertze zenbait energia berriztagarri ere aintzat har daitezke: eguzki-energia fotovoltaiakoa, geotermia, eolikoa eta eraikinari aplika dakioken biomasa. Azken helburua ahalik eta energia-autoaskitasun mailarik handiena lortzea da.

7. ARGIZTAPEN NATURALA

Etxearen banaketarekin argi naturalaren sarrera ahalik eta gehien aprobetxatu behar da argi elektrikoen erabilera murrizteko. Saiatu etxeko gelak kanpora eman dezaten.

8. AURREINSTALAZIO DOMOTIKOA

Teknologia berriak oso baliagarriak izan daitezke. Domotika etxebizitzari aplikatuta aliatu bikaina izan daiteke energia aurrezteko.

reformas
LASTER
berrikuntzak

SUKALDEAK • BAINUGELAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRA TTIKIAK ETA INTEGRALAK

Pedro Echeburu, 14
31780 Barre, Nafarroa
T: 949 622 397 • M: 947 737 183
www.pedroetcheburu.com

 **BAZTAN**
Ferreteria

Pintura | Aroztegiko gauzak
Kristalak | Tresneria | Opariak

Santiago, 79 • Industrialdea • ELIZONDO
T: 948 580 423

LEIZA ANAIK
ERAIKUNTZAK



Lizarraga, 17 • LEITZA
689 231 961
660 334 102



BigMat
MENDITXURI
DOÑESTERRA • Leizakur-erregi • 949 400 308





zeraamika
5,95m aurrera

Laura Apezteguia Gonzalez

ARKITEKTOA

T. (+34) 626 261 990 | T. 0044 7554 44 74 55

FERRETERIA **APEZTEGUIA**

T. 948 450 994 F. 948 450 882

www.apezteguiaberria.com

info@apezteguiaberria.com

PINTURAK: Titan, Titanlux, Bondex, ...



BONDÉX

- Makina tintometrika
- Koloreak aukeratzeko

| MATERIAL ELEKTRIKOA |

| ETXEKO TRESNERIA |

| ITURGINTZA |

| ERREMINTA - Elektrikoa |

| LOREZAINNTZA eta haziak |

...

KOLOREAK

Kolore egokia gela bakoitzerako

Bakoitzak gogoko dituen koloreak zein diren alde batera utzita, beti daude espazio bakoitzerako egokiak diren koloreak

Haurren eta gazteen gelan/estudioan sormena sustatzea izanen da helburu nagusia; beraz, kolore laranja, berdeak edo horiak aukeratu behar dira; tonalitate alaiak, beroak eta energetikoak, haien gama suabeenak hautatuz leundu daitezkeenak.

Patxada, egonkortasuna eta ongizatea dira atsedenerako gure aliaturik onenak; beraz, logeletarako, kolore zuriak eta urdinak primerakoak izanen dira, lasaitasuna eta patxada ematen baitute. Egongelan, bi efektuekin joka dezakegu eta, horrela, gogo-aldarte ezberdinak orekatzen lagunduko diguten kontraste egokiak aukeratu.


AUKERAREN GAKOAK

Etxean kolore egokiekin asmatzeko, hainbat alderdi baloratu behar dituzu: argiztapena erabakigarria da eta gama bat edo bestea aukeratzeko orduan kontuan hartu behar duzu; tonalitate alaiak, beroak eta energetikoak (horiak, laranja, gorriak) sormena sustatzen dute; eta kolore hotzek –urdiak, berdeak, moreak– patxada, egonkortasuna eta ongizatea eskaintzen dituzte. Konbinazio monokromatikoak apustu seguruak dira; aldiz, kontraste oinarritutako nahasketak arriskutsuagoak izanen dira, haustura-eta aldaketa-jarrerak bultzatzen baitituzte. Zuriak eta tonalitate argiek espazioari zabaltasun sentsazioa ematen diete; beraz, gela txikiatarako kolore egokiak dira.

KOLORE ERAGINKORRAK

Gelako argiztapen naturala indartzen eta argiztapen elektrikoaren piztueratzen dutenak dira. Zuria da kolore eraginkor nagusia, argiaren aurrean sentikortasun handia duena eta beti emozio eta sentsazio positiboak transmititzen dituena. Zuriarekin beti asmatuko da, purutasuna, garbitasuna, soiltasuna eta apaltasuna sinbolizatzen baititu. Beste kolore eraginkor batzuk, islatu dezaketen argi-kopuruaren eta, beraz, gelei ematen dien argitasunaren arabera, marfila, horia, arrosa, beixa, gris argia eta urre kolorea dira.





Iñaki Alzuyet margoak

Pintura dekoratiboa eta industrial
Dekorazioa: estukatzeak, beladurak
Fatxadak • Barnealdeak
Lakatu eta barnizatuak kabinan • Pladurra
Harria eta egurra arenadorekin garbitzen da

Tel.: 659 862 417
Itur-ttapi etxea - Landibar Auzoa • 31711 URDAZUBI
pinturasalzuyet@yahoo.es

Juan Luis
OTXOTEKO
Pintorea



Estetika eta teknika
konbinatuta gabe

Betirra 26 3.B • LESAKA • Nafarroa
T. 948 637 902 M. 678 993 818
otxotekopinturak@yahoo.es



Etxetresnak
Sukalde eta bainugelako altzariak

Miguelena



T. 948 450 925 | M. 677 525 292 - 677 525 324 | Ameztia zeharkarrika, 1 | 31740 DONEZTEBE




IRIBARREN
zurgindegia

Fabrikazioa
salmenta
instalazioa



Antsolokueta, 28
31760 ETXALAR
Tel./Faxa: 948 635 071



- EGURREZKO LEIHOAK, "CTE" BERRIA BETETZEKO MODURIK ERRAZENA
- **CE** ZERTIFIKAZIOAREKIN
- ISOLAMENDU TERMIKOAK
- NATURALA, GOXOA ETA SENDOA
- ENERGIA AURREZPENAK
- AIRE KAMERADUN KRISTALAK
- ISOLAMENDU AKUSTIKOAK
- EGURRA, ERAIKUNTZAKO MATERIAL NATURAL BAKARRA
- INGURUNEA: "CO₂" EMISIO GUTXIAGO, BIRZIKLAGARRIA ETA BIODEGRADAGARRIA

Gure leihoa, zure leihoa, denon leihoa, egurrezkoa!

SOLAIRUAK

Zuraren imitazioa nagusi etxe berrietan

Imitaziozko zolak berotasuna, elegantzia eta erosotasuna eskaintzen dizkio bezeroari



Tendentziak mantendu egingen dira. Batez ere, zuraren imitazioa izanen da salduko dena; solairurako zein etxea apaintzeko balio du, gainera. Batez ere, etxe berrietan nagusitzen ari da joera hau. Honelako zolek berotasuna, elegantzia, konforta edo erosotasunaz gainera, epe luzerako iraunkortasuna eskaintzen dute; mantenu egokia eskainiz gero, bizitza osoan ere iraun dezakete. Material sendoa izan arren, modu egokian garbitu behar da, eta, horrez gainera, elikatu ere egin behar da.

Zuraren imitazioaz aparte, badira bestelako joerak ere. Koloreari dagokionez, minimalismoak indarrean segituko du; zuriak eta beltzak usu ikusiko dira, beraz. Amaitzeko, azuleju dekoratuak ere aipatu behar dira. Estilo honetan malba eta arrosa koloreak nagusituko dira, gehienbat.

ARMAIRUAK

Norbere gustuko armairu pertsonalizatuak



Pareta-armairuetan inprimatu fotografikoak gero eta gehiago ikusten dira; norberak nahi duen argazkia eraman eta huraxe inprimatu daiteke armairuko ateetan.

Paretan sartutako armairuetan kanpotik ikusten den egitura bakarra atea denez, horiek inprimatu fotografikoekin apaintzeko joera zabaltzen ari da. Horrela, armairu pertsonalizatuak sortzen dira,

norbere gustukoak. Dendetan inprimatuak izan daitezkeen hainbat argazki edo irudiz osatutako bilduma izaten dute, baina nahi duenak bere gustuko argazkia eraman eta armairuko atean huraxe inprimatzea eska dezake.

CAPIRRENA
EZPELA
ZURGINDEGIA

BERA
678 350 412 (Eloy)
617 081 335 (Matias)

ITURRIONDO
ZURGINDEGIA

parketak - ateak - leihoak...
teillatuak - estrukturak - tarimak

607 890 923 - 607 890 966
948 631 430 - F. 948 625 330
Zalain ind, 7 BERA

IMANOL ITURRIA
ZURGINA

Enpresa eta partikular

T. 661 577 137
E-posta: imaiturria@hotmail.com

Udako martxoaren 15etik hasi da gela

M INDEGIA
ZURGINDEGIA

ATEAK - TARRIMAK
LEIHOAK - TEILLATUAK
PARKETAK
ESKALERAK
SUKALDEAK
ARMAIRUAK

T. 948 451 906 - M. 689 531 012 - AURTITZ
carpi.mindegia@yahoo.es - www.mindegia.com



JAURENA
Larrazatzena - Zurgindegia

Ordoki Industrialeko
ARIZKUN
Tfnoa: 948 453 451
619 514 048



FOKILA
zurgindegia

- Isurtuak, leihoak, ateak egiten dituzte.
- Oinetako lanak egiten dituzte.

Leandor Sosa
Mikel Arburua

Piedadeko gaina • IGANTZI
Tel.: 948 637 248

Gonzalez anaiak
arroztegi metalikoa

Hardina eta aluminioa

F. Joakin Inarte, 5 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 337



Juanotena
zurgindegia

TEILATUAK • ZOLAK
KONTRALEIHOAK • ARMAIRU ENPOTRATUAK
ATEAK • ESKAILERAK • LEIHOAK

Zurgin lanak orokorrean

Arizkun - 48940 - 948 453 451



APITTU
ALUMINIO LANAK

- Aluminiozko Leihoak
- Kontraleihoak
- Ateak
- Portueko itxiturak eta barandak


T./F. 948 638 297 / M. 626 312 326
Oteango auzoa - 12. pabiloia / 31770 Lesaka



KORTA ANAIAK

ARROZTEGI METALIKOA
CARPINTERIA METALICA

Bidasoa kalea 76, 17. anea
31780 BERA (Nafarroa)
tel/fax: 948 631 651



MADERAS SANTESTEBAN

Mendi lanak
Prestak berriak
Ilargiak
Montaje obrak
Teinturako egiturak
Olagarritak
Autoklabe tratamendua

Arizkun - 48940 - 948 453 451
info@maderasantesteban.com



Sulela-Zaldain
instalazioak

J.P. AGERREBERE

| Karrozeria |
| Arroztegi Metalikoa |
| Erremolkeak |




Zaldubi ind. IRURITA
T. 948 580 538 | 630 184 847

IGOGAILUEN INSTALAZIOA

ARROZTEGI METALIKOA

TOLDOAK

Santiago, 71
31700 ELIZONDO | NAFARROA
T. 948 580 166 | F. 948 452 557
M. 619 424 999 | 649 699 820



JOISA

ARROZTEGI
MAKINA ERREMENTA
ERAKUNTZA MEKANIKOAK

Barrutak, biskoiak, ateak,
ferrak, forja artetikoa, ...

T./F. 948 638 150
M. 646 774 117

Oteango ind. • 31770 LESAKA • telereposio@hotmail.com



GARAJEKO ATEAK

Aukera desberdinak etxearen arabera

Garajeko atea aukeratzerakoan, etxearen estiloak eta diseinuak erabat baldintzatzen dute erabakia, gehienetan etxearen estiloa segitzen duen atea aukeratzeko baita

Atearen materiala eta irekitzeko zein ixteko sistemak dira atea aukeratzerakoan kontuan eduki beharreko ezaugarriak. Ate automatikoetan erabiltzen diren material normalenak burdin galbanizatua, burdin forjatua, aluminioa eta egurra dira. Beira-zuntza ere erabiltzen da, baina ez du bertze materialek duten bezainbertzeko iraunkortasun, erresistentzia eta segurtasunik eskaintzen.

Atearen neurriak, funtzionaltasunak, itxurak, diseinuak eta irekitzeko zein ixteko sistemak baldintzatuko dute prezioa.

IREKITZE SISTEMAK

Funtsean, atea irekitzeko 4 sistema daude: xaflaka bat bertzearen ondoan biltzen diren (gorantz edo aldeetara) panelez osatutako ate bilgarriak, panel bakarraz osatutako goraka irekitzen diren atek, ate batienteak horizontalean 90 gradu irekitzen direnak eta ate irristailuak.

Panel desberdinez osatutako ate bilgarriak, sabairantz irekitzen direnez, espazio gutti hartzen dute eta arras egokiak dira sabai altua duten garaje txikietarako.

Pieza bakarreko ate irristailuak, garaje txikietarako ere egokiak dira, paretatik hurbil gelditzen direlako. Baina etxearen segurtasuna bermatzeko hobekien funtzionatzeko duten atek ate altxagarri automatikoak dira. Hainbatek modelo hau aukeratzeko du.



T.F. 948 59 22 43
M. 680 45 68 75
NARBARTE

TALLERES BERTIZARANA, S.L.

Barbakoatan espezialistak

aroztegi metalikoa

odriozola huici

Alkaiaga Industrialdea - Etxea, 3-18
31789 LESAKA - Nafarroa
Tel. 948631244 - 628363136 - Fax: 948625564
e-Posta: odriox@gmail.com

aroztegia 1890az geroztik

Arotxa

GARAJEKO ATE SEKZIONALAK

HORMANN - banatzaile ofiziala

Miguel Azcarraaga (Inurria)
T: 948 581 418 | 650 532 073
arotxa.taller@gmail.com

OLAZAR
aroztegia S.L.

aroztegi metalikoa
ixiera metalikoak
aluminio aroztegia
estruktura metalikoak
zerrailgintza
galdaragintza
ate baskulatzailak
ate automatikoak

Aparan Ind, 1
Tinoa - Faxe
948 458 183
Mugikorra:
649 139 365
DONEZTEBE

LEITZELARREA S.L.
Aroztegi eta Galdereria

Landa Belkora Industrialdea, 20
T. 948 510 598 M. 669 368 991
LEITZA



IREKI

L E I H O A K

- Aluminio R.P.T / PVC
- Itxiturak
- Kontraleihoak
- Barandak
- Berandak
- Pertsianak
- Toldoak

T-F: 948 630 962
M: 626 313 162

www.irekileihoak.com

Pol. Ind. Zalain, 8
BERA

irekileihoak@irekileihoak.com



TRANSTXAKAIN

TRANSTXAKAIN, s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

Aurreztu!



ERAIKUNTZA-HONDAKINEN KUDEATZAILEA (Nafarroako Gobernuaren baimena)

KONTENEDOREEN ALOKAIRUA 1m²-tik 8m²-ra

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

- Kamioia 15mko garabiarekin
- Kamioia 32mko garabiarekin
- Kaja baskulatzailerekin
- Zisternarekin: Putzu septikoak | Tuberietako ataskoak kentzea | Ura lekuz aldatzea

Otsango Ind. 14 • **LESAKA** • transtxakain@yahoo.es
T. 669 840 198 | 948 638 052 • F. 948 627 578

LOGELAK

Gordetzen diren oheak, tokia irabazteko

Armairu gainean, barnean, literetan, paretaren kontra plegatuta... ohe mota ugari daude umeen logeletarako.

Helburua: espazio libre gehiago irabaztea



Litera edo kabi-ohetan modelo ugari daude merkatuan: gero eta gehiago jokatzen da altzariekin, eta armairu gainean ere ohe bat jartzeko lekua egon daiteke. Bi eta hiru ohe ere jar daitezke horrelako ohedun altzariekin.

Armairu barnean sartzen diren oheak ere badaude salgai, eta paretaren ondoan plegatuta armairuak baino altura txikiagoan gelditzen diren oheak ere bai.

Kolore neutroak erabiltzen dira gehienbat, umeak hazten direnean ere altzariek hor segituko dutelako. Kolore biziekin konbinatzeko alfonbrak, paretak eta ohe estalkiak erabiltzen dira.

Paretei dagokionez, lila eta pistatxo kolorez pintatzea aukeratzen da hainbatetan. Papera eta pinturarekin jokatzeak ohitura ere bada: paretak bat paperarekin apaindu eta, gero, paper horretako koloreak erabiliz bertze paretak pintatzeko. Biniloak ere itsatsi daitezke, irudi koloretsuekin.

Gortinak ilunak, baina gardenak

Gortinetan haxe da aurtengo moda: kolore ilunak (grisa, beltza...) baina argitasuna pasatzen uzten dutenak. Horrez gainera, azken urteetako joerari jarraituz, jauskera zuzeneko gortinak dira salduenak, bolumenik gabekoak. Estore edo japoniar estiloko gortinek gero eta harrera hobea dute gazteengan. Adinean gora doazenek, ordea, gorputz handiko gortinen alde egiten dute oraindik.



TALLER DE CANTERIA
HARRI LAN, S.L.
harri zizelkariak

Ohartz auzoa z/g • 31795 • LEKAROZ
T. 948 452 143 • F. 948 452 452
info@harrilan.com • www.harrilan.com

ANTZULETA S.L.

Kantxurak, argazkiak, paretak, altzariek
letrak, arak, arak, paretak
barruak, kristalak, moldak
zakak, harrak, moldak

Tel. 948 631 317 • Faxa: 948 631 587
Irungo enep. • BERA
www.antzuleta.com • info@antzuleta.com

HARRIGORRI S.L.

ALTUERAKO eta bertikal-lanak
Barneko / Kanpoko pintura
Zurgin lanak

LAN BERTIKALAK
Faktoretako eta etxe barruko patioetako
konponketak, tellatuetako hodien garbiketa eta
instalazioa, dorreak, altuerako kimatzak,
sartide zailako lanak, kristalen garbiketa,
hegarri-kontrola...

ALTUERAKO LANAK
Tellaberritzeak, impermeabilizazioak, itxuren
konponketak, segurtasun sistemen instalazioak...

PINTURA
Barruko eta kanpoko lanak,
margo apainagarriak...

ZURGINTZA
Zolak, atak, leihoak, zut-lanak...

Hizua
Bata-bereiz, S.L. S.A.
Alfaro-LEIZOLAK
Nafarroa

Konponketak eta Lanak
692 17 61 92 (Toni)
692 17 62 70 (Oskar)

www.harrigorri.com



Ordoki Industrialdea | ARIZKUN
Tel. 948 453 259 | Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

Leihoetan merkatuko isolamendu termiko eta akustiko hoberena



Kontraleihoetan modelo ezberdinak lantzen ditugu



betikorekin lan egitearen abantailak:

- 2.200m²-ko instalazioak, Baztan-Bidasoako fabrikanterik haundiena
- Kalitate-Prezio hoberenak
- 15 urtetako esperientzia leihoen munduan
- Makinaria aurreratuenak

ETORRI GURE INSTALAZIOAK IKUSTERA!

EGURALDIA → AZAROKO LEHENBIZIKO ASTEBURUA

Azaro hasierako euriek uholdeak eta lur-eroriak eragin dituzte eskualdean

Errepideak ere moztu behar izan zituzten

TTIPI-TTAPA

Azaroko lehenbiziko asteburuan egindako euriek uholdeak, lur-eroriak eta bertzelako kalteak eragin zituen eskualdean. Eta hala, Oronoz-Mugairiko suhiltzaile profesionalek eta Bera, Lesaka, Goizueta eta Leitzako boluntarioek lana gogotik egin behar izan zuten.

LEITZALDEAN

Leitzan, Landabeikoa inguruan gainezka egin zuen Leitzararen errekek eta baratzeak hartu zituen. Sarrio lantegian ere ura sartu zen, baita bertze lokal eta sotoetan ere. Leitzarako sarbidea ere itxi egin behar izan zuten.

Goizueta, Leitz eta Hernanirekin lotzen duen NA-4150 errepidea ere itxi egin zuten, baita NA-4014 errepidea ere Areso parean, urak gainezka egin eta hainbat putzu sortu zituelako. Leitzan, azkenean, ez zuen inork bere etxetik atera behar izan, baina badaezpada Udalak Musunzar ostatuan gaua emateko aukera eman zien bizilagunei.

BAZTAN-BIDASOA IBAIA

Bidasoa ibaiak bere ibilbide osoan hartu zuen altuera kontuan hartuz, alerta gorrian izan zen.

Endarlatsan, erraterako, zazpi metroko altuera gainditu zuen. Elbete, Arraioz eta Elizondon uholdeak eragin zituen euriak, karrikak, garajeak, dendak eta sotoak hartu baitzituen urak. Ibaia Giltxaurdi zubiaren gainetik pasatu zen Elizondon eta Jaime Urrutia karrikan putzu handia egin zen. Belateko errepide zaharra ere itxi egin zen, baita N-121-A errepideetik Lesakarako sarbidea eta Etxalarko Benta eta Igantziko Benta arteko zatia ere. Gauza bera gertatu zen Oronoz eta Otsondo eta Orabidea lotzen dituen NA-4453 errepidearekin eta Etxalartik Lizarietarako NA-4400 errepidearekin.

URDAZURI ALDEA

Euri aunitzekin Urdazuri ibaiak gainezka egitean, Senpere ere kalteua izan ohi da baina aldi honetan, ohi baino kalte tikiagoa izan da, seguruenik Luberriako urtegiak ur aunitz atxiki zuelako.

LITRO METRO KOADROKO

Gorramendin metro koadroko 241,11 litro bildu ziren azaroko lehenbiziko asteburuan eta bezperako haizeak 197 kilometro orduko abiadurahartu zuen. Aran metroko koadroko 290,1 litro bildu ziren; Areson 212,5; Goizueta 190; Amaiurren 171,4 eta Lesakan 155 litro.

UTZITAKO ARGAZKIA
N-121A errepidea Bera parean.



ARGAZKIA: ONDIKOL
Elizondon Txokotoko presa ingurua.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE
Goizuetako errepidea.



ARGAZKIA: MAPI KANFLANKA
Leitza inguruak.



ARGAZKIA: ANA GOÑI
Aresoko herrigunea.



HEDABIDEAK

DIRULAGUNTZAK → 2012RAKO AURREKONTU PROPOSAMENA

Euskarazko hedabideak dirulaguntzarik gabe utzi nahi ditu Gobernuak 2012an

Bitartean, gaztelera zaintzeko saila sortuko du

TTIPI-TTAPA

Azken urteotako joeraren azken urratsa eman nahi du Nafarroako Gobernuak datorren urtean: Euskarazko hedabideentzako zituen dirulaguntza gero eta urriagoak eze-rezean geldituko dira datorren urtean, baldin eta 2012rako aurrekontu proposamenean jasota daudenak betetzen badira, Gobernuak ez baitu sosik ere aurreikusi euskarazko hedabideentzako.

Topaguneak eta Nafarroako euskarazko hedabideek salatu dutenez, «dirulaguntza hauek beti egon dira guttieneko mailatik oso behera, baina urteroko murrizketen azken kapitulua egin nahi dute Gobernuak ardura-dunek euskarazko hedabideek zuten babes urriegia guztiz desagertaraziz». Babes ekonomiko ezari, gainera, «errekonozimendu eza» gehitu behar zaiola adierazi dute: «Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideak ikusezin bihurtzen ditu, ez ditu berdintasunean tratatzen ez informazioari dagokionean eta ez publizitate euskarri moduan ere».

Bitartean, «gaztelera eta gaztelera euskarazko hedabideak babesteko neurriek bere horretan segitzen dute», Topaguneak eta Nafarroako euskarazko hedabideak azaldu dutenez. Nafarroan emiti-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Urte onenean 300.000 euro banatu zituen Gobernuak 11 hedabideren artean. 2012an 0 euro.

tzen duten hiru telebista pribatuen artean –Canal 4, Canal 6 eta Popular Television– hiru milioi euro banatu izan ditu urtero eta 2012rako aurrekontu proposamenean 2,45 milioi euro aurreikusita daude hiru telebista horientzat. Aldiz, euskarazko hedabideentzako 2012an 0 euro iragarri dituela gogoratu dute Topaguneak eta euskarazko hedabideek. Gobernuak Nafarroan publizitate insituzionalean gastatzen duen publizitate guztia gaztelera euskarazko hedabideentzako 2012an 0 euro iragarri dituela gogoratu dute Topaguneak eta euskarazko hedabideek. Gobernuak Nafarroan publizitate insituzionalean gastatzen duen publizitate guztia gaztelera euskarazko hedabideentzako 2012an 0 euro iragarri dituela gogoratu dute Topaguneak eta euskarazko hedabideek.

Hedabideez harata-go, Gobernuak hezkuntzan gaztelera zaintzeko saila sortzea ere «esan-guratsua» dela iritzia diote, «gobernu honek bere kudeaketa eremuan duten bi hizkuntza ofizialen aurrean duen ikuspegia eta jarrera ulertzeko».

Gobernuak 1986an onartu zuen Euskararen Legeaz ere ez dira ahaztu euskarazko hedabideak. Legeak dio komunikabi-

EUSKARAZKO HEDABIDEAK

«2012ko aurrekontua onartzen duten alderdiek euskarazko hedabideen heriotza-zigorra sinatuko dute»

DATUA

0

EURO

aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideentzako 2012rako.

deetan euskararen presentzia sustatzeko Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak bideratuko dituela. «Dirulaguntza partida aurrekontutik desagertaraziz nola beteko du Gobernuak legeak dioena?, galdetu dute.

2011KOA MURRIZTU, 2012KOA DESAGERTARAZI

2011rako onartua zegoen diru partida ere mu-

rriztua du Gobernuak, eta hala, dirulaguntzaren bigarren epealdian %35 ez dute jasoko Nafarroako euskarazko hedabideek, nahiz eta esleipena egin egon. Horren ondotik etorri da 2012ko aurrekontutik hedabideetan euskara sustatzeko diru partida desagertzeko asmoaren berria.

Euskarazko hedabideen irudiko, «azken urteotan Gobernuak gizarteari eskaini dion iritzia biziki interesatua da: badirudi euskarazko hedabideek beti kexaka gabiltzala dirulaguntzen kontuarekin eta dirulaguntza horietatik bizi garela. Irudi luke 56 langileok ez diogula zergen eta IRPFren bidez ekarpenik egiten Nafarroako ekonomiari. Iritzi hori egia ez izateaz gain, perbertsoa ere bada», adierazi dute. «Izan ere, Gobernutik jasotzen dugun ekarpen ekonomiko bakarra dirulaguntza deialdi horietan banatzen dena da, ez bertzerik». Euskarazko hedabideak «presentzia dugun es-

kualdeetan kontsumituenak» izan arren, «Gobernuak ez gaitu kontuan hartzen» gaineratu dute.

Gobernuaren erabakiak politikoak direla uste dute euskarazko hedabideek: «Kasu honetan, eta erabaki horien ondorioz, hedabideak ekonomiko ki itolarrian utzi ditu. Kalte-tuak, gurekin batera, nafar herritarrok gara. Informazio aukeratzen dugun hizkuntzan jasotzeko eskubidea eta aukera gero eta murriztagoa delako».

2008an, euskarazko hedabideen egoera egonkortzeko hitzarmen sina zezan exijitu zion Parlamentuak Gobernuari, tartean PSNren botoekin. Baina Gobernuak eskaerari «entzungor» egin diola aipatu dute hedabideek. «Orain Gobernuan UPN eta PSN daude, non gelditu dira PSNrentzako eskaera horiek?».

Horrekin batera, hedabideek eskaria luzatu diete Nafarroako gizarteari, «egoera larriaren kontzientzia hartzeko, erantzukizunez jokatzeko eta euskarazko hedabideak babesteko». Baina baita Gobernuan eta Parlamentuan dauden alderdiei ere: «2012ko aurrekontuetan berezari deztela hedabideetan euskara sustatzeko dirulaguntza deialdia, eta ekonomikoki duina izan dadila, edo aurreko urteen parekoa guttienez. Eta hori izan dadila lehen urratsa behar dugun hitzarmena sinatzeko. 2012ko aurrekontua babesten duten alderdiek euskarazko hedabideen heriotza-zigorra sinatuko dute».



AURTEN
**EZ PIJAMA
EZ GALTZERDI**
ASMATU OPARIAREKIN

11 ALDIZKARI JASOKO DITU(ZU) ETXEAN.
MUSIKA, ZINEMA, SEXUA, INTERNET, KIROLA...

urtean
20€

gaztezulo
ETXEN KINAK BARRA

Tel.: 943 457 250
harpidetza@gaztezulo.com



BERA

UDALA → DEIALDIA EGINA

Kirol eta kultur elkartentzako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Eskaerak azaroaren 30a arte aurkez daitezke

TTIPI-TTAPA

Herriko kirol eta kultur elkartentzako dirulaguntzak eskatzeko epea azaroaren 30ean bukatuko da. Egun hori baino lehen eskaerak Herriko Etxean aurkeztu beharko dira eta Udaletik adierazi dutenez, epez kanpo aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko, ezta Kultur Etxean, Kiroldegian edo e-postaz aurkeztutakoak ere.

KIROL EKITALDIAK

Kirol ekitaldien kasuan, bi laguntza mota izanzen dira. Alde batetik, denboraldi luzea duten kirol jardueretara bideratuko da laguntza: liga bat dutenak, urte osoan egiten diren mendi irteerak, astero entrenatzen den kirolen bat... Bertzetik, egun batean egiten diren kirol ekitaldiak subentzionatuko dira.

Denboraldi osoko kirol praktiken inguruan, dirulaguntza onartu eta egun batzuetara egokitutako kopuruaren %50a emanen da, eta urte honetan, ebaluazio orria entregatuta, gainerakoa.

Kirol ekitaldia egun bateko kontua denez, egiten den egunetik hurrengo 30 egunen barnean entregatu beharko dira ebaluazio orria eta memoria ekonomikoa. Gero emanen da dirua.

KULTUR EKITALDIAK

Kultur ekitaldiak egiten diren egunetik hasita, hurrengo 30 egunen barnean entregatu beharko dira ebaluazio orria eta memoria ekonomikoa. Gerora ordainduko zaie.

Bortzirietako Ipuin lehiaketa abian

Herri Liburutegiak eta Kultur Batzordeak Bortzirietako Haur eta Gaztetxoek Ipuin Lehiaketa antolatuta dute aurten ere. Hiru mailatan sailkatu dute, adinaren arabera, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasi eta DBHko 2. maila bitarte.

Gaia librea izanzen da eta irudimena, txukuntasuna, originaltasuna eta hizkuntzaren aberastasuna baloratuko dira. Idazkiak eskuz idatziak izan behar dute eta Bortzirietako biztanlea izatea beharrezkoa da, baita euskaraz aurkeztea ere. Ipuinak jasotzeko azken eguna abenduaren 2a izanen da eta sari banaketa abenduaren 16an egingen da.

ARGAZKIA: M^o CARMEN IGARZABAL

Saharako bisita izan dute Labiaga ikastolan

Labiaga Ikastolan bisita berezi bat izan dute berriki. Sahararra den Fatimetu ikastolara joan zen eta bere herriko kultura, ohiturak, dantzak, janariak eta bertzelako jakingarriak nolakoak diren azaldu zizkien ikasleei. Bertzalde, DBHko ikasleek Tolosako Laskorain ikastolako Batxillergoko talde baten bisita izan zuten duela aste pare bat. Gipuzkoarrak Bera eta Lesakako ikasleen hizkera-euskalkiaren ezaugarriak eta lagunarteko hizkuntza-ohiturak aztertzen aritu ziren.

ren 2a izanen da eta sari banaketa abenduaren 16an egingen da.

Genaro Taldearen batzar orokorra

Genaro Taldeko bazkideek ortziralean, hilak 25, ez-ohiko batzar orokorra egingen dute Xuga ostatuan. Juntako kideen aldaketa izanzen dute hizpide. Lehenbiziko deia 19:30ean eta bigarrena 20:00etan egin dute.

Rock omenaldia

Larunbat honetan, azaroak 26, rock omenaldia egingen da gaztetxean Fermin Iraola go-goan. 20:00etan hasita, hainbat talde ariko dira: Noise hole, The sixty-amebasexers, Ok korral-labanak-big crunch, Borrokan, ADN, Xulufraia band, Jorge 'snob', Petti eta Mugaldekoak eta Juxe&izaskun txalapartin' bi. Eta 00:00etan

tik aitzinera, rock&roll DJ maratonia izanen da herriko ostatueta.

Bertzalde, saltsa, merengea... eta gisako dantzen ikastaroa antolatuta da gaztetxean, ortziraleko 17:00etan.

Emakumeen kontrako indarkeria

Azaroaren 25a Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta horren harira, ortziralean *Familia mailako erasotzaileen programa Nafarroan. Erasotzaileen ezaugarriak* hitzaldia izanen da 18:00etan Bera-landetan. Larunbatean, *Superheroínas* antzerkia ikusteko aukera izanen da Kultur Etxean, 19:00etan. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta dute.

Martiko Sariak

Lomejor delas gastronomias

mia.com XIII. Kongresuaren barne, Martiko Sariak banatu ditu berriki Berako enpresak. Hiru enpresei eman die saria: Cruzcampo Gran Reserva, El Navarrico konterberba enpresari eta Lavazza kafe enpresari.

Composites Gurea saritua

Nafarroako Komerztzio eta Industria Ganbarak Esportazio saria Composites Gurea enpresari eman dio, nazioarteko zabalkuntza azkarra eta indartsua saritzeko, produkzioaren %75a esportatzen baitu.

Ricardo Barojakoen boletoak

Ricardo Barojako 5. eta 6. mailako ikasleek boletoak jarri dituzte salgai, elurretara egingen duten bidaiarako dirua biltzeko. Abenduaren 24an egingen dute zozketa.



EUSKARA → EUSKARA ZERBITZUEN ESKUTIK

Kalean da Euskarazko Produktuen Katalogo berria paperean eta sarean

200.000 ale inguru banatuko dira Euskal Herrian

TTIPI-TTAPA

Urteko garai honetan euskarazko liburuak, musika edota bideoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen Katalogoaren 14. edizioa osatu dute Euskal Herriko

ehun bat udal eta mankomunitatetako Euskara Zerbitzuek.

Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen ditu edizioak. Merkatuko produktuen artean hautaketa egin da, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan sailkatu dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informetika produktuak, ko-

mikiak eta gurasoentzako produktuak.

Papereko produktuez gain, www.katalogoa.org webgunean, merkatuan aurki daitezkeen bertze aunitzageri dira. Gainera, argitaletxearen denda birtualera joateko aukera ere badago, produktuen gainean klik egin ez eta, nahi izatera, erosketa etxetik egiteko. Webgunea urte osoan kontsulta daiteke.

Paperezko edizioari dagokionez, 200.000 ale inguru banatuko dira Euskal Herri osoan.

'JOLASTUKO GARA?'

Nafarroako hainbat herritako euskara zerbitzuek *Jolastuko gara?* izeneko argitalpena prestatu dute, urtebeteko haurrak dituzten familiei barnatzeko. Liburuxkaren gai nagusia jolasa da, haurri garatzen lagun-

tzeko baliabide ezin hobe izateaz gain, etxean euskarari sarbidea emateko bitarteko egokienezakoa delako. Halere, argitalpen hau egitasmo zabalago baten zati bat da. Helburu nagusia familietan euskararen erabilera indartzea da, eta hori lantzen hasten dira umea jaiotzen denetik, horretarako lagungarri zaizkien materialak eta ikastaroak eskainiz.



BERA AGENDA ABENDUA

Ekitaldien gaurko informazioa gehiago: 012 telefonon www.berakomedia.net

3 **NAFARROAKO EGUNAREN KONZERTUA**
Lesakako Musika Banda
BERA - Kultur Etxean - 13:00etan
Antolatzailea: Nafarroako Gobernua

16 **HAUR ETA GAZTEEN IPHIN LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
BERA - Herri Liburutegian - 18:00etan
Antolatzailea: Berako Liburutegia eta Berako Kultur Buztindia

17 **ABESBATZA KONZERTUA**
Atsuñi Ainhoa abesbatza
BERA - Kultur Etxean - 19:00etan
Antolatzailea: Berako Kultur Buztindia

24 **OLENTZEROA**
BERA - 17:00 - Alkatzaia Plaza
(Barrutik barne jantzi giro, Eratzaia plazan)

31 **GLIN-GLAM ETA DIOTSESALBEA**
BERA - Herriko karnaketari barne

MUSIKA ENTZUNALDIAK
Antolatzailea: Isidora Fagoaga Urtzi Musika Eskola

13 **TRIKITIXA ETA AKORDEOI ENTZUNALDIA**
BERA - Musika Eskolan - 17:30etan

14 **BIDLIN ENTZUNALDIA**
BERA - Musika Eskolan - 18:00etan

20 **PIANO ENTZUNALDIA**
BERA - Musika Eskolan - 17:30etan

21 **EGUBERRIETAKO KONZERTUA**
BERA - Kultur Etxean - 17:30etan

LESAKA

EPAIKETAK → KONSTITUZIONALERA ETA ESTRASBURGOKO AUZITEGIETARA HELEGITEA JARTZEKO ASMOA DU AKUSAZIO PARTIKULARRAK

Portu eta Sarasola torturatzeagatik lau guardia zibilen aurkako epaia baliogabetua

Auzitegi Gorenaren erabakiak torturari ateak irekitzen dizkiola uste du TATEk

Aitor AROTZENA

Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak Igor Portu eta Mattin Sarasola torturatzeagatik lau guardia zibilen aurka ezarritako epaia baliogabetu du Auzitegi Gorenak. Torturaren Aurkako Taldearen arabera, epai honek torturari eta inpuniteari ateak «perez pare» irekitzen dizkio eta jarrera arduragabea erakusten du.

Amaitu izan akusazio partikularreko abokatuak, Portu eta Sarasolaren senideekin batera Iruñean azaroaren 17an emandako prentsurrekoan epaiaren irakurketari juridikoa egin zuen. Deigarria egin zitzaion Auzitegi Gorenak salaketa aurkeztu zutenak, Igor Portu eta Mattin Sarasola, alegia, ETako kide izateagatik 2.000 urteko zigorra jaso dutela gogoraraztea eta horregatik euren testigantza zalantzan egon litekeela azpimarratzea. «Bakarrik falta zaio esatea torturak izatea onargarria izan litekeela», kritikatu zuen Izkok. Bertetik, Izkoren erranetan, Auzitegi Gorenak bere egin du segurtasun indarren hipotesia: hala, Gorenak ondorioztatzen du torturaren salaketa faltsuak egiteak ETaren estrategia-



UTZITAKO ARGAZKIA

Akusazio partikularreko abokatuak, senideak eta TATEko kideak Iruñeko prentsurrean.

Beti Gazteko argazki lehiaketa

Berangoko Javier Pedro Fernandez Ferrasek irabazi du Beti Gazteko antolatutako argazki lehiaketa, *Rinsu-2* izeneko argazkiarekin. Honela, 300 euro eskuratu ditu. Guzira 38 argazkilarik parte hartu du, 105 argazki bidaliz.

Bigarren saria, 200 euro, Eibarko Juan Antonio Palaciosen lortu du, *Miradarekin* eta 100 euroko hirugarren saria Ka-

taluniara joan da, Juan Manuel Gago Grauk erdietsi baitu *Jose obrarekin*. Kirol argazki hoberenarentzako saria Bergarako Benito Cantero Capezentzat izan da *Neila* argazkiarekin.

Lehiaketan parte hartu duten argazkiak Beti Gazteren egoitzan daude ikusgai azaroan. As-telehenetik larunbata arte, 19:00etatik 20:30era eta igandetan 11:30etik 13:00etara egon da zabalik.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Euskal Herriko helduen bertso eskolen topaketa arrakastatsua

Euskal Herriko helduen bertso eskoletako 130 bat lagun bildu ziren azaroaren 12an. Goizean bertso-poteoa egin zen herrian barna eta gero bazkaria Lindurren bordan. Bazkalondan giro ederra izan zen eta bertso eskoletako kideek beraien bertso-antzerki umoretsuak eskaini zituzten (argazkian Baztango bertso eskolakoak). Herrira jautsita, bertso saioa izan zen Zialdon, Alaia Martin, Iratxe Ibarra, Julen Zelaieta eta Xabier Silveira bertsolariekin eta Oskar Estangarekin Atxaspin egindako kantu eta dantzekin borobildu zen eguna.

FLASH

Donostia kantuz Agiñan eta herrian

Abenduaren 4rako ekitaldi berezia antolatu du Arrano elkarteak. 'Donostia kantuz' taldearekin eta parte hartu nahi duten guztiekin. 12:00etan *Mikel Laboa* eta *Xabier Lete* gogoan kantaldia egingen da Agiñan, bi abeslari hauen zenbait kanta abestuz. 13:00etan herrira jautsi eta karrika buelta kantuz egingen da, Arranotik abiatuta.

Ezagutu dezagun Lesaka

Neska-mutikoen herria hobe ezagutzeko helburuarekin aurten ere *Ezagutu dezagun Lesaka* lehiaketa proposatu du Beti Gazteko. LHko eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei herriari buruzko 30 galdera eginen zaizkie eta erantzun orria abenduaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da ikastetxetan edo Beti Gazten.

Bortzirietako mus txapelketa

Bortzirietako Gorriak peñak laugarren urtez antolatu du mus txapelketa. Azaroaren 25ean Etxalarko Herriko Ostatuan, abenduaren 2an Koxkillan, 10ean Berako Errekalden, 16an Arantzako Pabloenean eta 23an Igantziko Allinean jokatu ondotik, finala Koxkillan izanen da Eguberri egunean, 18:00etatik aitzinera. Izen-ematea 10 euro.

EGURALDIA → AZAROKO LEHENBIZIKO ASTEBURUA

Kalteak baino gehiago beldurra eragin du hilabete hasierako euriteak

Halere, herriko
zenbait lekutan
kalteak izan dira

Iruñe eta Itsaso

Azaroaren 5eko euri-
teen ondotik aunitzek
pentsatu zuten 2007ko
maiatzaren 5eko hura
errepikatuko otezen. Ha-
lere, uste baino kalte gu-
titiago eragin zituen urak.
Hori bai, ura nonnahi
errekatik aterazen, hain-
bat baratze eta landa urak
hartuta gelditu ziren, ga-
raje batzuetan ere sartu
zen eta lehendik ere mu-
gituak ziren zubi batzuk
gehiago mugitu ziren.

Larrapil Sarriku auzo-
an, Baboleko borda al-
deko bideko zubia atas-
katu egin zen ura ater-
ta eta bidea moztuta gel-
ditu zen; orain, bidean
kalteak ikus daitezke.
Zentralera ura eramaten
duen Bidatzerdi pareko
kanala ere lehertu egin
zen; baina dagoeneko
konpondua dago.

Dantzariak Parisera

Abenduko zubian he-
rriko dantzari batzuk Pa-
risera joanen dira hango
Euskal Etxean saioa es-
kaintzera. Abenduaren
10ean ospatuko den Na-
farroaren Egunean be-
raien dantzak eskaini-
tzeaz gain, hango Gazte-
dia dantza taldearekin
ere dantzatuko dute.

Tailerrak

Abenduaren 2an gu-
rasoentzako heziketa se-
xualeko tailerra izanen
da Kultur Etxean (18:00).
Eta abenduaren 15, 16,
19 eta 20an, blogak sor-
tzeako ikastaroa izanen
da, Kultur Etxean.

Mus txapelketa Larraburuan

Larraburua Elkartek
XX. mus txapelketa anto-
latu du. Hamar bikote ari-
ko dira bi taldetan bana-
tuta eta abenduaren 18an
izanen da finala. Trofeo
banaketa eta bazkaria
ere orduan egingen dira.



ARGAZKIAK: ANTON IIRIBARREN ETA ITSASO ELIZAGOIEN
Gogotik egin zuen euria azaroaren 5 eta 6ko asteburuan.



ARGAZKIA: LAURA ELIZAGOIEN

Eskolako ikasleak Usategietara ateraldia

Azaroaren 11n Landagain eskolako ikasle guztiek bi urtetik behin egiten duten
irteera egin zuten usategietara. Lehenengo mailatik seigarren mailara artekoak
oinez joan ziren eta Haur Hezkuntzakoak, berriz, autoz gurasoekin. Behin ha-
rat ailegatuta, Laura Elizagoienekin usategiak bisitatu zituzten, eskulanak egin,
bideo bat ikusi eta bazkaldu ondotik berriz ere igo bezala bueltatu ziren herrira.

Gastronomia lehia

Usategietako lehiake-
ta gastronomikoaren I.

edizioa egin da berriki,
Nafarroako Gastronomia
Akademiako Teresa Gon-

zalez-Caminok antolatua
eta Elutsako Pakita Al-
tzugurenekin irabazi du.



Martutzak berriaren inaugurazioa

♥ OSPATU GUREKIN: ♥

Azaroan -%10

Inaugurazioagatik

HELBIDE BERRIA: Bidasoa, 32 | BERA • 948 631 425

ORDUTEGI BERRIA: Astelehena: 10:00-13:00 | 16:00-20:00 • Larunbata: 10:00-13:00

Asteartea, asteazkena, osteguna eta ostirala: 10:00-13:00 | 17:00-20:00

MUGS

ko bezeroek
gehiago dute
2+2= %4
gehiago
puntuetan

ARANTZA

GIZARTEA → MILITARRAK ARANTZAKO LURRETAN

Herrian izan den militarren presentzia salatu du Udalak

Herri inguruetan eta karriketan Espainiako armadako 200 inguru militar ibili dira

Nerea ALTZURI

«Hemen ez dute toki-rik militarren gerra jolasek eta haien presentziak ez du inongo arrazoirik». Horixe dio Udalak berriki idatzi eta erabakitako oharren akaberan. Izan ere, azken asteetan Espainiako armadako militarrek herriko mendi, baso eta karriketan ibili dira maniobrak egiten. Udalari deus ere jakinarazi gabe, militarrek «gerratan jolasten» ibili diren bitartean, herritarrek karriketan barna lasai-lasai zebiltzala, espektakulu izugarri surrealistekin topo

egin dutela adierazi du Udalak eta gaineratu du, zer gertatzen zen jakin gabe, herritarrek goitik behera armatutako militarrikusi behar izan dituztela eta horrek sekulako harridura eta ikara sortu dituela jendearengan. Zenbait egunez talde titikitan agertu ziren lehendabizi, eta azkeneko aldian, berriz, herri osoa mendean hartzeko moduko militar kopurua azaldu zen. Herritar batzuen arabera, ia 200 militar ibili dira guztira eta irudia ikaragarria izan omen zen.

Udalak, horren guztia-
ren aitzinean, militarren presentzia gaitzetsi du eta gisa berean, militarrei Euskal Herri-
tik alde egiteko eskaera ere egin die.

Leitzan bezala, gure herrian ere, ongi etorriak ez diren eta sekula ongi etorriak izan-

nen ez diren militarren bisita jaso dugu.

Garbiketarako lehiaketa publikoa

Bertze urte baten bukaerara ailegatu gara eta bertze urte batez, Udalak, 2012rako, medikua-
ren kontsulta, Herriko Etxea, ludoteka, basku-

la eta eskoletako garbiketara zerbitzua esleitzeko lehiaketa publikoa zabaldu du. Proposamenak abenduaren 2ko 14:00 baino lehen aurkeztu behar dira Herriko Etxeko bulegoan. Baldintza plegua idazkarriz dago interesa duenarentzat eskuragarri.

Ortziralerako deia

Azaroaren 25a Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Udalak bilkura deitu du ortziral honetarako. Plazan egingen da, 18:30ean, eta herritar guztiei parte hartzeko gonbitea luzatu diete.



ARGAZKIA: WWW.ARANTZA.NET

Uso pasa ederrak ehiztarientzat

Joan den hilabetean eta hilabete honen hasieran batez ere, ehiztari aunitz ibiltzen dira mendian. Aurten, uso pasa ederrak ikusi ahal izan dira eta batzuen batzuek zorte gehiago izan dute bertzeek baino. Tira, usoen ehizarako denboraldia joan da, oilagorretan oraindik ariko da baten bat eta basurde ehizian zale-
tuak, berriz, oraindik otsailera arte ariko dira.

Ba al zenekien...

Abenduaren 3an Arantzako Dantza dantzazera joanen direla gure herritarrek Lizarrara? Dantzari eta txistulari han izanen dira.



ANSONEA
Eguneko menua
Menu vegetarianoa
Menu makrobiotikoa
Plater konbinatuak
Bakarrak • Errezinak
945 431 441
Ezkerreko 2000 11 2000

ikusi-makusi
• ONDORU OLAGARRIEN LESTERAK •
• JARDUN LANTZE AGINTZAREN LANTZE AGINTZAK •

AURRERATU ZAITEZ GABONETARAI!
Eragotzi hilara neketsuak
eta azken momentuko prisak
Zatortu, sartu eta ikusi
Harriluko zargi!

www.ikusi-makusi.net

ORDUTEGIA: astelehenetik larunbatera 10:00-14:30 - 14:30-20:00
Kalea: Pasa-alekua - Etxeak: Etxeak - 50200 IRIATE - 945 413 380

IGANTZI

KULTURA → ABENDUAREN 7TIK 11RA

Herritarren afizioak bilduko dira Kultur Egunetan egingen den erakusketan

Ekitaldi ugari izanen da bortz egunez

presari, etxeakoandre, famatu eta abar ikusi-kotutugu larri antzean, psikologoaren kontsul-tan.

TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez, hainbat ekitaldi antolatu ditu Euskara Batzorde-ak abendu hasierari be-gira. Adin guztietako jen-dearentzako ekitaldiak izanen dira abenduaren 7tik 11ra egingen diren Kultur Egunetan.

ABENDUAK 7, ASTEAZKENA

• 20:30ean *Agur, Manha-ttan* antzezlan eskaini-ko du Xagu Taldeak Ba-ratzondon. Gaur egun, estresak jende aunitz harrapatzen duenez, antzezlan honetan en-

ABENDUAK 8, ORTZEGUNA

• 11:30etik 20:00etara *Igantziarren afizioak* era-kusketa egingen da Ba-ratzondon, Biltoki elkar-teak antolatuta. Hain-bat afizioaren inguruan egingen da: kirola, pintu-ra, eskulanak, argazki-ak, bildumak, bidaiak, laboreak... Erakusketa herritarrek utzitako pus-kekin egingen denez, afi-zio bereziren bat due-nak Biltokikoei jakina-razi beharko die.

ABENDUAK 9, ORTZIRALA

• 17:00etan *Musika mu-*



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Igantzi besta giroan izenburupean egin zen joan den urtean Kultur Egunetako erakusketa.

suka haurrentzako saioa Mattin irudigilearekin, eskolan. Mattinek hau-rrantzako albumetan parte hartu izan du iru-diak eginez, eta eskola-ko ikasleekin egingen du-ens saioan, berelana era-kutsiko du eta haurrek ere parte hartuko dute.

• 19:00etan Marimendi emakumeen mendi tal-dearen emanaldia Zi-berrean. Lehen ere izan-duak dira Marimendi tal-deko emakumeak Igan-tzin. Orduko hartan 2008an Elbrus (5.642

metro) Kaukasoko mendira egindako irtee-raz aritu ziren. Aurten-goan 2010eko irteera-ren berri emanen dute: Perun ibili ziren, Andee-tan, 5.000 metrotik go-rako hiru menditan.

• 17:00etatik 19:00eta-ra eskolako liburutegia eta ordenagailuak era-biltzeko aukera izanen da, nahi duenarentzat.

ABENDUAK 10, LARUNBATA

• 16:00etan eta 17:45ean haurrentzako zine ema-naldiak Ziberrean.

• 16:00etan *Eguberrie-tako menu berri bat* su-kaldaritza ikastaroa Iña-ki Pikabearekin. Bi ordu-ko ikastaro honetan na-hi duen guztiak parte hartzen ahal du. Halere, gehienez ere 20 lagu-nek parte hartu ahal-ko dute. Biltokin izanen da.

ABENDUAK 11, IGANDEA

• 18:00etan bizkotxo le-hiaketa egingen da Bil-tokik antolatuta. Ondotik, txokolate beroa eta bizkotxoa eskainiko di-ra berendatzeko.

Berako GOYA DENDA

EZ DA IXTEN

Gure espezialitateak: - Maindireak, Normolak, Franelazkoak, Polarrak - Toailak - Mantak	- Nordikoak - Ohe estalkiak - Edredoi fundak - Edredoi nordikoak	- Kortinak - Laneko arropak - Sukaldarien arropak - Etxeko batak	- Euskal arropak (orain ere: abarkak) - Aurrentzat batak - Guardapolak - Menajes
--	---	---	--

baina GURE DENDA TTIKIAGOTU NAHI DUGU

horregatik: **abendutik martxora**

bilatu gure **txolloak, gure saldoak**

Kristaleriak, gottzak, otorrak, oherako arropak, jortseak,
 "trango" arropak, allonbrak, burdin tresneriak, muletak...

Eta gainera... probestu Club Mas Herri-Ti's deskontuak, sorteoak, egiten dituzte

Zatzen Berako Goya denda eragutsero

Aldizk. 5 - BERA (T. 44 430 08)

SUNBILLA

EGURALDIA → AZAROKO LEHENBIZIKO ASTEBURUA

Azaro hasierako euriteen ondorioz ura sartu da herriko hainbat tokitan

Frontoian, plazan eta botikan ura sartu da

Maidar PETRIRENA

Azaroaren 6an sekulako uholdeak izan ziren gure herrian, inguruko bertze herri aunitzetan bezala. Hilabeteko lehenbiziko asteburuan

ez zuen ezta minutu bakar batean ere atertu, baina batez ere, larunbat gauetik iganderako tartean egin zuen euria. Hala ere, eskerrak igande arratsaldean atertu egin zuen, bertzela, izugarria eginen baitzuen.

Aipatzekoa da, frontoia, botika eta plaza urez bete zirela euriaren ondorioz.



ARGAZKIA: NAIARA ARRETXEAA

20 basurdetik gora

Basurdeak ehizatzeko denboraldia hasi zenetik, dagoeneko 24 hil dituzte. Azaroaren 13an, zehazki, lau hil zituen Loiarrek.

Behobia-Donostia

Azaroaren 13an egin zen Behobia-Donostia lasterketan bertze urte batez hainbat herritarrek parte hartu zuten:

Gorka Arretxea Oiartzabal, Bixente Ibarra Ibarra, Jabier Ibarra Irazoki, Gari Larraburu Bertiz, Juan Tomas Latasa Mitxeko, Xanti Mantero-

la Etxeberria, Esteban Maritxalar Iturbide eta Oskar Sanchez Hernandorena. Lerro hauen bitartez, zorionak eta animo!



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA ETA NIEVES BIURRARENA

Gogotik egin zuen euria azaroko lehenbiziko asteburuan. Irudi hauek horren lekuko dira.



ARGAZKIA: BIDA IBARRA

Mendiz mendi

Ulibeltzak Mendi Taldekoak mendiz mendi dabilta. Urriaren 23an, adibidez, San Donaton izan ziren.

KIROLA → DENBORALDI BERRIKO AURKEZPENA

Eskubaloï taldeen aurkezpena eginen du larunbatean Errekak

Zazpi eskubaloï talde izanen ditu Errekak sasoi honetan

TTIPI-TTAPA

Zazpi talde eta 130 jokalarirekin, larunbat honetan, azaroak 26, eginen du Erreka Kirol Elkartek eskubaloï talde guztien aurkezpena. Kiroldegian izanen da ekitaldia, 19:30 aldera. Jokalariak banaka deituko dira eta azkenik, denek elkarrekin taldeko argakia aterako dute.

Hori baino lehen, 18:00etan, Errekako seniorren taldeak Tuterako Bardenas taldearen kontra partida jokatuko du.

BABESLEAK

Babesleak lortzeko kanpaina ere egin du Erreka Kirol Elkartek eta laguntza emateko prest agertu diren iragarkiak kiroldegian paratu dituzte eta hor egonen dira denboraldi osoan.

Bertso afaria abenduan

Urteroko ohiturari eutsiz, Gazte Burrunba Kultur Elkartek bertso afaria antolatu du abenduaren 10erako, larunbata, Igor Elortza eta Julio Soto bertsolariekin. Santa Maria jatetxean izanen da afaria, eta joan nahi duenak Titi ostatuan eman beharko du izena, abenduaren 7a, asteazkena, baino lehen.



ARGAZKIA: ERREKA

Aitzineko alean aipatutako eskubaloï taldeez gain, benjaminen taldea ere badu Errekak. Eurek dira elkarteko jokalaririk gazteenak.



ARGAZKIA: ERREKA KIROL ELKARTEA

Herritarrek Behobia-Donostia lasterketan

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, eta beroari gogor eginez, hainbat izan ziren azaroaren 13an Behobia-Donostia lasterketa egitera animatu ziren herritarrek, argazkian ageri direnak eta ez direnak ere bai. Horiei guztiei zorionak!

MAILPOSTA
PAPERTEGIA

Papertegia ireki dugu Donezteben!

Eskolako eta bulegoko materiala
Opari pertsonalizatuak
Fax zerbitzua...

5 euroko erosketengatik
mendiko bisikleta baten
zozketarako zenbaki bat opari.
Zozketa 2012ko urtarrilaren 6a.

Kale Nagusia, 4 - DONEZTEBE

BERA

Zera ingurumen kidea guztizko inbektur
(komertzio, zioanria, armarria, kuxaka...)
eta urritoi segurtasun gorbite nahi baduzu,
deitu! Termite eta Pipien tratamendurak

GOIEKO Inbekturak, Tratamenduak, Produktuak

Tel: 948 625 087 • Zuzen, 40 • BERA

ZUBIONDO
Jatetxea

LAGAZDUNGIA JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARRA

BRANDONEA, S.L.

FRUTAS DE CALIDAD

948 630 102 • PAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 • atea 21-22 • 31780 BERA

ITUREN

KULTURA → ABENDUAREN 2AN, 3AN ETA 11N

Abenduaren 2ko talo jatearekin hasiko dira Kultur Egunak

Larunbatarekin haurrendako hainbat jarduera izanen dira goiz eta arratsaldez

Arkaitz MINDEGIA

Abendu hasiera ailegatzearekin batera, Ibintza Kultur Elkartek aurten ere Kultur Egunak prestatu ditu. Abenduaren 2an eta 3an, ortziral eta larunbatez, izanen dira ekitaldi gehienak, baina abenduaren 11rako ere utzi dute. Egunez egun, hau izanen da egitaraua.

ABENDUAK 2, ORTZIRALA

- 21:00etan talo jatea eginen da.
- 22:00etan mus txapelketa jokatu da Herriko Ostatuan. Lau sari banatuko dira: lehenbizi saria bi txuleta eta bi ardo botila izanen da –partaide bakoitzarentzat–; bigarren sariarekin gazta bat eta bi ardo botila banatuko dira bakoitzarentzat; eta

hirugarren eta laugarren sariarekin bina ardo botila jasoko ditu bakoitzak.

ABENDUAK 3, LARUNBATA

- 11:00etatik 13:00etara haurrentzako tailerra eta jokoak izanen dira.
- 13:00etan haurrendako bazkaria eginen da.
- 16:00etan haurrendako antzerkia izanen da.

- 21:00etan afaria eginen da Herriko Ostatuan.

ABENDUAK 11, IGANDEA

- 17:00etan Andres Iñi-

goren eskutik hitzaldia izanen da.

- Ondotik luntxa izanen da Herriko Ostatuan.

Ba al zenekien...

Azaroaren 13an egin zen Behobia-Lasterketan bi herritarrek parte hartu zutela? Jose Joakin Ruiz eta Ismael Elizalde egin zuten 20 kilometroko lasterketa eta aski denbora onean, gainera.



ARGAZKIA: MAITE RUIZ DE SOLA

Aurtizko bestak giro ederrean

Giro eta eguraldi ederrarekin joan dira aurtengo San Matin bestak Aurtitzen. Haur, gazte, heldu edo zaharrek gozatzeko aukera izan dute egin diren ekitaldietan eta umorerik ere ez da falta izan, galdetu bertzela, argazkiko zazpikoteari. Ez dirudi bestetan gaizki pasatu zutenik.

MALERREKA

Lau lagun hasi dira helduen bertso eskola sortuberrian

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Euskara Zerbitzuaren deialdiari erantzunez, lau lagunek eman dute helduen bertso eskola izena eta taldea osatu denez, aitzinera egin du Malerrekaren helduen bertso eskola sortzeko egitasmoak. Zubieta, Oiz, Ituren eta Doneztebeko lagun bana dira interesatuak eta Iker Gorosterrazu iturendarra dute irakasle. Ortziral ilunabarretan biltzen dira eta norbaitek interes baldin badiu, Ikerrekin jar daiteke harremanetan. Bertsolaritza hastapenetik lantzen hasi dira etorkizuneko bertsolariak.

MALERREKAKO TALDEKAKO BERTSOLARI TXAPELKETARIK EZ

Aurten ez da Malerrekako Taldekako Bertsolari Txapelketarik izanen. Hirunaka egiten den lehia honek aitzinera egiteko, guttienez sei lagun behar dira eta Malerrekaren lau baino ez dira prest agertu txapelketan parte hartzeko: Egoitz eta Iker Gorosterrazu eta Alazne Untxalo iturendarrak eta Irati Arrieta sunbildarra. Hala, zozketa bidez erabakiko dute zein hiru joanen diren Bortzirietako Taldekako Bertsolari Txapelketara.

KOXKONTA Jateak

2012an ezkontzen diren bikoteendako Promozioa

T. 948 627 519 • 948 627 503 • 689 801 637
Otsango auzoa, 1 • LESAKA

LEGARRA

Egunkariak | aldizkariak | lekuak | oporak | turismoa
fotokopiak | enkladematzaileak | plaserak | zozkak | tax publikak

ZERBITZU BERRIAK!!

FOTOKOPIAK KOLORETAN A3 eta A4
USB-tik zuzenean inprimatzen dugu

Tel. 948 63 70 30 - Albiñe, 9 • LESAKA

GIZARTEA → HONDAKINEN BILKETA

Depuradora ondoko edukiontziaren erabilera hobetu egin nahi du Udalak

Traste handiekin berehala betetzen da eta garraioak gastua handia sortzen du

Fermin ETXEKOLONEA

Landako depuradorearen ondoan dagoen edukiontziari erabilera egokia eman nahi dio Udalak. Gaur egun, jendeak gisa guztietako gauzak botatzen ditu edukiontzi horretara eta neurri haundiko trasteekin segituan betetzen da. Garraioak gastu handia eragiten dio Udalari.

Horren aurrean, hondakinak biltzeko herrita-

rrok ditugun beste baliabideak aprobetxatzea nahi du Udalak eta depuradora ondoko edukiontzira behar dena barrik botatzea. Neurri haundiko trasteak biltzeko, adibidez, Emauseko Trapuketariei deitzea nahikoa da eta eurrek etortzen dira etxera bila eta dohainik. Altzariak, etxe-tresna elektrikoak... biltzen dituzte aurretik 948 451979 telefonora deituta.

Gaiaren inguruan, bandoak edo kartelak herrian barna banatze-ko asmoa du Udalak.

DEPURADORARAKO BIDEA

NILSA Toki Azpiegituren Nafarroako Sozietatea da depuradorearen



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Herriko musikariak eta dantzariak Aurtizko bestetan

Saio polita eskaini zuten Mendaurren Trikitixa Eskolako neska-mutikoei Aurtizko bestetan. Tartean zubietarrak ere aritu ziren: panderoarekin Aratz Elizalde, Ane eta Nahia Etxeberria, Luaia Fagoaga, Jone Indakotxea eta Saioa Mariezkurrena aritu ziren (Maialen Mendiburu ez zen Aurtitzen izan nahiz eta ikasten ari den) eta trikitixarekin Ane Anso. Horrez gain, herritar kuadrilla bat Ibintza Dantza Taldean aritzen da eta hauek ere Aurtizko bestetan beraiekin emanaldia eskaini zuten.

mantenimenduz arduratzen dena eta berak hartu zuen Landa sarre-ratik depuradorara doan bidean ormigoia botatzeko ardura. Mariezkurrena enpresa segituan hastekoa zen, baina azkenean, Eguberriak pasatu bitarte, atzeratu egin dira lanak, baimen guztiak ez daudelako prest.

Lur-hautsiak

Euriaren ondorioz sortu

diren lur-hautsiak lehen-bailehen konpontzeko akordioa hartu zuen Udalak bere azken bilkuran. Azaro hasierako eurite-ek Armizkoko bidean lur-hautsia eragin zuten eta lerro hauek idazterakoan baliteke lanak akitu-ak izatea. Bestalde, duela hilabeteak Zubiteko-bordara doan bidea ere eraman zuen euriak. Hori konpontzeko laguntza eskatu izan dio Udalak

Nafarroako Gobernuari baina ez dajaso. Hortaz, behin behinean bada ere, hori moldatzea pentsatu du Udalak.

Bertso eskola

Oraindik guztiz ziurra ez bada ere, baliteke Maierrekako helduen Bertso Eskolako klaseak gure herrian ematea. Herriarren batek apuntatu nahi badu, oraindik badu horretarako aukera.

expert

BORTZIRIAK

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

Ridosoa, 45 - 31760 Bera - 948 630377 - 948 631091 - info@bortziria.com - www.bortziria.com

BEINTZAKO
OSTATUA

948 451979

ORBELA

ERROTAZAR

harategia

Vino de
producción

Erategia, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088

MALERREKA

BEINTZA-LABAIEN → AZAROAREN 12AN

Aizkora apustu polita eskaini dute herritarrek Beintza-Labaienen

Protagonistek Herriko Ostatuan afaria jokatu dute

M. Aranzazu ITURRALDE
Lau herritarrek ikuski-

zun polita eskaini zuten joan den azaroaren 12an Olatzeko zokoan. Aizkolariak «profesionalak» ez direnez, ez ziren ausartu aizkora desafioa plazan jokatzea, baina hala ere, jendearen arreta bere-

ganatu zuten.

Alde batetik, Dolareko Miguel Angel aritu zen aizkora, Galzaineko Sergio bikotekide zuela. Aurkariak Pizargineko Joxe Mari eta Dolareko Felipe izan zituzten.

Oso lehia polita izan zen eta saioa ikustera hainbat herritar bildu zen lau partehartzaileei animoak eman bidenabar.

Azkenean, Felipek eta Joxe Marik irabazi zuten apustua. Joko-

an jarri zutena, berriz, Herriko Ostatuan egiteko afaria izan zen.

Aizkora apustuaren ondotik, Jesus Etxeberriak eta Pello Telletxeak 2,95 metroko enbor haundi bat moztu zuten.



ARGAZKIA: M^a ARANZAZU ITURRALDE

Eguneko lau protagonistak eta beraien laguntzaileak.



ARGAZKIA: ANE ANSO

Onddo ederrak Oitzen

Hor barna gordeak onddo ederrak ere izaten dira eta Sanmigeleneko Eugenia eta Juanitok bildutakoa behinik behin hala atera da: 1,1 kilokoa aurkitu dute.



MERCHI
MODA HOMBRE
Sempio Aljica, 11
20302 BUN
T. 943 612 626

CAPELETTI
Moda HOMBRE
Mondol Merkatal Zentroa
20302 BUN
T. 943 624672

GIZARTEA → MEGALITOAK

Inguruetako megalitoetan barna ibilbidea markatuko da

20 megalitotik gora daude Ezkurran eta Eratsunen

F. ETXEBERRIA/ TTAPI-TTAPA

Duela urte batzuk, Nafarroako Gobernuak arkeologia saileko ordezkariak Ezkurra eta Eratsun inguruan ibili ziren, gure bazterretan dauden arkeologiako arrastoak behar bezala katalogatzen.

Adituen arabera, hogeitau biko gehiago daude, eta horietan guztietan Iruñarri menhira du-gu aipagarriena, aldi berean, Euskal Herriko garrantzitsuenetarikoa ere badena. Baina badira harrespilak, tumuluak eta trikuharriak ere, zehazki, Olegi, Malo, Aztun



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Duela urte batzuk Iruñeko antropologo bat Iruñarri menhirra ikusten izan zen.

eta Latargi inguruetan. Guztietan badago bakoitza zer den azalduz seinalea, baina gehiago egin nahi da. Gipuzkoatik etorri eta azken urteetan gure herrian bi-

ziden Beñatek, Fernandoren laguntzarekin, megalito horietan barrena ibilbidea markatu nahi du, makilen eta zuhaitzetan edo lurtean egin-dako margo seinaleen

bidez. Markatutako ibilbidea Barranka ostatutik abiatuko da eta hortik Baztaneko borda alderako bidea hartuko du. Trikuharrien ondok pasatuta, Malorako

bidea hartuko da eta hortik Erakurrira. Handik jeitsi eta Ezkain aldera joanen da bidea eta aurrerago eta eskui-nerago harrespil haundi bat dago Olegin. Bideari jarraituz, Eratsungo lur eremuan bukatuko da bidea, Iruñarri mendiaren azpian dagoen izen bereko menhirrean, hain zuzen. Hor inguruan tumuluak eta beste megalitoak ere badira.

Lerro hauek idazte-rakoan Beñat ibilbidea markatzeko materiala prestatzen ari zen eta behin horiek eginda, ibilbidean barna jarriko dituzte Beñatek eta Fernandok. Gastua ere bi-en gain hartuko dute. Ibilbideari buruzko azalpenekin orria idazteko ere asmoa badute.

Abenduko Zubirako Eskaintza

EGUN BATZUETARAKO ATERALDIA

Eskaintza eta tokirik hobereak deskonektatzeko

EUROPA	
LONDRES H. Wedgwood ***	557€
PRAGA H. Olympia Travel ***	584€
ISTANBUL H. Flair ***	626€
AMSTERDAM H. Tulip Inn Amsterdam Riverclass ***	591€
PARIS H. Helios ***	524€
ROMA H. Gloria ***	616€

INFORMAZIOA ETA ERRESERBUAK:
Eztagara 22, beheko
31780 BERRA Navarra
Tel: 940.631.386
E-mail: bera.1286@viajesiberia.com

Alduraren artean erabakitik, Roma eta Parisen bitartek, prezioak gutxiago izan-zaitez, baina bitartean eta alduraren artean erabakitik. Abenduko Zubirako Ateraldia bitartekoan izan daiteke. Irakurri gure webgunea. Erreserba egitekoan, irakurri gure webgunea. Irakurri gure webgunea.



Baita joan

VIAJES IBERIA

NARBARTE

OSPAKIZUNAK → OHITURARI SEGITUZ

Abenduaren 3an ospatuko dira San Andresak

Bazkarirako txartelak Herriko Ostatuan eros daitezke

Martin BERTIZ

Larunbat honetan zortzi, abenduaren 3an, ospatuko dira aurten San Andresak. Eta egun horretan, Herriko Ostatuan bazkaria antolatu da.

Joan den urtean, bi egunetara luzatu ziren San Andresetako ospakizunak eta tartean, aizkora eta motozerra apustua ere egin zen,

baita mus eta partxis txapelketak ere. Aurten, ordea, azken orduko aldaketarik ez badago behintzat, abenduaren 3an egingen den bazkaria izanen da eguneko ekitaldi bakarra. Bazkariko menua dagoeneko ostatuan eta dendan paratua dago. Bi toki horietan eros daitezke bazkarirako txartelak.

EGUN BAKARRA

laz bi egunez izan ziren San Andresetako ekitaldiak baina aurten abenduaren 3an egingen den bazkariarekin ospatuko dira.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Mendi abesbatza elizan

Azaroaren 4an kontzertu polita eskaini zuen Doneztebeko Mendi abesbatzak elizan. Kontzertu hau Nafarroako Gobernuak antolatuta, hainbat herritan eskaintzen duten emanaldien barne dago. Jende dexente bildu zen elizan eta gisa aunitzetako kanta entzun eta gustura atera ziren.



ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ

Uholdeak

Bertzelako itxura batekin ernatu zen herria azaroaren 6an. Bi egunez euria gelditu gabe egin ondotik, ibaiaren maila ederki igo zen. Baina uholdeak izatearen arrazoi nagusia bertze herri batzuetatik etorritako euriaren ondorioa izan zen. Argazkietan garbi ikus daitekeen bezala, aspaldi horrelako uholderik ikusi gabeak ginen.

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
© 948 630 763 - Altzola, 17 - BERA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kimi Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, beheko • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colin Pas. 8 - atzea • Tel-Fax: 948 632050 • INUR

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berrira arazi taldea

J. RAMOS
zolak akutxilatzen
barnizatzen dituen
Sakeleko: 617 836 073 - LESAKA

KONTZEJUKO HAUTESKUNDEAK → DEIALDITARA ZERRENDARIK EZ DELA AURKEZTU IKUSITA BERTZE ATERABIDEAK

Kontzejuko ordezkariak aukeratzeko botazioa egin da herritarren artean

Boto gehien jaso dutenen artean erabakitzea da nor sartuko den kontzejuan

TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, joan den azaroaren 5ean herri bilera egin zen, hurbildutako artean kontzejuan sartzeko boluntarioak aurkitzeko asmoz.

Egia erran, jende gutti joan zen bilerara eta eta han zirenen artean ez zen inor prest agertu kontzejuan sartzeko.

Hau ikusirik, bertze saiakera bat egitea erabaki zen eta azaroaren 13rako herri botazioa egitea proposatu zen.

Egun horretan, botazioa eskolan egin zen 12:00etatik 14:00etara eta herritar bakoitzak borts izen jartzeko aukera izan zuen. Izan bakoitzak boto bat ordezkatzeko zuen. Eta behin botazio hori egin ondotik, boto gehien jaso zituzten hamar herritarren artean bilera bat egitekoa zen kontzejuan sartzera nor animatzen den ikusteko.

BOZKATUENAK

Hamar bozkatuenak hauexek izan ziren: Laura Andresena, Idoia Hernandorena, Martin Subizar Garraida, Aitor Zelaleta, Antxon Erregerena, Dabid Andresena, Jesus M^a Oteiza, Izaskun Etxart, Jexus M^a Etxart eta Ibai Etxart.



UTZITAKO ARGAZKIA

Azaroaren 6ko euriteak uholdeak sortarazi ditu

Azaroaren 6ko eguerdira euri artean iritsi ginen. Inguruko herrietan bezala, Legasan ere Bidasoa ibaiaren emariak goiti egin eta gainezka egin zuen. Karrika guztira atera zen erreka eta zenbait etxetako garajeetan ere sartu zen ura. Iru-dian ikusten den bezala, normalean errekan egoten diren piruak karrikan barrena igeri egiten ikusi genituen.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDO (BAZTAN) | LETIZA | BETELU
DONIZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → AZARO KULTURALAREN BARNE

Txondorra izanen da larunbat honetako Feria Eguneko berrikuntza nagusia

Egun osoan hainbat ekitaldi izanen dira herrian

TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz beteriko hila beteazaten ari da azaroa, eta horietako asko ez dira nolanahikoak izaten ari. Gainean dugun asteburu hau ere ez da gutxiagorako izanen, FERIA Eguna ospatuko baita larunbatean, hilak 26.

Ostiral ilunabarrean, azaroak 25, txondorra pizteko ekitaldia egingen da eta horixe izanen da larunbatean ospatuko

den Feri Eguneko nobedade aipagarria. Baina ez bakarra. 10:00etatik 13:00etara azienda feria izanen da Isarriko frontoian eta aurten II. Betizu Eguna egingen da. Plazan, berriz, nekazal produktuak eta artisau produktuak izanen dira: sagardo egitea, arto kirkiltzea, harri taila, taloak, joare egitea, txondarrari be-tarria ematea...

12:30ean aizkolarien saioa izanen da plazan eta 14:30ean bazkaria. Txartelak Amaiarenean daude salgai. Ondotik eta ilunabarrean, musika izanen da Modesto-ekin.

Pilota kontuak

Urriaren 29an jokatu zen Gartzarongo Pilota Txapelketako finala eta bi herritar bat bestearen aurka aritu ziren: Iker

Salaberriak Iraitz Zubizarreta (Ataun) izan zuen lagun eta 18-13 irabazi zieten Antton Apezetxea eta Jon Mariezkurrena (Iruñea).

Pilotarekin segituz, gogoan izan, Aimar Olai-zola lau t'erdiko pilota txapelketako finalean izanen dugula Irujoren kontra.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

la bi kiloko onttoa aurkitu du Juan Mari Zugarramurdik

Ontto ederrak agertzen ari diragure bazterretan. Aurreko alean, Ana Mari Loiar-tek bilatutako ia kiloko onttoa ikusi ahal izan genuen eta aldi honetan Juan Mari Zugarramurdirena ageri zaigu, besteen artean, 1,95 kiloko eskuetan duela.

OSPAKIZUNAK → GAZTE ASANBLADAREN FESTA

«Azaroaren 12a goizuetar guztien gogoan geldituko den eguna»

TTIPI-TTAPA/GAZTE ASANBLADA

«Azaroaren 12a goizuetar guztien gogoan geldituko den eguna izan zen». Halaxe kontatu dute Gazte Asanbladatik. Eta ez da gutxiagorako, agerikoa izan baitzen 20. urteurreneko ospakizunak izandako arrakasta.

Goiz goizetik festa usaina hartu zuen egunak: argazki erakus-keta, *Eskuz esku, urtez urte ametsak eraikitzen* lelopean egindako graffitia, «hauxe da ekipua, merezi du olatu!» oihukatuz herri-ritar ugarik parte hartu zuten argazki erraldoia, 200 lagunetik gora elkartu zituen bazkaria, herriko artisten lanen enkantea...

Arratsaldean gazteek propio egun horretarako sortutako elektrotzarangak alaitu zuen, eta Esne Beltzak egun horretarako egindako kantaren bertsioa ere

egin zuten. Mañoli ere animatu zen bere zatia abestera. Elektrotzarangak lagunduta iritsi zen jendetza eskolako frontoian egin zen ekitaldi nagusira. 20 urteotan Gazte Asanbladak egindako lana azpimarratu zuten, eta eskerrak eman zizkien ibilbide honetan lagundu duten herritarrei. Ekitaldi hunkigarria bukatuta eman zitzaizen hasiera kontzertuei. Eta honetan zenbakiak nahikoak dira: 1.508 lagunek leporaino bete zuten kontzertu gunea, eta beraz, uka ezinezkoa izan zen arrakasta. Dena borobil ateratzea zaila izaten da, ordea, eta furgoneta batek su hartu zuen goizaldera, beste hiru ibilgai-luri kalteak eraginez. Antolakuntzak animoak bidali nahi dizkie jabeei, eta herriko suhiltzaile boluntarioen lana eskertu.



Horrez gain, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete hila beteotako lanean aritu den orori, bere laguntza eskaini dutenei, eta azaroaren 12an Eus-

kal Herriko txoko guztietatik hurbildu zirenei, baina batez ere Goizueta osoari: «Hemendik aurrera ere tirriki ttarraka maldan gotti segituko dugu!».

OSPAKIZUNAK → GIRO EDERREAN

San Martin Santiago baino hobeki portatu da

Sendabelarren
tertuliak eta
tailerrak jende
asko bildu du

Maidar eta Kontxi

Azaroaren 12an, azken urteetan data horren inguruan egin izan den bezala, San Martin eguna ospatu zen. Duela urte asko San Martinak baziren ere herriko festa nagusiak, eguraldi hotzek ohore hori Santiagori ematea ekarri zuten nonbait. Aurten, ordea, batek baino gehiagok pentsatuko zuen berriz aldaketaregitea, izan ere, San Martinek udako gaugiroa eskaini zigan antolatua zegoenez gozatzea, Santiagok ez bezala.

Larunbatean programatua zegoen ganbarako erakusketa jendea ibili zen eta igande eguerdian ere irekita izan zen. Iñigo Olaziregik utzitako erakusketa izan zen, dotore prestatua, eta Euskal Herriko ugaztunen aztarnak beren azalpenekin 40 eta gehiago panteletan ordenatuak zituela. Kontsejun jarritako erakusketaren inguruko galderei zuzen erantzuteak bere saria zuen eta, asmatzaileen artean zozketa egin ondoren, lau lagunentzat otordua Mairitzenean joan zen.

San Martinetan herriarrek beti eskaintzen dute zerbait eta aurten sendabelarren inguruko tertulia eta ukendu tailerra egin zituzten. Jende



ARGAZKIAK: AINHOA ANSA

Goian, haurrak norberak egindako taloak jaten eta behean, Kontxi eta M^a Jesus ukendua egiten.

asko bildu zen Kontxik eta Maria Jesusek prestatutakoa ikustera eta norberaren ezagutzak konpartitzera. Patas deitutako ukendua eta enplasto bat egiten erakutsi zuten eta aloberarekin egindako jarabe bat ere eraman zuten bertaratutako batek. Bukarera, ukendua, enplastoia eta jarabea gerturatutako en artean banatu ziren.

Egunari bukaera emateko, talo eta gaztaina

erreak izan ziren denentzat, Bordaxar eta Ezkeren Bordako sagardotako lagunduak.

Egun hau aurrera eramaten zuten guztiei berriz ere eskerrak eman behar dizkiegu, Udaletik hasi eta gaztainak erretzeko zotzak biltzen aritu zirenetaraino.

Elkartean afaria

Aurreko urtetakoa errepikatuz, herriko 20

emakume elkartu ziren afaltzeko San Roke elkartean urriko azken larunbat gauean. Aurten goan ere Estherek prestatu zuen afaria, ontzat betako krepak eta labean erretako oilaskoa en saladarekin. Afal ostean, musean jokatzeko ohiturari jarraituz hasi ziren hainbat bikote eta txapeldunak Xari eta Maika izan ziren eta bigarren Inaxi eta Josune gelditu ziren.

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → ZAHARBERRITUA

Ospakizun hunkigarriarekin inauguratu da Madaleneko basiliza

TTIPI-TTAPA

Bi urteko zaharbertzelanen ondotik, azaroaren 5ean egin zen Madalena basilizaren inaugurazioa. Goizean Umore Ona Abesbatzak aurorak abestu zituen, eta ondotik etorri zen basilizako ekitaldia. Inaugurazioa ospakizun hunkigarria

atera zen eta jendea pozik gelditu zen. Parrokiako apaiza, Goizueta-ko seme diren bi apaizak, Leitzakoak eta Goizueta inguruko Gipuzkoako apaiz batzuk lagunduzioten Mikel Gartziandia bikarioari, meza ematen eta aldare berria konsagratzen. Basilizako solairu-



ARGAZKIAK: JOSE JABIER ETXEBERRIA

Basilizaren inaugurazio egunean apaizak aldarean.

pean dauden hilobien be-deinkapenarekin hasi zen elizkizuna, eta difuntuen hausterreak sartu ziren.

BI URTEZ OBRATAN

Obrak 2009ko udazkenean hasi ziren eta tarte horretan, egurrezko tei-

latupea berritu da. Intsektuak akabatzeko tratamendua ere eman da eta erretaula eta bere irudiak moldatzu dira. Aldarea, eserlekuak eta ateak berriak dira. Horrez gain, XVI. mendeko ateen dintel molduratuak, leihoak

eta paretak moldatu dira eta lurzoruko lauizen azpian, hausterreak ehortzeko nitxo berriak egin dira. Atariko galtzadako harriak ere agertu dira eta burdinezko hesiaz itxi da plaza. Iparraldeko paretan tximistorratza jarri da.

LEITZA

GIZARTEA → MILITARRAK LEITZAKO LURRETAN

Espainiako armadaren maniobra militarrek salatu ditu Udalak

Baimenik gabe eta arriskua eragiten aritu direla azaldu du

TTIPI-TTAPA

Espainiako armada-ren dozenaka militar Leitzako lurretan ibili dira, eta hori ikusita, «armadaren presentzia eta maniobra» salatu nahi izan ditu Udalak, ohar bidez. Gainera, jakinarazi duenez, «inongo baimenik gabe eta herritarren artean arriskua eraginez» aritu dira. «Udalak kasualitatez eta hainbat herritarrek egindako deiei eta salaketek esker izan du honen berri».

Presentzia militarra «izugarria» dela ere adierazi dute oharrean: «dozenaka militar ongi armatuta oinez, anbulantzia, kamioiak eta beste ibilgailuak...». Hortaz, zera eskatu dute: «Leitzatik eta Euskal Herritik joateko exijitu nahi diogu Espainiako armadari. Hemen ez dute tokirik euren gerra-jolasek. Gainera, egun Euskal Herrian bizi dugun egoera politiko itxaropentsuan ez dago inondik inora justifikatu euren presentzia».

Nafarroaren Egunaren harira hitzaldia

Nafarroaren Eguna dela eta, abenduaren 2an, 19:30ean, hitzaldia antolatuta da. Nafarroaren konkistan, Leitzaldean eta inguruetan izandako gertakizunak eta eraginez ariko da Nabarraldeko Beñi Agirre. Nafarroa-



UTZITAKO ARGAZKIAK
Militarrak Leitzalarrean.

ri eskainitako ekitaldi eta-ko bat izanen da eta bali-teke gehiago ere izatea.

Kontzertua Gaztetxean

Zea Mays talde eza-gunak kontzertua eskainiko du larunbat honetan, hilak 26, Gaztetxean. 23:00etan izanen da.

Argazki erakusketa Peritzan

Guatemalako indigenen argazkiekin erakusketa zabaldu du Mikel Zabaletak Peritza ostatuan. Bisitariak 20 bat argazki ikusteko aukera izanen du, denak bereak.

Sestorainen liburu aurkezpena ostiralean

Joxemari Sestorainek Martí i Pol poeta kataluniar ospetsuaren *Estimada Marta* liburu euskaratu du, *Marta Maitea* izenburupean. Aurkezpena azaroaren 22an egitekoa zen, baina atzeratu egin da eta ostiral honetan, hilak 25, egingen da, toki eta ordu berean: 19:30ean Iruñeko Auzolan liburu-dendan. Bi hizkuntzetan errezitaldia egingen da.

GIZARTEA → OSTEGUN HONETAN BATZAR INFORMATIBOA

Erasote auzotik pasako litzatekeen goi tentsioko linearen proiektu proposamenari buruz batzarra egingen da

TTIPI-TTAPA

2010ean Castejon eta Gasteiz artean Goi Tentsioko Linea (400 kV) eraiki nahi izan zuen REE S.A. (Red Eléctrica de España) enpresak bi alternatiba berri proposatu ditu eta bi horietako batek bete-betean eragiten dio Leitzari. Hala, horren berri emateko oharra kaleratu du Udalak, eta bide batez, ostegun honetan, hilak 24, egingen den batzar informatiboan parte hartzea deitu deitu herritarrak, 19:00etan.

Castejon-Gasteiz linea proposatu zuenean, Nafarroako Gobernuaren oniritzia izan zuen, Lizarraldeko herrien energia elektriko beharrak asetzeko izanen zela esanez. Halere, proiektuak ukituko lituzkeen Nafarroa eta Arabako herriek eta Arabako Diputazioak kontra egin, eta bertan behera gelditu zen REE S.A. ren egitasmoa.

Orain, ordea, bertze bi aukera jarri ditu mahai gainean enpresak 400 kVko Goi Tentsioko Linea egiteko: lehena Sakanatik Ezkio-Itsasora doa eta bigarrena Ultzamatik, Basaburua, Larrun, **Leitza**, Areso, Araitz eta Gipuzkoan barrena Ezkio-Itsasora.

Aurreko proiektuan Nafarroako Gobernuak Lizarraldeko herriak hornitzeko beharrezkoa zela esan zuen. Oraingoan, ordea, «aitzakiarik ere ez dute erabili beraien benetako asmoa tapa-

tzeko. Oraingo honetan argi eta garbi gelditu da linea berri hau AHTren energia eskaera handia hornitzeko izanen dela, izan ere, Euskal Herrian AHTren geltokirik haundiena Ezkio-Itsasora dago». Halaxe azaldu du Udalak. Proiektu honek 116 udalerritan izanen du eragina Nafarroan eta Gipuzkoan.

Goi Tentsioko linearen ezaugarriak zein diren ere aipatu du Udalak: «42-46 metroko altuerako dorreak, bata bestearengandik 400-500 metroko distantziara lau ormigoizko oinarriekin eutsiak, beraien artean 5,90 eta 10,14 metroko distantziarekin. Inguruan zuhaitzak landatu edota etxe eta industria azpiegiturak eraikitzea debekatua gelditzen da».

Leitzan, Tentsio Altuko Linea Erasote auzoaren gainetik pasako litzateke, Guratzeko mendi aldera Gorritzeneko belatso gainetik, eta hortik Aresora. «Proiektu honek Leitzako herriari, ezta gainontzekoei ere, ez dio inolako onura sozio-ekonomikorik ekarriko, baina ingurumen eta osasun aldetik ondorioak oso kaltegarriak izan daitezke».

Hala, Lizarraldeko proiektua geldiarazi zen bezala, «Leitzan proiektu honi aurre egiteko herritarren ezezik erantzuna garbia eta ozena izatea ezinbestekotzat» jo du Udalak eta osteguneko bilerara joateko deia egin du.

OSPAKIZUNAK → HERRIKO ELKARTEEN ESKUTIK

Berrikuntzekin ospatuko da abenduarien 3an Euskararen Eguna

Herriko
aldizkariaren
eta ahozko
ondarearen
aurkezpena
eginen da
goizean

Herri bazkaria
ere eginen da
bertsolariekin

Juana Mari SAIZAR

Aurtengoan hainbat
berrikuntzekin heldu zaigu
Euskararen Eguna.
Abenduaren 3an ospa-
tuko da eta herriko hain-
bat elkarteren partehar-

tzearekin herritar guzti-
entzat zuzendutako egi-
taraua osatu da. Beraz,
animatu eta ongi pasa!
Hona hemen zein izan-
go den egitaraua:

- 11:30ean udaletxea-
ren goiko solairuaren
inaugurazioa egingo
da. Bertan, Aresoko al-
dizkariaren eta ahozko
ondarearen aurkezpe-
na egingo da.
- 12:00etan haurren-
tzako jokoak izango di-
ra.
- 14:00etan herri bazka-
ria eginen da bertso-
lariez alaitua.
- 17:00etan haurren-
tzako talo tailerra
eginen da.
- 18:00etan taloak izan-
go dira denentzat.



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

Euriak hainbat kalte eragin ditu herrian

Pasa den azaroarne 6ko euriteak herriko zenbait etxe eta zelai astindu zituen. Lur jauzi asko eragin zituen eta errepidea itxita geratu zen ur balsa zela eta. Etxeei dagokienez, Kortatu eta Zubidi izan ziren larritasun gehiena pasatu zutenak, eta kalte gehienak, berriz, eskolan izan ziren. Beheko solairuan ur asko sartu zen eta horrela bertako hainbat material galduta geratu dira, hala nola, eskuliburuak, puzzleak, ordenagailu bat... Bestalde, pareteko zokaloa eta udan berritu den gelaren lurra ere altxatzen hasi zen hezetasunarekin. Komunikabi-
deetan ere agertu zen Areso, prezipitazio gehien egin zuen herrietako bat izan zelako, eta diotenez, badira 26 urte herrian antzeko zerbait ikusi ez zela.

can
proiektu
zenbakia
15.996

ttipi-ttapa

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari

CASA OSTIZ

%10
DISKONTUA
konexioarekin

APARAN, S.A.
ERRINDOLALA eta ZURAK

Metamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzimerak
Ate amuntak eta sukaide mobleendakoak
Pintura eta bernizak
Bainurako mobleak eta osagariak
KIT mobleak: esku-erremintak, etabi

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

GIZARTEA

HONDAKINAK → PREBENTZIORAKO EUROPAKO ASTEA

Hondakinen prebentziorako ekimenak landuko dira aste honetan

Gaiari buruz film bat eskainiko da Donezteben eta Elizondon

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 19az geroritik Hondakinen Prebentziorako Europako Astea egiten ari dira hainbat tokitan, eta hilaren 27ra arte horrela izan da. Hondakinen Prebentzioaren kontzeptua ezagutzera ematea da helburua eta horrekin batera, hondakinak eta horien eragina murriztea. Izan ere, sortzen den hondakin kopurua altua da, egunean 1,2 kilo zabor sortzen baititu bakoitzak. Nafarroak, erraterako, 641.293 biztanle ditu eta 769.550 kilo hondakin sortzen dira egunean.

Europar Batasunak finantzatutako proiektua da kanpaina hau eta Nafarroan, Landa Garapen eta Ingurumen Sailak sustatu du CRANA baliabideen zentroaren bidez. Eskualdeko hondakinen Mankomunitateek ere bat egin dute.

Europar Astearen harira, hainbat ekimen paratu dira martxan: janari hondarrekin sukaldeko errezeta tailerrak, zi-

nema-hausnarketa saioak... Horrez gain, Nafarroako Gobernuak *yo-nolotiro.es* webgunea ere estreinatuko du, bererabilpena sustatu eta zaborrontzietara bota ordez, trukatu, saldu edo oparitzeko proposatuz.

Zinema-hausnarketa saioen barne, ortziral honetan, azaroak 25, *Glup* filma ikusteko aukera izanen da Doneztebeko zinemaren, Malerreka Mankomunitatearen eskutik, 17:00etan. Eta biharamunean, hilak 26, film bera ikusteko aukera izanen da Elizondoko Jorge Oteiza Museoan, Baztango Udalak antolatuta, 17:00etan.

PREBENTZIORAKO ZER?

Hondakinen prebentziorako neurriak ere proposatu dira: ontziratu gabeko produktuak erosi, txorrotako ura edan, telazko mukizapi edo eskuoihalak erabili, erabiltzen ez dena oparitu edo trukatu, produktuak bererabili, bigarren eskuko dendetan erosi... Honela, poltsikoan ere aurrez daiteke: Frantzian egindako ikerketa baten arabera, lau laguneko familia batean irizpide horiekin, urtean 512 euro aurrez daitezke pertsonako.

ERREZETAK → NOLA ATERA HIRU PLATER OSAGAI BERETIK ABIATUZ

Haragi zopa barazkiekin, haragia saltsan eta kroketak



Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatearen eskutik, **Iñaki Pikabea sukaldari beratarrak** janariari ahalik eta probetxurik haundiena ateratzeko errezetak prestatu ditu.

OSAGIAIAK

- 1/2 kilo txankarra hezur eta guzti
- 150 gramo oilo haragia
- Azenario bat
- 50 gramo garbantzo
- perrexila adarrean
- tipula bat
- 2 arraultza
- 150 gramo pasta fideo motakoa
- gatza

ERREZETAK

Txankarra (aretzearen belaunetik behera doan zatia) bere hezur eta guzti litro bat eta erdi inguru urez estali eta bertan azenarioa zuritua eta erdibitua, garbantzuak, perrexil adarrak (4 edo 5 bat) jarri eta su bizian utzi irakiten hasi arte. Sua jeitsi eta bitartean, tipula xerratan ebaki eta zartagin bero batean gorritzen paratu bi aldeetatik. Behin gorritua dagoeanean, lehengo saldaren ontzira eraman, arraultzeekin batera, kolorea hartu dezan bukaerako **zopa** izanen denak. Motel-motel egosten utzi ordu eta erdiz eta ondotik, iragazi garbi gelditu dadin eta sutan jarri; gatza bota behar adina eta fideo gisako

pasta ere bai, eta egosten utzi hamar bat minutuz. Bukatzeko, arraultza bat zuritu eta zatitan moztuta zopari nahastu eta egosita gelditu diren garbantzuak ere olio berotan prijitu kurruskari gelditu arte eta zopari laguntzeko ondoan zerbitzatu.

Txankarrarekin, hezurra alde batera utziko dugu eta haragia bertze batera. Tipula bat, azenario erdi bat eta bi baratxuri ale ongi erregosi eta hezurra bertan bota. Edalontzi bat ardo txurirekin busti eta bi minutuz egosten utzi ondotik, ura bota tapatu arte eta ordu batez egosten utzi nahaskia. Hezurra bertatik atera eta pasapurean edo puregailuan iragazi. Berriro irakin, gatz puntua probatu eta haragia zatitan moztu ondotik bertara gehitu. Onddo eta ilarbila gustatu ahala gehitu eta guztia hamar minutuz elkarrekin egosi. **Haragia saltsan** prest izanen dugu.

Gelditu den oilo haragiari azala kendu eta zati txikitik ebaki. Bexamela prestatu gurina eta olio erabili, 75 g denetara, 60 g irina eta litro erdi esne bero. Gatza eta piper xuri hautsa gehitu eta oilaskoa nahasi. Gelditzen zaigun arraultza egosia ere zatitu eta nahastu eta york urdaiazpikoaren 50 g fin ebakiak ere bai. Hozten utzi eta irina, arraultza eta ogi birrindutik pasa forma borobila emanaz eta **oilasko kroketa** sorta bat egin.



AMAIUR → SOKATIRAN

Euskal Herriko Sokatira Txapelketan hiru talde aurkeztu ditu Amaiurrek

ARGAZKIA: LEGARRA
Amaiurko sokatira talde mistoa Nafarroako txapelketan lanean, hiru emakumezko eta hiru gizonezkoek osatua.



Larunbat honetan hasiko dira Euskal Herrikoan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Goma Gaineko Sokatira Txapelketan murgilduta daudenean, Euskal Herrikoari ere ekinen diote Amaiurko sokatira taldeek larunbat honetan, azaroak 26. 320, 300 eta 260 kiloko txapelketak izanen dira eta Amaiurkoek 300 kilokoan parte hartuko dute. Hiru talde osatu dituzte.

Kategoria horren barne, hiru jardunaldi jokatuko dira eta larunbat honetan Ibarren (Gipuzkoa) jokatuko dena lehendabizikoa izanen da, 17:00etan. Abenduaren 4an, igandea, bigarren saioa jokatuko dute Berriozarren (Nafarroa), 12:00etatik aitzinera, eta azken saioa abenduaren 17an Arrankudiagan (Bizkaia) egingen da, 17:00etan.

NAFARROAKO AZKEN SAIOA IGANTZIN

Abenduaren 3an Nafarroako Goma Gaineko Sokatira Txapelketako laugarren eta azken jardunaldia jokatuko da Igantzin. 600 eta 390 kiloko kategorien bigarren eta azken jardunaldiak jokatuko dira eta 600ekoan Amaiurkoak ariko dira. 17:00etan hasiko da lehia. Igande honetan, azaroak 27, bi maila horietako lehendabiziko jardunaldia jokatuko da Berriozarren, 12:00etan.

BAZTAN

GIZARTEA → EUSKARAREN EGOERA

Hizkuntza paisaiaren behaketa eginen du Euskara Batzordeak

Bi hizkuntzak ageri direla ziurtatu nahi da horrela

TTIPI-TTAPA

Baztango Euskararen Ordenantzekin bat eginenez, Udalarekin lotura duten eraikinetan eta herritarrek parte hartzen duten tokietan hizkuntza pasaia nolakoa den errepazteari ekinen dio Euskara Batzordeak. Hala, igerilekuan, liburutegian, zahar-etxean, musika eskolan edota hiltze-gian kartelak, afitxak eta orriak zein hizkuntzatan dauden ikusiko da. Aipatu tokietan bi hizkuntzak ageri direla segurtatzea da helburua, eta hala ez balitz, aldaketak eginen lirakeke euskara ere ager dadin. Bertzelako tokietako hizkuntza paisaia nolakoa den ere ikusiko du Euskara Batzordeak: karriken izenak, obretako kartelak...

Euskara Batzordearen hurrengo bilera ortzegun honetan, hilak 24, egitekoa da Udaletxean, 18:00etan.

NEKAZARITZA BATZORDEA

Nekazaritza Batzordeak azaroaren 30ean eginen du hurrengo bilera. Hilabete hasieran egin zuen aitzinekoa, eta hiltze-gia izan zen gai nagusia. Hilaren 30ko bilkuran ere hiltze-giaren aferezaz eta ahal bada luberrietaz solastuko dira.

Aste digitala

Cederna Garalur Elkartearen IKT autobusa Elizondon izanen da aste honetan, azaroaren 21etik 25era, teknologia berriak herritarrei hurbiltzeko asmoz, «egunero bizitzan erabiliz horien onurak jaso ditzaten eta hartara, jarrera aktiboa izan dezaten informazioaren gizartean». *Aste digitala zure udalerrian: klik batekin aski da izeneko proiektua astelehenaz geroztik Elizondon dago eta ortziralera arte hor egonen da.*

Jendearentzako arreta zerbitzua eskaintzen ari dira astelehenetik ortzegunera (10:00-13:00 eta 14:30-17:30).

Arreta zerbitzua eskainita, ortziraletan, azaro



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Uholdeen eragina ez dela hondamendi eremu izendatzeko hainakoa uste du Nafarroako Gobernuak

Azarako lehendabiziko asteburuan hainbat kalte eragin zuten euriak eta uholdeek gure inguruko herrietan. Eta azaroaren 8an, kalte horietako batzuk ikuskatzera Baztanera etorri zen Jose Luis Izco, Nafarroako Gobernu Toki Administrazio departamentuko zuzendari nagusia, teknikari baten laguntzarekin. Kalteak ez direla hondamendi eremu izendatzeko hainakoa aipatu zuen. Baztanen kaltetutako pistak ikusten izan zen zuzendari nagusia, Garbiñe Elizegi alkatea, Mikel Ortega zinegotzia eta basozainak lagun zituela. Erratzun, Xabier Ospital alkatearekin bat egin eta Untxide auzora hurbildu ziren. Aranea errekek pista hondatu du eta bortz baserritarra ailegatzea ezinezkoa da. Gorostapolon ere, hainbat kalte eragin zituen urak eta hori dela eta laguntza eskatu zuen Elizegi alkateak. Egun berean, Baztango udal ordezkariak ez ezik, Lesaka, Leitza, Goizueta eta Zugarramurdikoekin ere bildu zen Jose Luis Izco. Izan ere, 2009ko uholdeen ondorioz dirulaguntzak izanen zirela hitz eman zen Nafarroako Gobernutik, baina ez ziren udal-letxetara ailegatu. Hori ez errepikatzea espero dute udal ordezkariak, baina errandakoa, Nafarroako Gobernuak ez du hondamendi eremu izendatzeko eskualdea.

roak 25, tailerrak eskainiko dira. Alde batetik, *Ziurtagiri digitala eta NA*-e izeneko tailerra eskainiko da 10:30etik 11:30era eta bertzetik, *administrazio elektronikoa*ri buruz ariko dira, 12:00etatik 13:00etara. Ikastaroetarako aitzinetik eman behar da izena.

Gizarte Zerbitzuen bulego berria

Baztango Udaletxeko Gizarte Zerbitzuetako bulegoak ordutegi berria izanen du abenduaren 1etik aitzinera.

Bulego hau udaletxeko beheko solairuan

dago, kanpoko aldetik ere badu sarrera, lehenagoko karnetak egiten ziren aldean, hain zuzen.

Jendearendako harreraren ordutegia 09:30etik 13:00etara izanen da, ortzegunetan izan ezik, egun horretan gizartelargilea Urdazubiko udaletxean egonen baita. Norbaitek hitzordua hartu edo kontsulta egin na-

hi badu, 07:45etik 09:30etara eta 13:00etatik 15:00etara dei dezake.

Liburu aurkezpena

Auzolanaren kultura liburu argitaratu du Jasone Mitxeloren eta xarlarrak eta liburu hori aurkeztera etorriko da ortziraletan, azaroak 25, Elizondoko Gaztetxera. 20:30ean hasiko da.



DIANA INIESTA BENEIMETO
Berebizitza eta irakurketak

Nork ez du inoiz laguntzarik behar izan?
Berebizitza eta irakurketak

Aste guztian zehar, haur eta helduentzat margo tailerrak (ordutegi esberdinak)
<http://dianainiesta.blogspot.com>
659 946 926 - 948 453 478

UDALA → INGURUMEN BATZORDEAREN PROPOSAMENA

Baratzeak egiteko lurra eskainiko du Udalak

Baratzerako lurra nahi bada, udaletxean apuntatu behar da

TTIPI-TTAPA

Lur eremurik ez du-ten eta baratzea egin nahi duten baztandarrentzat, kanpaina zabaldu du Udalak, Ingurumen Batzordeak proposatuta. Lurrik ez duten herri-tarrei aukera bat ematea da helburua, eta hortaz, norbaitek baratzerako lur zati bat nahi badu, udaletxean eman behar du izena. Izen-ematerakoan, lur eremua zein herritan nahi duen zehaztu behar-ko da eta zertarako nahi den ere bai, autokontsumorako, salmentarako... Abenduaren 13an akitu-ko da horretarako epea.

Behin izena emateko epea itxita, horren arabera zehaztuko da lurren kokapen egokia.

Almandozko harrobia

Almandozko Arritxu-ri harrobia haunditzeko eskaerari baiezkoa eman dio Nafarroako Gobernu-ko Ingurumenaren eta

Uraren zuzendari nagusiak. Erauzketa eremua haunditzeko eta sarbide berriak egiteko baimena eskatu zuen Atxa Harrobiak enpresak eta horri eman zaio aldeko txosten. Gisa honetara, harrobia haundituta ukitu-ko den azalera 67.995 m²koa da eta harrobiak gaur egun duen azalera (128.858 m²) gehituta, 196.854 m²ko azalera edukiko luke guztira.

Onartutakoaren arabera, erauziko den materialaren bolumena 2.082.000 m³koa izanen da eta bolumen hori 30 urteko epean aterako da, zazpi fasetan banatuta. Fase bakoitzean harria ateratzen hasi aitzinetik, ahalik eta landare lur gehiena kenduko da eta baimendukota perimetroaren barnean pilatu beharko da. Lur hori fase bakoitza lehengoratzeko erabili beharko da. Dekantazio putzuen mantentze lanak ere al-dizka egin beharko dira eta metatutako lohiak kenduko dira behar den guztietan. Horrez gain, isuritako uren kalitatearen analisia ere egin beharko da, guttienez sei aldiz urtean eta euriteen ondotik.



ARGAZKIA: ONDIKOL

San Martin kolegioko ikasle ohiek egoitza inauguratu dute

Oronozko San Martin Lanbide Eskolako ikasle ohiek bere ikastetxea izan zenean kokatutako egoitza berria estreinatu zuten San Martin egunez. Zuzendaritzako ki-deekin batera, Florentino Goñi zinegotzia izan zen inaugurazio egunean. Maribel Almandozek, San Martin ikastetxeko ikasle ohien elkarteko lehen presidentea izan zen Evaristo Gonzalezen alargunak, erakunde honen dokumentazio historikoa eman zien egungo batzordekideei. Hain zuzen, zuzendaritza batzordeak bilera ere egin zuen egun berean eta eskerrak eman zizkioten Udalari egoitza uzteagatik eta Florencio Lasaga ikasle ohiari, instalazio horien ekipamendua emateagatik.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE OTEIZA


Simply Iruritako eskolako Guraso Elkartearekin

Iruritako eskolan ikasturtea martxan paratzearekin batera, jantoki berria ere bere lehendabiziko pausoak ematen hasi da. Hiru urte Gizarte Bilgunean pasatu ondotik, dagoeneko ikasleek eskolan berean jantokia badute. Aunitz borrokatuta, ametsa egi bihurtu da, eta akabailako prozesu honetan Simplyk ere parte hartu nahi izan du. Ama iruritarra, aita erratzuarra, Pierre eta Estebanek haurtzaroko herrirat itzuli eta jantokirako beharrezkoa den tresneri guztia oparitu dute. Argazkian Guraso Elkartearen kideak eta Simplyn lan egiten duten iruritarrak, oparia ematerakoan.

ARGAZKIA: ONDIKOL

Asiar liztorrak

Elizondoko Ormakogibela inguruan, platanondo batean, Asiako liztorraren kabi handia agertu da, etxebizitzetatik hurbil. Bizilagunek Nafarroako larrialdi zerbitzuetara abisua eman eta hemendik Ingurumen Sailari eman diote horren berri, kabia erretiratzeko. Erlearendako arras kaltegarria den liztor hauen Elizondoko kabiak 60-70 zentimetroko luzera eta 50-60 zentimetroko diametroa dauka.



CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santillana, 39 2G | ELIZONDO
T. 948 581 441 M. 630 364 811

URDAZUBI

OSTALARITZA → ABENDUAREN 2RA ARTE

Kontsumizioa eskatuz pintxoa doan emanen dute Dantxarineako ostalariek

Kanpaina berria paratu du martxan Ostalaritza eta Merkataritza Elkarteak

TTIPI-TTAPA

Dantxarineako merkataritza indartzeko eta bezeroen fidelitasuna saritzeko asmoarekin, kanpaina berria paratu du martxan Dantxarineako Ostalaritza eta Merkataritza Elkarteak. *Pintxo baten gonbidapena* izena paratu diote kanpainari eta azaroaren 9an aurkeztu zuten. Elkarteko presidentea den Txomin Iribarrenek azaldu zuen zertan den ekimena.

Ekimen honi atxikita dauden hamar establezimenduetako batera

joatean eta bezeroek kontsumizioa eskatzerakoan, pintxo bat lortuko dute dohainik. Josenea gasolindegia, Landibar, Mikelen-borda, Agus benta, Iriarte benta, Lapitxuri benta, Pako benta, Pantxo benta, Patxi benta eta Peio benta dira ekimen honetan parte hartzen ari direnak.

Abenduaren 2ra arte asteazken, ortzegun eta ortziraletan egonen da indarrean kanpaina.

Larunbatean Kantu Zaharren Eguna

Iragarri bezala, larunbat honetan, azaroak 26, egingen da Kantu Zaharren Eguna, aurten goarekin zortzigarren aldiz. Eta azken urteetako ohiturari segituz, Ugarana jatetxean egingen da.



ARGAZKIA: ALFIL PUBLIZITATE AGENTZIA

Txomin Iribarren merkatarien elkarteko presidentea azaroaren 9an aurkeztu zuen kanpaina.

DATUA

350

LAGUN

bildu ziren joan den urtean Euskal Kantu Zaharren Egunean.

14:00etan bazkaria egingen da eta kantu zaharrekin egindako liburuak banatuko dira. Arratsaldean kantu zaharrak abesten ariko dira eta 20:00etan berendu afaria egin ondotik, kantari segituko du jendeak.

Aitzineko urteetan egun honek izaten duen arraskasta ikusita -joan den urtean 350 lagun elkartu ziren-, seguru aurten ere giro ederra sortuko dela.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MARGARI ETA KORO

Onddo aunitz

Urdazubi alderdian onddo dezente agertu dela egiaztatzeko, hortxe ditugu Paul eta Pablo Irazoki, 510 eta 405 gramoko onddoak eskuetan. Mahain gainean daudenak ere, xarmantak.



ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → ASIAKO LIZTORRA

Erleei erasotzen dien Asiako liztorra ailegatu da gure artera ere

Etxeberri
aldean kabi
haundia agertu
da

Margari eta Koro

Badakigu jadanik Asiako liztorren arazoa ez dela notizia, zoritarrez, aunitz hedatua baitagure inguruan. Baina guri harrituak utzi gaitu Etxeberriko gibealeko aldeko geltxaur-ondo batean agertu den liztor-kabi animaleak: ia-ia egongela bateko lanpara bat bezain haundia zen, eta zuhaitzaren gaineko aldean zegoen.

Hostoak erori direnean agertu da, eta eskolatik franko hurbil zegoenez, segidan abisua

eman zen, eta suhiltzaileak agertu ziren. Hauek ederki egin zuten beren lana: soplete gisako batekin su eman eta kixkaili egin zuten *Vespa velutina Nigrithorax* deitzen den liztor

beltz honen kabia.

Liztorhonek hementengo erleak banan-banajan egiten ditu.

ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI
Liztor beltzaren kabia erre egin zuten suhiltzaileak.



Urrutiko bisitariak herrian

Azaro hasieran bisitari bereziak izan genituen herrian: Europa, Amerika, Asia eta Ozeaniatik etorritako ehun euskaldun. Guztiak Donostiako Kursaal-
en ospatu zen Euskal Gizataldeen V. Mundu Batzarrean parte hartzerat etorriak ziren, eta lan horietan hasi baino lehen, Zugarramurdiko lezeak eta museoa ezagutzerat etorri ziren. Lezeko haunditasunak harritu egin zituen gehienbat, eta ekarri zuten sorginei buruzko estereotipoa arras aldatu zitzaizen museoa ikusi ondotik, Zugarramurdin eta inguruko herrietan egiazki gertatukoaren istorioa ezagutu ondotik.

60
Casa Cambra
Zure erosketarengatik
urteurreneko oparia

Edredoi fundak eta nordikobetan espezializatuak
edredoi fundak · edredoi nomillkoak · ohe estalkiak · albornoak
maindireak · mantelak · kaxinak · toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

SENPERE

GIZARTEA → MATHIEU LANBANDIBARREN LANAK IKUSGAI

Ibarrunen dauden Indonesiako altzariak Miarritzen erakutsi dituzte

Lau egunez
18 731 bisitari
pasatu dira
feriatik

Franck DOLOSOR

Miarritzeko Irati era-kustazoka berrian herriar frango ibili da azken egun hauetan bertan berriki ospatu diren zonbait ferietan, hauen artean Lurruma laborantzaz saloia, eta baita ere edertasunaren hitz ordua edo Solutions Maison etxegintzaren inguruko azokan. Mathieu Lanbandibar ibarrundarra lehen aldikoz izan da Ipar Euskal Herrian egiten den gisa hortako feria haundien eta parada hortaz baliatu da TTIPI TTAPA harekin mintzatzeko.

• **TTIPI-TTAPA: zergatik parte hartu nahi izan duzu holako feria batean?**

Mathieu Labandibar: Hemen jende ainitz ibiltzen da, ehunka egun guziz eta garrantzitsua da hemen agertzea Indonesiatik ekartzen di-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

250 erakusmahaien artean Mathieu Labandibarrena ere zegoen Miarritzen. Ispiluaren barnean saltzaile senperrak ageri da lanean bezero bati informazio ematen ari.

tudan altzariak ezagutarazteko. Ibarrunen ari naiz lanean baina jendearengana joan behar da. Lau egunez 18 731 bisitari etorri dira feriatik.

• **TT: Baina feria hortan Euskal Herriko altzariak dira nagusi?**

ML: Bertzerik ere badela erakutsi behar da. Nik Indonesiako altzariak ekarrazten ditut. Kultura egurra da eta batzuetan egur birziklatuak ere baditugu. Garbi geletako altzariak pro-

posatzen ditut gero eta gehiago. Neurritz egindako piezak ekoizten ditugu bezeroen galdeei egokitu behar baitugu. Egia da Euskal Herrian etxe ainitz zaharberritzen dela eta beraz, neurritz egindako altzariak behar ditu jendeak. Behar dugu beti egokitu.

• **TT: Noiz hasi zinen lanean sail hortan?**

ML: Badirajadanik 5 urte abentura hau hasi zela! Teck egurra saltzen dugu gehien gehienik eta horrek bere tokia

egiten du pittaka-pittaka gure artean. Itxura ona du eta gainerat, kaltetate haundiak dauzka erresistentzia haundia diolako urari. Hastapean jendea harritua zen holako egurra hemen ikustea baina orain ikasten ari dira ez dugula bakarrik altzari exotikoa proposatzen. Guk linea modernoak eta garaikideak ere baditugu.

• **TT: Gustuak ere aldatzen direla...**

ML: Hori da. Tendentziak daude, modak se-

gitu behar dira, jakin behar da zer dagoen eta jendeak zer nahiago duen. Urte guziz berriak sunak dauzkagu.

• **TT: Zure lanak alde onik ere izanen du maiz Indonesiarat joan behar baituzu?**

ML: Ez ezazuela uste oporrek direnik gero! Jendeak hori uste du baina ez da arras hola izaten. Han dena prestatu behar da gero kontenedoreak ekarrazteko Europarat. Lana bururatzean bisitak egiten ditugu halere. Oreak ona da lan egitea batzuetan Senperen sorterrian eta bertzeetan munduan barna bidaiatuz. Biziki gustatzen zait biak ikustea. Etxean erakusgela bat badut zonbait altzariarekin eta bertzeak neurritat egiten dauzkigute. Garbi geletako altzarietan harrizko edo marmolezko piezak ematen hasi gara ura biltzeko.

Miarritzeko Solutions Maison azokaren 13. edizioa 2012ko urriaren 4tik 7rat ospatuko da Irati aretoan aireportuaren ondoan.

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun

(0034)948 63 54 58

LES ÉCHOS
DES ÉTAPES
CAFÉ DE LA MAIRIE
RUE DE LA MAIRIE
MONTAUDOT
SALA

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak - Nekazariek eta merke langileak - Nominak eta Aseguro Sozialak - Lan-Kontratatutako laguntzak - Enpresa berri ezberdinen sortzea	- Diru-laguntza ezberdinak - Kontabilitateak - IVA eta IRPF - Errenta alorpenak - Etiberritasun eta jarduera espedientiak - Bidegaitasun planak eta sumakortasun
--	---

www.artekari.com

LEZAKA: Silezio, 77. beheko - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLEATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

GIZARTEA → URRITASUNA DUTENEN ALDE

Telethonaren karietara Larrunera joan- etorria abenduarien 3an eginen da

Bezperan Xiba
jokoak eginen
dituzte neska-
mutikoek

Joana GUERENDIAIN

Heldu den abenduaren 2an eta 3an Telethonaren karietara, ekin tzak antolatutak izanen dira Saran. Abenduarien 2an, ortzirala, arratsaldean, hiru eskoletako haurrek Xiba jokoak eginen dituzte plazan. Biharamunean, berriz, larunbata, arratsaldeko 2etan hitzordua emana da Santinazioko lepoan Larrunera treinez

igotzeko eta hiruak eta laurdenean jaustea oinez egiteko.

'Oroitzapenetik bidaiarat'

Joan den azaroaren 12an 360 pertsona hurbildu ziren *Oroitzapenetik Bidaiarat*-en azken emanaldira. Dantza, antzerki, kantu eta bertusularitza nahasten dituen ikusgarri original horrek arrakasta polita izan du, baina ez da bertze emanaldirik izanen. Oroitarazi behar da irabaziak osoki integrazio Batzordeari emanak direla. Ikusgarri honek ukan



ARGAZKIA: JOANA GUERENDIAIN

Kotto beti gogoan

Kottoren omenez, azaroaren 1ean saratar eta beratar multzo polit bat elkartu zen Zazpi Fagotan. Bakoitza bere alde igan zen eta 11:00etan gosari batentzat elkartu ziren Larrunen. Kotto euskal preso bat zen, duela sei urte zendu zena presondegian. Lagun talde batek harri bat ezarri dute, haren oroitgarri gisa Larrungo mazelean eta urtean behin harat igotzen dira omenaldia egiteko.

duen arrakastak agian bertze kreaioak bul-tzatuko ditu.

Olentzero

Eguberriak hurbiltzen ari direla eta, abenduaren 17an Olentzero Sarara jautsiko da haurren ikustera. Haur guztiak plazan itxoinen diote. Arratsaldeko 6etatik landa, herrian barna itzuli bat egin eta gero,

kantu batzuk kantatu-ko dizkiote.

Azoka larunbatean

Herriko eskolen eskutik, Eguberrietako azoka izanen da larunbatean, hilak 26, egun osoz frontoian.

Kirol emaitzak

Azaroaren 5 eta 6ko asteburua txarra izan zen gure kirolarientzat.

Eskubaloi taldeak galdu egin zuen etxean Urruñaren kontra 17-23 eta errugbilariek 10-3 galdu zuten kanpoan Narosseko taldearen kontra. Aldiz, azaroaren 13a arrunt ona izan zen. Urtxintzek joko eder bat erakutsi zuten Senpereren kontra, 16-18 irabaziz. Basurdeek 55-0 irabazi zuten Puyoo-ko ekiparen kontra.

ibardin gaina, 30
BERA
T. 948 630 709
www.beola-etxea.com

BEOLA-ETXEA

✓ supermerkatoa / bar / jatoka /
/ liburutegia / moda /

EGUBERRIETAKO PROMOZIOA
abenduarien 3tik 11ra

%25 eko deskontua
arropa eta oinetakoetan

"Promomodan" eta gure marketan:
Bench, Imanol Marinorizoguy, Bete Bar,
Amabillo Union, IIG-512 eta Smash

PROMOZIOA
EGUBERRIAK



SORTZEAK

Enara Urrutia Opoka, Amaiurkoa, urriaren 28an.

Cristina Ordoñez Gomez, NARBARTEKO, azaroaren 4an.

Yera Arantzazu Salaberria Zabala, Goizuetakoa, azaroaren 4an.

Ireber Indakoetxea Mendizuri, Goizuetakoa, azaroaren 7an.

Julen Canal Artola, Lesakakakoa, urriaren 28an.

Aiora Goienetxe Zubieta, Lesakakakoa, urriaren 28an.

Olaia Goienetxe Zubieta, Lesakakakoa, urriaren 28an.

Aritz Iparragirre Alberdi, Arantzakoa, azaroaren 3an.

Irantzu Otxoteko Bengoetxea, Etxalarkoa, azaroaren 11n.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

EZKONTZAK

Ekaitz Berges Delgado eta **Miren Josune Txoperena Eneterreaga**, Donostia eta Lesakakoa, urriaren 29an Lesakan.
Maidar Berges Serrano eta **Miren Iturri Arrazola**, Irungoa eta Donostiakoa, azaroaren 5ean Lesakan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Txaro Agirre Azpiroz, Leitzakoa, azaroaren 8an, 64 urte.

Maria Matilde Etxeberria Telletxea, Igantzikoa, azaroaren 8an, 89 urte.

Juan Etxenike Sagarzazu, Zugarra-murdikoa, azaroaren 11n, 81 urte.

Maria Zozaia Igoa, Lesakakoa, azaroaren 12an, 89 urte.

Maria Lourdes Sagaseta Ariztegi, Lesakakoa, azaroaren 12an, 75 urte.

Maria Paz Irigoien Zugarramurdi, Iru-ritakoa, azaroaren 13an, 95 urte.

Felipe Mendioroz Lukin, Elizondon, azaroaren 14an, 81 urte.

Juan Pedro Mihura Maskotena, Oronoz-Mugairikoa, azaroaren 16an, 76 urte.



Iñaki MARTIN ESKUDERO

I. URTEURRENA

Bera, 2010eko azaroaren 27an

Atta, badakit zauden lekutik laguntzen diguzula,
eta zu ikustea ezinezkoa bada ere,
ziur nago gure artean zaudela.
Jakín ezazu betirako gure bihotzean egongo zarela,
Inoiz ez zaitugula ahaztuko.
Muxu haundi-haundi bat
amatxo eta nire partez.

ZURE ALABA ETA EMAZTEA



Anttonio SAGASTIBELTZA ZABALETA

Leitza, 2011ko urriaren 27an

Bedeinkatua izan dedila
zu joan zinen eguna,
ttikitatikan zure magala
in zitzaigun ezaguna;
familiarantzat eunero-eunero
lanean gogor jarduna;
harmonikakin bertso kantari
argitzen zihun iluna;
eman diguzun guztiagatik
eskerrikasko attuna.

ETXEKO FAMILIA



Victoria HITA ARCE 'Bittori'

Alejandro Jaunikotena Torresen alarguna

VII. URTEURRENA
Cancunen (Mexiko) hil zen, 2004ko azaroaren 27an

Ez agurrik, ez adiorik
gero arte baizik.
Gure bihotzetan betiko
maite zaitugu amatxi.
Gogoan zaitugu.

ZURE FAMILIA

ARPANA → ALDATZEN JOKATU DA TXAPELKETA

Bi etxalartar Nafarroako 2. mailako arpana txapelketan estreinatu dira

Marka eginez
Kañamares eta
Eugik irabazi
dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako bigarren mailako arpana txapelketa azaroaren 13an jokatu zen Aldatzen eta lau bikote aritu ziren nor baino nor.

Txapeldunak Julen Kañamares (Berriozar) eta Mikel Eugi (Beunza) izan ziren. Ikusgarri aritu ziren biak, lana 4 minutu eta 34 segundoan egin baitzuten, marka berria ezarriz.



ARGAZKIA: NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

Danboriena eta Gallardon etxalartarrak arpanean.

Bigarrenak Alberto Oteiza (Larrageta) eta Adrian Berruezo (Ibero) izan ziren (07:17); hirugarrenak Oier Aizkorbe

eta Eder Goldarazena (Berriozar) izan ziren (08:35), eta eskualdeko ordezkari bakarrak, Xabier Gallardon eta Aitor

Danboriena etxalartarrak laugarren (10:55). Txapelketan parte hartu duten lehen aldia izan da etxalartarrentzat.

AIZKORA → LEHENBIZIKO ALDIZ JOKATU DA SARIKETA

Aizkolari gazteen San Martin sarian Etxeberria eta Zabaleta aritu dira

Iker Vicente
otsagabiarrak
irabazi du
sariketa

TTIPI-TTAPA

Nafarroako bigarren Mailako Arpana Txapelketa batekin batera antolatzen zen Aldatzen, azaroaren 13an, eta lehen aldiz, Aizkolari Gazteen San Martin Saria.

14-15 urteko hiru aizkolarik hartu zuten parte eta bakoitzak bi proba egin behar izan zituen. Alde batetik, 45 ontzako enbor bat abiaduran moztu eta bertetik, 45 ontzako hiru



ARGAZKIA: NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

Ezkerretik hasita, Zabaleta, Vicente eta Etxeberria, azaroaren 13an Aldatzen.

enbor ebaki abiaduran.

Bi probetako denborak batuta, Iker Vicente-arentzat izan zen txapelak. Bi saioetan nagusi izan zen Otsagabiakoa.

6 minutu eta 50 segundo behar izan zituen bi probak egiteko. Bigarren postua Zigako Jo-xean Etxeberriarentzat izan zen, eta honek 8

minutu eta 15 segundo denbora egin zuen. Hirugarrena Mikel Zabaleta leitzarria izan zen. Lanak 9 minutu eta 2 segundoz egin zituen.

LASTERKETA

Eskualdeko
194 lagunek
egin dute
Behobia-
Donostia
lasterketa

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko euria eta hotza alde batera utzita, eguraldi onarekin egin zen azaroaren 12an Behobia-Donostia lasterketa ospetsuaren 47. edizioa. Aurten 23.400 lagunek eman zuten izena, inoiz baino gehiagok, baina horietatik 19.877 aterra ziren 20 kilometroko ibilbidea egitera eta 19.675 lagunek bukatu zuten. Helmu-garatu zirenen artean, 194 eskualdekoak izan ziren, iaz baino 26 gehiago. Batez ere emakumezkoen partehartzean izan da gorakada. Joan den urtean, eskualdeko 29 emakumezko ateraziren lasterketan eta aurten 48 izan dira. Gizonezkoetan, berriz, joan den urtean 139 izan ziren eta aurten 146.

Herriz-herri, hona hemen partehartzea herri bakoitzetik: **Arantza** 11, **Baztan** 34 (**Amaiur** 3, **Aniz** 3, **Arizkun** 5, **Elbete** 1, **Elizondo** 16, **Gartzain** 1, **Irurita** 3 eta **Lekaroz** 2), **Bera** 36, **Doneztebe** 11, **Elgorriaga** 2, **Etxalar** 7, **Goizueta** 4, **Igantzi** 14, **Ituren** 2, **Leitza** 19, **Lesaka** 25, **Narbarte** 3, **Sunbilla** 8, **Urdazubi** 2, **Urroz** 3, **Sara** 6 eta **Senpere** 7.

azaroak 25-abenduak 15

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak  URDAZUBI 2011.11.26 Kantu Zaharren Eguna zortzigarren urtez Ugarran Ehunka kantuzale bilduko dira larunbatean Kantu Zaharren Egunean. Bazkaria, bazkalondoan eta berendu afaria kantuz lagunduko dituzte.	Ospakizunak  IGANTZI 2011.12.07-11 Ekitaldiz gainezka datoz aurten ere Kultur Eguna Antzerkia, musika, bideo eta zine emanaldiak, sukaldaritza ikastaroa, bizkotxo lehiaketa eta abenduaren 8ko erakusketa igantziarren afizioei buruzkoa.	Kontzertuak  BERA 2011.11.26 Fermin Iraola zenari omenaldia rock gauaren bidez Larunbat honetan gaztetxean omenaldia eskainiko zaio gaztetxean Fermin Iraola zenari. Hainbat talde ariko dira, tartean Petti eta Mugaldekoak.
--	--	--

Erakusketak

ELIZONDO

Xabier Celestinoren margolanak

Azaroaren 23tik urtarilaren 9ra Xabier Celestinoren margolanen erakusketa Arizkunenean, astelehenetik ortziralerara.

BERTIZ

Diana Iniestaren margolanak

Azaroaren 4tik abenduaren 22ra Diana Iniestaren *Presentimientos* margo erakusketa Jaurerriko Natur Parkean. 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 17:30era.

LEITZA

Guatemalako argazkiak Peritzan

Mikel Zabaletak Guatemalako indigenei ateratako argazki erakusketa zabalik da Peritzan.

LESAKA

Beti Gazteko argazki lehiaketako lanak

Azaroaren 30a arte ikusgai daude Beti Gazte elkartearen argazki lehiaketara aurkeztutako 105 argazkiak.

Ospakizunak

IGANTZI

Kultur Eguna

Abenduaren 7tik 11ra hainbat ekitaldi antolatuta ditu Euskara Batzordeak. Abenduaren 8ko erakusketa igantziarren afizioei buruzkoa izanen da aurten. Xehetasunak 43. orrian.

ITUREN

Kultur Eguna

Abenduaren 2, 3 eta 11n Antolatu ditu Ibin-tza Kultur Taldeak. Xehetasunak 46. orrian.

URDAZUBI

Kantu Zaharren Eguna

Azaroaren 26an eginen da Ugarran ja-tetxean Kantu Zaharren Eguneko zortzigarren edizioa. Xehetasunak 60. orrian..

Lehiaketak

BERA

Bortzirietako haur eta gazteen ipuin lehiaketa

Abenduaren 2ra bitarte aurteztan ahal dira lanak Berako Herri Liburutegian.

Feriak

GOIZUETA

Azienda feria

Azaroaren 26an feria ospatuko da. Bezperan, ilunabarrean, txondorra pizteko ekitaldia.

Kontzertuak

BERA

Musika entzunaldia

Azaroaren 26an musika entzunaldia antolatu du Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak 18:00etan.

Nafarroako Egunaren kontzertua

Abenduaren 3an Le-sakako Musika Bandak eskainiko du 13:00etan Kultur Etxean.

ELIZONDO

Nafarroako Egunaren kontzertua

Abenduaren 3an Elizondoko Banda Re-creo 13:00etan Arizkunenean.

LEITZA

Zea Mays Gaztetxean

Azaroaren 26an Zea Mays-en kontzertua Gaztetxean 22:00etan.

ELIZONDO

Folk Ametsetan

Abenduaren 4an Joseba Tapiaren saioa Arizkunenean (19:30).

Ikastaroak

LESAKA

Haur masaje tailerra

Azaroaren 2tik 30era Ama-aita-zaintzaileei zuzendua eta 1-12 hilabete dituzten ume-txoei. Asteazkenero 10:00etatik 11:30era Dasya zentruan.

ETXALAR

Blog-ak egiten ikasteko

Abenduaren 15, 16, 10 eta 20an blogak egiten ikasteko ikastaroa Kultur Etxean.

Ipuin kontalaria

BERA

Izaskun Mujika ipuin kontalaria liburutegian

Azaroaren 25ean Izaskun Mujika ipuin kontalaria liburutegian, 18:00etan.

Hitzaldiak

BERA

Emakumeen aurkako bortizkeria

Azaroaren 25ean Na-

PROPOSAMENA

GOIZUETA

Azienda Feria eguna, ohiturari eutsiz

Ostiral ilunabarrean txondorra piztuz abiatuko da aurten Goizuetako Azienda Feria. Hortaz, egun handian, larunbatean, ohiko ekitaldiez eta sorpresaz gain, egun osoan txondorra piztua egonen da, ikatza eginez. Herriko eskulangileen lana ikusteko ere aukera paregabea izanen da. Argazkian, Belako joa-regilea ageri da, kixki eta kaxka mailuarekin.



zioarteko Eguna dela eta *Familia mailako erasotzaileen programa*. *Erasotzaileen ezaugarriak* hitzaldia Joxean Etxaurirekin Beralandetan (18:00).

LEITZA

Nafarroaren konkista hizpide

Abenduaren 2an Nafarroaren konkistan, Leitzaldean eta inguruan izandako gertakizunez hitzaldia (19:30).

ETXALAR

Formazio tailerra

Abenduaren 2an heziketa sexualeko tailerra Kultur Etxean (18:00).

Kantaldiak

LESAKA

Donostia kantuz taldea Agiñan eta karrikan

Abenduaren 4an Donostia kantuz taldea eta parte hartu nahi dutenekin. 12:00etan Agiñan, Mikel Laboa eta Xabier Lete gogoan, bi abeslari hauen zenbait kanta abestuko dira. 13:00etan karrika buelta.

Antzerkiak

BERA

Trokolo Teatro

Azaroaren 26an Trokolo Teatroyen *Superheroinas* antzezlanak Kultur Etxean (19:00).

GOIZUETA

Bakarriketa Ganbaran

Abenduaren 3an *Buah Txabal!* Osoronen bakarriketa Ganbaran 19:00etan, 14 urtetik gorakoentzat.

Bertsoak


DONEZTEBE

Bertso afaria Gazte Burrunbaren eskutik

Abenduaren 10ean Igor Elortza eta Julio

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Xibertako aktak (1977)

ANAI ARTEA

Elkar, 2011

Xiberta toki historiko bat da. Alabainan, 1977-
an, sekretuki, han izan ziren PNVtik hasi ETAmilitarrerainoko Hegoaldeko talde eta alderdi aber-
tzale guzien elkarriketak. Telesforo Monzonek ant-
tolatu zituen. Euskal Herriaren ordezkariak bakar
eta sendo bat zuen eraikiarazi nahi, Madrilgo go-
bernu frankista berriarekin elkarriketatzen. Den-
bora haietan, Xibertako elkarriketa horien bilduma
batzuk argitaratu zituzten baina horiek zernahi ezta-
baida eta adierazpen oker sorrarazi zuten, han ager-
tu ziren desadostasunak eta azken porrota parte
hartzaile bakoitzak besteen gain jarri baitzituen.
Elkarriketa horien testu osoa Anai Artearen eskue-
tan zegoen zorbait denbora hauetan Xibertan se-
gitu zituen kazetari bati esker. Honi zizkion graba-
ketak emanak Monzonek idatziz jartzeko. Monzo-
nen heriotzaren 30garren urteurrenkari deliberatua
izan da *Xibertako akta* horien argitaratzea, bere iri-
tzia, jakin osoan, normahik egin dezan. Liburua es-
painolez, euskaraz eta frantsesez argitaratua da.

Musika



PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS & BONBERENEA TXARANGA

Bonberenea ekintzak,
2011

Erironka. Bonberenearen ibilbidea hitz batean la-
burbildu beharko bagenu, haxe da aukeratu-
ko gendukeena. Baita Bonberenea Txarangarena
ere, bere jaiotza berberetik erronkaz jositako ibil-
bidea burutu duen txaranga. Baina erronka guzti-
en artean, txarangen hirugarren diska hau izan
da handiena, Tolosako gaztetxeak eta Euskal He-
rriko pailazo ospetsuenek orain arte batera egin-
dako ibilbidea islatzen duena. Izan ere, 2002an ha-
sitako ibilbideak era naturak batean eskatu du den-
boraren poderioz horrelako proiektu bati aurre egi-
tea. 11 abestu eta 12 ipuintxo osatutako diska ho-
netan, txaranga urte hauetan egindako lagun au-
nitzek hartu dute parte. Pirritx, Porrotx eta Mari-
motots-en kanta ospetsuenak *Bonberenea* erara izan
dira prestatuak, txarangen hotsa pailazoen ahots
eta letrekin nahasiz.

Internet



Euskal Herriko kultur
agenda

WWW.EHAGENDA.INFO

Euskal Herriko kultur agenda osatu baten hutsu-
nea bete asmoz, *EHAgenda.info* webgunea sor-
tu du gazte talde batek eta urriaren 1etik aitzinera
webgune berria erabat erabilgarria da sarean. Proiektu
honek, kultur agenda bildu eta osatzea du hel-
buru, inongo irabazi asmorik gabe. Horregatik,
proiektu hau aitzinera ateratzeko, denen laguntza
eskatu dute, «antolatzen dituzuen ekitaldien berri
eskatuko genizuke». Horretarako, webgunean ber-
tan parte hartzeko atal bat bada norbere ekitaldiak
bidaltzeko eta nahiago izanen gero, *harremanak@ehagenda.info* helbidea erabiliz jarri
daiten harremanean. Behin webgunean sartuta,
ekintzak herrialdeka, herriko edo aktibitatearen ara-
bera bilatzen ahal dira. Iragarkia jartzeko, facebook
sare sozialean partekatzen edo zozketetan parte
hartzeko aukera ere eskaintzen du.

Sotorekin Santamaria
jatetxean.

Zinema

LEITZA

Zinema denboraldia

Azaroaren 25 eta 27an

El árbol de la vida.

Abenduaren 2 eta 4an

Urte berri on, amona.

Mendi ateraldiak

BERA

Larun Ttiki mendi taldearen irteera

Azaroaren 27an lamo-
teneatik Larretagaine-
rat. (09:30).

Gerrako bunkerretan barra

**Azaroaren 27an eta
abenduaren 4an** ge-
rrako bunkerretan ibi-
laldi gidatuak eta Gure
Txokoan erakusketa.

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Azaroaren 27an Pitza-
mar-Erdiz-Urkiaga-Zil-
beti irteera (08:00).

Abenduaren 4an Ur-
dazubi-Alzatenea-Ibai-
neta-Harri Xuri-Ibaine-
ta-Azkar-Urdazubi ir-
teera (08:00).

Abenduaren 11n Al-
mandoz-Santa Barba-
ra-Mendiola-Sorate-
Belate-Arluz-San Blas-
Almandoz (08:00).

SUNBILLA

Ulibeltzak Mendi Taldea

Azaroaren 27an Atxu-
riara (07:30ean plazan).

LEITZA

Mendibil Mendi Taldea

Azaroaren 12an Liza-
rusti-Larraitz irteera.

ZUGARRAMURDI

Atxuria Mendi Taldea

Azaroaren 27an Kan-
borat ateraldia.

Gertaera guztiak
ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ETXEBIZITZAK

salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

LESAKA. Etxebizitza bifamiliarra salgai, prezio onean. ☎609 477277.

**ANZABAL**
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ETXALAR. Zaharberritzeko den borda salgai. Lur eremuarekin. ☎661 121540.

LEITZA. Pisua salgai oso egoera onean, bizitzera sartzeko prest. 90m²ko pisu argitsua, oso toki la-
saian; sukaldea, bainu-
gela, egongela, 3 logela han-
di eta trastelekuarekin. Igogailua jarri berria eta berogailuarekin. Prezio ne-
goziagarria, etor zaitez
ikustera! ☎649 208310.

ELIZONDO. Maurizio eta Felix Plazan pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, tras-
telekua eta garaje-plaza. Mobleztatua. ☎685 408968.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

BERA. Klase partikularrak emanen nizkieke Lehen Hezkuntza eta D.B.H.-ko ikasleei. ☎628 078573.

38 urteko emakumea larunbat eta igandeetan edozein lanetan aritzeko prest dago. ☎663 420685.

35 urteko emakumea taberna edo kafetegiren batean lan eginen luke. 5 urte esperientzia. ☎664 670384.

Gizon gazte bat anima-
liak zaintzen, garbitzen edota mantenimendu la-
netan ariko litzateke. ☎630 979584.

LANA

eskaintzak

Teleoperadora espe-
rientziaduna behar da hi-
tzordua emateko. Es-
perientziarik ez bada, ez
deitu. ☎699 382673.

DANTXARINEA. Aste-
buruetan lan egiteko
zerbitzaria behar da.
☎948 599013.

MOTORRA

salerosketak

Volkswagen Passat 1,9
TDI autoa salgai. 130 zal-
di. Highline. 5 ate.
2002koa. Aire egokitua,
beira igogailu elektrikoa
eta extra gehiago. Urdin
ilun kolorekoa, metaliza-
tua. 126.000 kilometro.
Prezio ekonomikoa. ☎617 792401.

Toyota runner 3.0 sal-
gai. Gutxi erabilia.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

BERA. Apartamentua errentan emateko. 3 lo-
gela, 2 bainugela, tras-
telekua eta aparkatzeko
garaje plazarekin. ☎646 091754.

LESAKA. Mobleztatuta-
ko pisua errentan ema-
teko. Sukaldea, 3 loge-
la, egongela, bainugela
eta trastelekuarekin, 80
m² ditu eta sartzeko prest.
☎664 634260 (Deitu
14:30etik aitzinera).

LESAKA. Logela erren-
tan emateko, internete-
rako aukerarekin. 160 eu-
ro. Pertsona arduratsua.
☎658 503895.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

LESAKA. Plaza erdian ga-
raje itxia errentan emate-
ko. ☎675 714360.

DONEZTEBE. 80m²ko lo-
kala errentan emateko
Merkatuko Karrikan. ☎943 797921 (deitu gauzez).

LANA

eskariak

Emakume heldua eta euskalduna, gazteleraz eta frantsesez dakiena, esperientzia haundiarekin, pertsonak zaintzen ariko litzateke, baita ospitalean ere. Autoarekin. ☎652 729101.

LEITZAETAINGURUAN emakume batek umeak edo adinekoak zaintzen, edo etxeak, taberna edo fregaderan garbitzen lan eginen luke. ☎695 716894.

BAZTAN-MALERREKA. Hemengo emakume ba-
tek arratsalde ordu ba-
tuetan lan eginen luke
adinekoak edo haurrak
zaintzen. ☎627 258817.

DONEZTEBE. Ogiberri okindegiaren gainean, pi-
sua salgai. 2 logela, 2 bai-
nugela, egongela, suka-
ldea eta trastelekua. 36m²ko terraza bikaina, oso eguzkitsua. Dena he-
goaldera. ☎656 770373.

BERA. Apartamentua sal-
gai. ☎630 441315.

ARESO. Sastizar base-
rri-landetxea salgai,
25.000 m²ko lur eremu-
arekin. ☎649 707584.



LESAKA. Azkaine karri-
kan 90m²ko pisua eta 24
m²ko lokala salgai. Su-
kaldea mobleztatuarekin.
☎667 796439.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(azaroaren 4tik 11ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 32,00 € (=)

Zerri gizena
1,190 € kilo. (=)

Zerramak:
0,450€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,31 (+0,03)
1.koa 4,01 (+0,03)
2.koa 3,77 (+0,03)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,39 (+0,03)
1.koa 4,11 (+0,03)
2.koa 3,99 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 100,00 (=)
idixkoak 180,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 120,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,91/3,01
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 9,00/9,70
8-10 kilokoak: 7,80/8,00


174.000 kilometro. Sus-
pentsio eta kubiartak es-
treinatzeak. Hagitz
egoera onean. Leiho tin-
datuak. ☎653 709496.




Seat Ibiza 1.9 salgai. 3
atekoa, kontsumo baxu-
koa. Arras egoera one-
an. ☎675 536335.

Yamaha IFZ 450 moto-
rra salgai. 2006. urtekoa,
urdira, gutti erabilia eta
egoera onean. ☎606
940157.

Opel Astra Cosmos sal-
gai. 2005ekoa, 1.9 CDTI,
120 zaldikoa, 5 ate, bel-
tza, 90.000 kilometro.
☎679 270432 (Deitu
eguerditan, 13:00etatik
17:00etara).



Volkswagen Golf 140 zal-
di TDI autoa salgai. 2003.
urtekoa, 150.000 kilome-
tro. 5 ate, beltza eta egoe-
ra hagitz onean. ☎607
924379.



Citroen C3 1.400 injek-
zioa (gasolina) salgai. 5
atekoa. 45.000 kilometro.
Errebisio liburuarekin eta
jabe bakarra izan du.
3.400 euro. ☎670 410556.



MOTORRAK tailerrak

MENDAU MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ZERBITZUAK denetarik



ANIMALIAK oparitzeko

IGANTZI. 2 urteko katu
emea oparitzeko, ez da-
go esterilizatua baina in-
teresatuak horrela nahi
badu, esterilizatuko da.
☎670 218613.

ANIMALIAK salgai

Lau hilabeteko grifoi arra-
zako **zakurkumeak** sal-
gai. ☎667 874991.

Ernari dauden **astoak**
salgai, kumeekin. ☎636
322080.

10-15 **ardi mutur gorri**,
31 **eskubide** (deretxo)
eta 2 urteko **setterra** sal-
gai. ☎650 176597.

Udaberrian 3 urte bete-
ko dituen **ahari mutur**
grisa salgai, adarrik ga-
bea. ☎948 450353.

8 hilabeteko **bi bildots**
eta **ahari** bat salgai.
Bergintxon arrazakoak.
☎627 735113.

DENETARIK salerosketak

SUNBILLA. Su egurra
salgai, lotean edo xehe-
tua. ☎659 867287 / 699
461394.

Hozkailu kamara salgai.
Neurriak: 3,16 x 3,16 x

2,45. Panelak. Berria.
9.000 euro negoziaga-
rriak. ☎615 004047.

ORONAZ. Egurra xehe-
tua salgai. Pagoa eta ha-
ritza. Etxera eramaten da.
☎676 242520.

Hohner markako **pianoa**
salgai, prezio onean.
☎654 156710.

Akazia piketeak salgai.
☎666 788143.

Ohatzea salgai, egoera
ezin hobean. ☎688
689218.



DENETARIK galdu/aurkituak

BERA. Kultur Etxe ondo-
an edo Eztegara frontoi-
ko aparkalekuan betau-
rreko graduatuak aurki-
tu dira, lokarri beltzare-
kin. Galdu dituenak udal
bulegoetan (orain Kultur
Etxean) galdetu.



OSOKO BILKURAREN AKORDIOA / HIRIGINTZA

Udaleko Osoko Bilkuraren akordioak, 2011ko urriaren 20koak:

- Udal Plan Orokorren aldagaketa xehakatur, A 302-304 unita-
tean (9. p., 302., 304. eta 330. l.), hasiera batez onestea.
- Udal Plan Orokorren interesdun eraikinen inbentario-kata-
logoa, Lizarraga etxeari dagokiona, aldatzeko espedientea ha-
siera batez onestea.

Espediente hauek jendeaurrean izanen dira hilabete batez, da-
gozkion iragarkiak NAOn argitara ematen denetik..

Bera, 2011.11.10 ALKATEA, Mª Sol M. Taberna Iratzoki



TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOA HIRIGINTZA

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2011ko urriaren
27an egindako bilkuran, Bostargi S.L.-k sustatutako Mirentxu
Bentako, Ibardin (4. poligonoko 179. eta 210. lur-zatiak) Xehe-
tasun Azterlana onetsi zuen hasiera batez.

Espedientea jendeaurrean izanen da hoguei egunez, dagokion ira-
garkia NAOn argitara ematen denetik.

Bera, 2011.11.16
ALKATEA,
Mª Sol M. Taberna Iratzoki



hemen
agertu
nahi
duzu?

egin zure erosketa

www.ttipi.net en


IRAGARKIA
2 aldizkaritan
interneten

8
EURO

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



ALAITZ IBARRA BEREAU aranztarak urtea bete du azaroaren 17an. Zorionak attia, ama, Sunbilla eta Arantzako familiaren partetik. Muxuk.



Oronozko UNAI TORRES ALEMANek 7 urte bete ditu azaroaren 23an. Zorionak gizontxo anaia Markel, aita, ama eta familia guztia- ren partetik.




BEÑAT TELLETXEA SEIN igantziarrak urtea beteko du abenduaren 1ean. Zorionak familia guztia- ren partetik.



PATXI LOIARTE PETRIKORENA igantziarrak azaroaren 27an 9 urte beteko ditu. Zorionak etxekoan parte- tik pilotari!




Lesakako BEÑAT ETXABIDE OLAZA- BALEK azaroaren 23an 6 urte bete ditu. Zorionak Beheko Errotako attona, amaxi, izeba-osabak eta bereziki Amairu eta Ainitze.



Goizuetako PAULAK 6 urte bete ditu azaroaren 22an eta NEREAK, berriz, 4 urte bete ditu urriaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bana familia guztia- ren partetik.



Leitzako UGAITZ LOIARTE OLANOK urteak bete ditu azaroaren 22an. Zorionak Ugaitzito! Attuna, amona, tio Mieltxo, Imanol eta Mikaelaren partetik. Muxu haundi bat.




Leitzako UGAITZ LOIARTE OLANOK urteak bete ditu azaroaren 22an. Zorionak pilotari! Amaxo, aitaxo eta Arkaitzen partetik. Muxu haundi bat.



Berako JOSE JABIER ZELAIETAK urteak beteko ditu azaroaren 28an. Aunitz urtez familia guztia- ren partetik eta bereziki Garaine eta Iraide iloben parte- tik. Ongi pasa eguna osaba. Muxuak.



DIEGO BIURRUNA ORTIZek 10 urte beteko ditu azaroaren 30ean. Egun ona pasa eta segi horren alai. Zorionak eta muxu pila familia- ren partetik.



MIRARI IRIBARREN zubietarrak 5 urte bete zituen azaroaren 5ean. Zorionak familia guztia- ren partetik gure pintza panpoxari eta muxu pottolo-pottolo asko Aimar, Eneko, aitaxo eta amaxoren partetik. Segi beti bezain alai.




NAHIA BERTIZ BABAZE sunbildarrak 2 urte beteko ditu abenduaren 14an. Zorionak felixiana eta 2 muxu pottolo Sunbilla eta Urrozko familia guztia- ren partetik, bereziki attatto eta amaxoren partetik. Segi beti bezain polita eta alai!



Lesakako AROA AROZENA TAPIAK urtea bete du azaroaren 21ean. Zorionak eta muxu haundi bat Lesakako eta Goizuetako familiaren partetik.




Zubietako ANE eta NAHIA ETXEBERRIA URTXULATEGIK 8 urte beteko dituzte azaroaren 25ean. Aunitz urtez familia guztia- ren partetik. Ea txokolate txuriko pastela ailegatzen den. Muxuak!




NAHIA MARTIN PORTUK urtea bete- kek du azaroa- ren 29an. Aunitz urtez familia eta bereziki aitabi- amaxi, Leiza eta Lesakako lehen- gusen partetik.




Zubietako LUJIA FAGOAGA BABAZEK abenduaren 14an 7 urte beteko ditu. Zorionak eta 7 muxu haundi attia, ama, Egoi, izeba-osaba eta atauxi-amaxoren partetik.



LUJIA FAGOAGA BABAZE zubieta- rrak 7 urte beteko ditu abendu- ren 14an. Zorionak eta muxu haundi bat Aurtziko familiaren partetik. Berendu goxoa prestatu!



NAHIA MARTIN PORTUK urtea bete- kek du azaroa- ren 29an. Aunitz urtez familia eta bereziki aitabi- amaxi, Leiza eta Lesakako lehen- gusen partetik.



NAHIA MARTIN PORTUK urtea bete- kek du azaroa- ren 29an. Aunitz urtez familia eta bereziki aitabi- amaxi, Leiza eta Lesakako lehen- gusen partetik.



NAHIA MARTIN PORTUK urtea bete- kek du azaroa- ren 29an. Aunitz urtez familia eta bereziki aitabi- amaxi, Leiza eta Lesakako lehen- gusen partetik.



NAHIA MARTIN PORTUK urtea bete- kek du azaroa- ren 29an. Aunitz urtez familia eta bereziki aitabi- amaxi, Leiza eta Lesakako lehen- gusen partetik.




NAHIA MARTIN PORTUK urtea bete- kek du azaroa- ren 29an. Aunitz urtez familia eta bereziki aitabi- amaxi, Leiza eta Lesakako lehen- gusen partetik.




Zorionak Lekunberriko (Goizuet) ARAN LEKUNBERRI zure lehen- biziko urtebetetzean. Muxu haun- di-haundi bat Oier, ama eta atta- ren partetik.



Zorionak Lekunberriko (Goizuet) ARAN LEKUNBERRI zure lehen- biziko urtebetetzean. Muxu haun- di-haundi bat Oier, ama eta atta- ren partetik.



Zorionak Lekunberriko (Goizuet) ARAN LEKUNBERRI zure lehen- biziko urtebetetzean. Muxu haun- di-haundi bat Oier, ama eta atta- ren partetik.



Zorionak Lekunberriko (Goizuet) ARAN LEKUNBERRI zure lehen- biziko urtebetetzean. Muxu haun- di-haundi bat Oier, ama eta atta- ren partetik.



Zorionak Lekunberriko (Goizuet) ARAN LEKUNBERRI zure lehen- biziko urtebetetzean. Muxu haun- di-haundi bat Oier, ama eta atta- ren partetik.



Zorionak Lekunberriko (Goizuet) ARAN LEKUNBERRI zure lehen- biziko urtebetetzean. Muxu haun- di-haundi bat Oier, ama eta atta- ren partetik.



Zorionak Lekunberriko (Goizuet) ARAN LEKUNBERRI zure lehen- biziko urtebetetzean. Muxu haun- di-haundi bat Oier, ama eta atta- ren partetik.



Zorionak Lekunberriko (Goizuet) ARAN LEKUNBERRI zure lehen- biziko urtebetetzean. Muxu haun- di-haundi bat Oier, ama eta atta- ren partetik.

hemen agertu nahi duzu?

egia zure brokerei

www.ttipi.net

4 8

ttipi txartela harpidetza baino merkeagoa da

+ ttipi-ttapa aldizkaria duan 39 dendetan deskontuak

hamabostero zozketa izugarriak

40euro

10euro

30euro

TTIPI-TTAPAren urteko kuota 21euro baino du.

TTIPI TXARTELA dutenek, 30eurotako dute urtearen azkenean, Errentaren Aitorpenarekin 10euro itzuliko baitzaie.

TTIPI TXARTELA

TTIPI-TTAPAren urteko kuota 21euro baino du.

TTIPI TXARTELA dutenek, 30eurotako dute urtearen azkenean, Errentaren Aitorpenarekin 10euro itzuliko baitzaie.

TTIPI-TTAPAren urteko kuota 21euro baino du.

TTIPI TXARTELA dutenek, 30eurotako dute urtearen azkenean, Errentaren Aitorpenarekin 10euro itzuliko baitzaie.



**DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK**
Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

554. ALEKO IRABAZLEAK

* MARTIRO LOTEA

(Irene Arrese Huarte / Gartzia)

* EREIN 2 LIBURU

(Bernabe Gurrutxaga / Maria Mariela Iturza / Iñaki
Mauricio M. B. / Nerea Iturriz G. / Iñaki)

* ONIMART KAMISETA

(Jose Oñativia Arrese / Iñaki)

* PIRRYTX, PORROT ETA MARIMOTOTS LIBURUA

(Virginia Urreola Aizaga / Dorothea)

* TTIPI SASKIA

(Juan Antonio Galdaburu Berru / Titi)



2 LIBURU

Baizabul argitaletxea
www.baizabul.com



AQUARIUM 2 SARRERA

Donostiako Aquarium-a
www.aquariuma.com




PUNPALAPLAN CD + DVD

Urtxintza eskola
www.urtxintza.org



TXOKOLATE LOTEA

Arkupe gaztegia
www.arkupegaztegia.com



KAMISETA BAT



Onddo la punto
www.onddotagueria.com



MENDE BATEN ALDARRIAK LIBURUA+CDa

Lanku argitaletxea
www.lanku.com

DESKONTUAK



ABENDUAK
3

LURDJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK
02:00etatik aintzina 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte.

ABENDUAK
7

LURDJOTAK

01:00 DOHAINIK

ABENDUAK
10

KOMA

00:30 - 12€ Aurretik - 15€ Bertan
Salmenta puntuak: Antxitonea eta Txokoto (Elizondo) _ El Infiernito Guitar Shop (Iruña) _ Atxaspi (Leesaka)

ABENDUAK
17

OIHAN VEGA DJ + GOGOS

01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte.

ABENDUAK
24

GABON GAUA

02:00 DOHAINIK

ABENDUAK
25

EGUBERRI EGUNA

01:00 - 02:00 DOHAINIK
02:00etatik aintzina 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte.

ABENDUAK
26

URTE ZAHAR GAUA

02:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 04:00ak arte
IREKIA 08:30ak arte



garagardotegia

Detritat, turismoa eta jasangarria bezperetan irekita
ENBESERAK: 011 46041101